# Goienkaria

2007ko otsailaren 2a > Egubakoitza > VII. urtea > 274. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Emakume asko daude, herri hau jaso dutenak, pentsio ezin tristeagoekin"



**Felipe Antonio Igartua**
Appalde-ko kidea > 09

**G2a** Pirritx eta Porrotx-en arrakasta > 43

**HEZKUNTZA**
Astelehenean inauguratuko dute haur eskola Aramaion > 38

**ETORKINAK**
Etorkinendako ongietorri gida egingo du Mankomunitateak > 06

**GIZARTEA**
Javier Gartzia 23 urteko bergararra Bizkaiko Mister izendatu dute > 56

**BERGARA** > ETXEBIZITZAK

## Urteagan 219 etxe gehiago

104 babestutako etxebizitzak izango dira eta 115, berriz, libreak > 25

**DEBAGOIENA** > IRUZURRA

## Iruzur egin dute igogailu enpresa bik ibarreko hiru herritan

Igogailua jartzekotan ziren bost ataritan gertatu da, Suradesak ohartarazi duenez. Amu gisa beste edozein enpresak baino eskaintza hobea egin izan dute. Gero, bizilagunek obrak hasteko dirua jarri eta obrak hastean, lanok bertan behera laga dituzte bi enpresok, zorrak ordaintzeko dirurik ez zutela esanda. > 04



PASEORAKO Jende ugarik eguneroko paseoa egiteko erabiltzen du bidegorria. Goian emakume koadrila Bergarako Labegaraietako tartean. XABIER URTZELAI

**AZPIEGITURAK** > BIDEGORRI-SAREA

# Bidegorri-sare bateratu baten beharra, gurean

**UDALAK, EUREN KABUZ** Proiektu bateraturik ez dagoenez, udalek hainbat tramu konpondu dituzte

**TRANBIA OZTOPO** Bateragarriak badira ere, tranbiak atzeratu egin du bidegorriaren egitasmoa > 02-03

**ARRASATE** > ZERBITZUAK

## Santa Barbara zabaltzear

Jolas-parkeko lanak otsail bukaeran amaituko dituzte > 18

**ARETXABALETA** > AHT

## AHTren aurkako talde berria

Azpiegituraz informatzeko astea antolatu dute > 33

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55






**AZPIEGITURAK** > BIDEGORRI-SAREA

# Ibarrak behar den moduko bidegorri sarea eskatzen du

**BIDEGIREN ARDURA** AP-1 autobideko promotorea behartuta dago lehengo trenbide zaharra berreskuratzera; betetzeko dago konpromiso hori

**TRANBIAK TAPOI LANA** Eusko Jaurlaritzak 1999an egin zuen publiko Debagoienean tranbia egiteko asmoa. Horrek tapoi lana egin du, eta bidegorrien gauzatzea atzeratu

**PROIEKTU BATERATUA** Hori behar da, ibar osoa batuko duen bidegorri sarearen proiektua bultzatzea; azken urteotan udal batzuek hainbat bidegorri zati egin dituzte

XABIER URTZELAI > BERGARA

Debagoieneko bidegorrien egitasmoak lotura zuzena izan du beti garai batean trenak ibarra zeharkatzeko egiten zuen ibilbidearekin. Vasco-Navarro trenak 61 kilometro egiten zituen gurean, eta gaur egun hori da, hain zuzen ere, bidegorri-sarea egiteko plataforma egokiena –zati handi batean bai, behintzat–.

1983tik gaur egunera arte plangintza asko egin dituzte ibarrean motorrik gabeko ibilbide sarea sortzeko, eta gai horren gaineko azken azterketa LKS ingeniaritza taldeak egin zuen, Mankomunitateak horrela eskatuta (2005). Azken bi urteotan, baina, aurrerapauso gutxi egin da, neurri handi batean tranbiaren proiektuak tapoi lana egin duelako. Hala, azterketa horretatik ateratako ondorioetara joko dugu zuzenean, argigarriak dira-eta.

**AURRERAPAUSO TXIKIA**

Kontuan hartuta bidegorriaren egitasmoa orain dela 22 urteko kontua dela, orain arte pauso txikiak baino ez dira egin. Bidesarea egin gabe dago, eta udal bakoitzak herri inguruetan dauden zati batzuk bidegorri bilakatu dituela da albiste pozgarri bakarretakoa. Hortxe daude, besteak beste, Soraluze eta Osintxu batzen dituen zatia, Bergarako industrialdeko zuzengunea, Arrasate eta Aretxabaleta arteko zatia –tarte bat geratzen da egiteko–, eta Aretxabaleta eta Eskoriatza batzen dituena. Horrekin batera, Aretxabaletako Udala orain dabil beste zati bat asfaltatzeko lanetan, eta ezin da ahaztu Aldundiak dirua emango diola Antzuolari Bergara eta Antzuola bidegorriarekin lotzeko.

Azterketaren bigarren ondorioa da herritarrek geroago eta gehiago eskatzen dituztela bidegorriak eta halako komunikazio sareak; bai garraiobide moduan erabiltzeko, baita aisialdirako ere. Hori horrela, ikusi baino ez dago bide horiek dauden egoera txarrean egonda ere, jendeak zenbat erabiltzen dituen. Jakinekoa da instituzioen erantzuna askotan berandu iristen dela, baina egia da gai horren inguruan geroago eta kontzientzia handiagoa dagoela, hala nola: plan foralak, Agenda 21, garapen iraunkorreko estrategiak eta abar.

**BIDEGIREN KONPROMISOA**

1998an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordeak onartu zuen Eibar-Gasteiz autobideak eragingo zuen ingurumen-inpaktuaren ordainetan, AP-1 autobideko lanak egiten zituen sustatzaileak trenbide zaharra konpondu egin beharko zuela. Horrek esan gura du AP-1 autobidea egiten duena behartuta dagoela Landatik Mekolalderaino trenbide zaharra berreskuratzera. Dokumentuak dio autobideko tramu bat egin eta gehienez urtebete atzera daitekeela zati horretako trenbide zaharraren konponketa. Hala, Debasa enpresa izan zen autobideko lanak egiten hasi zena, eta, Debasa desagertuta, Bidegik hartu zuen ardura hori. Esan barik doa sustatzaile horrek orain arte ez duela konpromisorik bete. Baina egia da, neurri berean, ardura guztia ez daukala Bidegik bakarrik. Tartean daude Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentua, Bide Azpiegituretako Departamentua eta beste hainbat eragile ere.

**ZENBAIT DATU**

**> 61 KILOMETRO**
Kilometro kopuru hori egiten zuen orduko Vasco Navarro trenak ibarrean. Horietatik 41 kilometro Debagoiena zeharkatzeko erabiltzen zituen, Osintxutik Gatzagaraino. Bidegorria egiteko, berriz, trenbide zaharraren plataforma aprobetxatzea izan da beti aukera onena.

**> TRANBIAREKIN BATERA**
Eusko Jaurlaritzak 1999an erakutsi zuen tranbia egiteko asmoa. Zati handi batean trenbide zaharra erabiliko luke tranbiak, eta horrek atzeratu egin du bidegorrien egitasmoa. Ez dira kontrajarriak, bateragarriak dira.

**> ORAIN ARTE EGINDAKOA**
Orain arte Udalek trenbide zaharreko 16 kilometro pasatxo konpondu dituzte. Baina, egitasmoak bateratua behar du.

Etorkizuneko Bidegorri-sarea
Tranbia
Konpondutako zatiak
Beste ibilbide batzuk




**DEBAGOIENEKO MAPA** Tranbiak, zati handi batean, lehengo trenbide zaharraren bidea jarraituko du; tramu batzuetan bidegorria izango du lagun. UNAI MARTIN / ALEX AZKARATE

**TRANBIA, OZTOPO**

1999an Eusko Jaurlaritzak ibarrean tranbia egiteko asmoa erakutsi izana bidegorri-sarearendako oztopo izan da. Proiektuak erakusten du, zati handi batean, tranbiak lehengo trenbide zaharra erabiliko duela. Horrek esan

gura du tranbiak eta bidegorriak batera egin beharko dituztela kilometro asko. Batzuendako aitzakia ezin hobea izan da hori, tranbiaren egitasmoak atzeratu egin du-eta bidegorriaren proiektua –oraindik ez dakigu noiz hasiko dituzten tranbiako lanak–.

Dena dela, udalek, Mankomunitateak eta Garapen Iraunkorreko Departamentuak argi dute tranbiak ezin duela bidegorri-sarea hipotekatu, ezta proiektua gauzatzerakoan atzerapenen sorburu izan ere. Kontrara, bidegorria eta tranbia komunikazio zerbitzu osagarriak izan daitezke.

## Diputazioak dirua emango du Antzuola eta Bergara bidegorriz lotzeko

## Bidegorria eta tranbia-sarea komunikazio zerbitzu osagarriak izan daitezke

**TRENBIDE ZAHARRA, HERRIZ HERRI**

1967ko abenduaren 31n egin zuen trenak ibarrean azken bidaia. Trenbidea eraitsita, garai batean desjabetutako lurrak banatu zituzten. Herri gehienetan Udalak egin ziren lurron jabe, baina Antzuola eta Oñati salbuespenak izan ziren. Oñatin, lur gehienak lehengo jabeen artean banatu zituzten. Horrek esan gura du, gaur egun, jabego pribatu direla. Antzuolaren adibidea bestelakoa da, lurrak FEVEren eskuetan geratu ziren-eta (Espainiako Trenbideen Enpresa Publikoa). Hori horrela, Udalak orain gutxi erosi berri ditu lur horiek.

Aretxabaletan, Eskoriatzan, Antzuolan eta Leintz Gatzagan ordenantza espezifiko batek babestu egiten ditu trenbideko lurrak. Arrasateko erdigunean, berriz, etxebizitzak direla edo industria dela, garai bateko trenbidea desagertu egin da; hori bai, bide alternatibo bat errespetatu da. Bide horrek kasu batzuetan hiru metro zabaleko espaloia du, beste batzuetan erreka ondoko paseo lekua da...

Oñatin, San Prudentzio eta Zubillaga arteko zatia zegoen moduan mantendu da, errez konpondu daitekeena. Zubillagatik Oñatira, baina, bidea galdu egiten da, eta ibilbide alternatiboa egin beharko litzateke. Bergarak ez du lur horiek babesten dituen neurri berezirik, baina trazatua ukitu barik dago, neurri handi batean, erraz errekuperatu daitekeena.

Leintz Gatzagaren kasuan, ikerketak dio komunikabide alternatibo moduan zati horrek indarra galduko balu ere, aisialdirako proposamen ezin hobea dela, Landan Gasteizeraino doan bidegorriarekin lotura izango lukeelako. Amaitzeko, garai bateko trenak Elgeta eta Aramaio alde batean utzi bazituen ere, proiektuak aurreikusten du bi herri horiek Bergararekin eta Arrasaterekin lotzea.

**ORAIN ARTE EGINDAKOA**

Debagoiena zeharkatuko duen bidegorri-sarearen proiektuari osotasunean heldu barik, hainbat Udaletan lanak egin dituzte, eta guztira trenbideko 16 kilometro konpondu dituzte. Lan horien artean daude Bergarako zati on bateko garbiketa lanak eta zubi bateko konponketa (12 km), Leintz Gatzagako lurretan dagoen 2,9 kilometroko zatia atontzea eta Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan hainbat kilometrotan lanak egitea. 1998 eta 1999 urteen artean egin ziren lanok, orduko 29 milioi pezeta inbertituta.

### BIDEGORRI-SAREA HERRITARREN IKUSPUNTUTIK



**Aitor Rementeria**
Antxintxikako presidentea

Gu aspalditik gabiltza bidegorria eskatzen. Jendea auto artean ibiltzen da korrika, errepidea behin eta berriro gurutzatzen. Hala, bidegorriak ondo entrenatzeko aukera ezin hobea emango luke. Alde horretatik, uste dut kirola sustatzeko plataforma ezin hobea izango litzatekeela, baina horrez gain, herri batetik bestera autoa hartu barik joateko aukera emango luke; bizikletan, adibidez.



**Unai Asurmendi**
Bergarako Kirol teknikaria

Batetik, ibarreko kirol teknikariok argi ikusten dugu bidegorria oinarrizko kirol instalazioa dela, kirol askorendako erantzuna ematen duelako: korrikan, patinatzen edo skatean ibiltzeko, besteak beste. Horrekin batera, edozein herritar batetik bestera joatea bermatzen du, bai oinez, bai bizikletan edota gurpildun aulkian. Azken baten, bidegorria garraiobide alternatiboa ere bada.



**Aitor Ugalde**
Txirrinka taldeko kidea

Bidegorriak beharrezko ikusten ditugu, baina ez aisialdirako bakarrik, baita garraiobide moduan ere. Dena dela, azterketa globala egin beharko litzateke, hainbat lekutan ez da-eta bidegorriarendako tokirik egongo. Leku horietan bizikletek, autoek eta oinezkoek batera bizi beharko dute, eta errespetua beharko da hor, gaur egun autoak errazegi ibiltzen dira-eta errepidean, abusatuz.



Osintxu eta Soraluze lotzen dituen trenbide zatia egoera oso onean dago, Diputazioak lanak egin ditu-eta hantxe. Bide horrek hiru metro zabal ditu, eta 2.300 metro luze. Oinezkoendako pasealekua da, eta bizikletek ere baimenduta dute han ibiltzea.


Elorregitik Oñatira bidean, tranbiak aprobetxatuko luke trenbide zaharraren ibilbidea, eta bidegorriak, zati batzuetan, ibilbide alternatiboa behar du. Zubillagan, errepidearen alde bietan dagoen espaloiak 1,5 metroko zabalera du. Tranbia Zubillagako atzeko lurretatik igaroko da.


Arrasateko Araba etorbidean –Lidl merkataritzaguneko parkinga– egindako erretratuak erakusten du orain arte egindako bidegorri tramuak zatika eginda daudela, herri guztiak ondo lotzeko aurrekontu barik. Aretxabaletara bidean zubi azpitik egin dute bidea, baina beste 100 metro geratzen dira egiteko.


Bidegorriak nahiko ondo lotzen ditu Aretxabaleta eta Eskoriatza. Zati horretan bereiztuta daude bizikletan ibiltzeko eta oinezkoendako bideak. Zati on bat, gainera, argiztatuta dago, baina ez dena. Aretxabaletan orain hasi dira herri barruko bidegorri zatia asfaltatzen.

LORAMENDI
INTERSPORT
KIROLAK ARRASATE
%50
txamarrak,
forro polarrak, prakak...
ski-snow
%20

**ERABERRITZEA** > INFORMAZIOA ESKATZEA AHOLKATU DU

# Iruzurraz ohartarazi du Suradesak

Igogailua jartzen duten enpresa bik obrak bukatu gabe uzten dituzte, dirurik ez dutela esanda

Oñatiko, Aretxabaletako eta Bergarako bost ataritan gertatu da hori udatik hona

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Igogailua jartzen duten enpresa batzuk iruzur egiten ari direla ohartarazi nahi du Suradesak, Debagoieneko etxebizitzak eraberritzeko sortutako enpresak. Luis Laskurain Suradesako gerenteak azaldu duen moduan, "beste edozein enpresak baino eskaintza hobea egiten dute bi enpresa horiek. Bizilagunek dirua jartzen dute lanak hasteko, eta obrak hasten direnean, enpresak bertan behera uzten ditu, zorrak ordaintzeko dirurik ez duela esanda". Oñatin, Aretxabaletan eta Bergaran gertatu dira mota horretako kasuak; Bizkaian dute egoitza enpresa horiek.

**BOST ATARITAKO BIZILAGUNAK**

Oñatiko Roke Azkune kaleko bi ataritan, Aretxabaletako Araba etorbideko beste bitan eta Bergarako Koldo Eleizalde kaleko atari baten gertatu dira horrelako kasuak: "Atari baten, adibidez, zazpi milioi pezeta galdu dituzte bizilagunek. Epaiketatan dabiltza, baina zaila izango dute diru hori berreskuratzea", esan du Luis Laskurainek. Horregatik guztiagatik, Suradesak aholkatzen du bi enpresa horietako aurrekontuak eskatuta dituzten bizilagunei aurrekontuok ez onartzeko.

Horrelako arazorik ez gertatzeko bermerik onena lanak enpresa ezagun bati ematea dela dio Suradesako gerenteak, edo bestela enpresari buruzko informazioa lortzea. Eta horretan laguntzeko gertu dago Suradesa. Eraberritze lanetan aholkatzeko, bi bide ditu Suradesak: herrietako udalen bitartez eurekin harremanetan jarrita edo Arrasateko bulegora deituta. Telefonoak dira: 943 79 33 99 eta 943 79 06 45.



**OÑATI** Roke Azkune kalean bi ataritan gertatu da iruzurra. O.E.

**AHT**

## Arrasatetik Elorriorako zatia esleitu dute

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Abiadura Handiko Trenaren *Euskal Y*-aren beste bi zati eraikitzeko lanak adjudikatu ditu Espainiako Sustapen Ministerioak, horietako bat Debagoienari dagokiona. Arrasate eta Elorrio arteko lanak, hain zuzen ere, esleitu dituzte. Horrekin batera, Abadiño eta Durango artekoa ere esleitu dute.

Debagoieneko zatiari dagokionez, ia 70 milioi euroko aurrekontua izango du; Obras Subterraneas enpresak egingo ditu lanok eta 33 hilabete izango ditu horretarako. 4,44 kilometro ditu zati horrek; aipatzekoak dira bi zubi-bide: Gabaundikoa (223 metro) eta Kobatekoa (93 metro). Bi tunel ere eraikiko dituzte: Karraskaingoa (410 metro) eta Udalatxekoa (3.160 metro).

Arrasate eta Elorrio arteko hori *Euskal Y*-aren zati konplexuenetakoa eta garestienetakoa da, hiru lurraldeak batzen dituen lotunearen parte delako.





FITUR AZOKAN Ikerne Altube, Ernesto Murgiondo eta Joxe Fernandez Fiturren. OÑATIKO GARAPEN ETA TURISMO AGENTZIA

**TURISMOA** > FITUR AZOKA EGUAZTENEAN HASI ZEN ETA DOMEKAN AMAITUKO DA

# Arrikrutzeko koba Euskadiko izarretako bat Fitur azokan

Mankomunitateko turismo batzordeak ibarreko turismo eskaintza eraman du Madrilera, 'Ignaziotar Lurraldea' proiektuaren barruan

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Eguaztenean, hilak 31, zabaldu zuten Fitur Nazioarteko Turismo Azoka Madrilen, IFEMA erakustazokan. Domekara arte, hilak 4, egongo da zabalik.

Debagoieneko Mankomunitateak gure ibarreko herri guztietako turismo eskaintza osoa eraman du azoka horretara. *Ignaziotar Lurraldea* proiektuaren barruan sartzen da turismo eskaintza hori, eta Urola Garaiko eta Urola Erdiko eskualdeekin batera aurkeztu dute euren eskaintza Madrilen. Lurralde bakoitzak standa dauka eta Debagoienaren eskaintza ikusgai dago Gipuzkoako standean, bederatzigarren pabiloian. Debagoienak Fitur azokan parte hartzen duen bederatzigarren aldia da.

**ARRIKRUTZ, PRODUKTU IZARRA**

Eusko Jaurlaritzak bereziki promozionatuko dituen produktuetako bat Oñatiko Arrikrutzeko koba izango da, besteak beste, Balentziaga museoarekin eta Portugaleteko Bizkaia zubiarekin batera. Debagoieneko beste protagonista bat izango da Oñatiko Turismo Bulegoa. Instituto Para la Calidad Turística erakundeak *Q* saria eman zion Oñatiko bulegoari; orduan, Jaurlaritzako Turismo Sailaren bitartez heldu zitzaien saria. Orain, Fiturren, erakunde horren errekonozimendu ekitaldian egongo dira.

Debagoieneko protagonista nagusiak Oñatikoak izanda, ordezkaritza politikoa ere izan du Oñatik Madrilen: Joxe Fernandez Mankomunitateko Turismo batzordeko presidentea eta Ernesto Murgiondo zinegotzia hantxe izan dira egunotan. Baita Ikerne Altube Oñatiko Garapen eta Tursimo Agentziako arduraduna ere.

## Arrikrutzeko koba ekainerako zabaldu nahi dute

Maiatzean edo ekainean bisitariendako zabaldu nahi dute Arrikrutzeko koba. Izan ere, 53. galerian barrena egingo den ibilbidea prestatzeko lanak oso aurreratuta daude. Igarobidea laster bukatzea espero dute.

Ikerne Altubek, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako arduradunak, honakoa esan digu Fiturren kobak izan duen presentziaren gainean: "Jaurlaritzak produktu nagusien aukeraketa egitean, berme bat eskaintzen duten eta urtetan landu diren proiektuak aukeratzen ditu".



Arrikrutzeko koba. JOXE FERNANDEZ

**AP-1** > IRREGULARTASUNAK SALATU ZITUEN ARALARREK

# Bidegiko zuzendari Nestor Aranak Aralarren salaketak ukatu egin ditu asteon

Gipuzkoako Batzar Nagusietan berba egin du Aranak eta esan du ez dela irregulartasunik izan autobideko lanetan

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Gipuzkoako Azpiegituren Agentziako (Bidegi) zuzendariak, Nestor Aranak, orain dela hilabete batzuk Aralarrek egindako salaketei erantzun zien martitzenean, Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Hain zuzen, Aralarrek salatu zuen AP-1 autobidearen Eskoriatza-Arlaban zatiaren lanei dagokienez irregulartasunak izan zirela; Aralarren esanetan, enpresa eraikitzaileak Zarimuzko zubi-bidea egiten hasteko baimena eskatu eta eskaera hori jendaurrean jarri zuten azaroaren 10etik 30era, gura zuenak alegazioak aurkez zitzan. Azaro erdialderako, baina, Aralarren esanetan, amaituta zeuden lanok, hau da, baimena eskuratu aurretik.

**JENDAURREAN 2004AN ERE**

Aralar alderdiak halaxe eskatuta, Gipuzkoa Batzar Nagusien aurrean gai horren gaineko azalpenak eman zituen Nestor Aranak. Hark adierazi zuenez, Diputazioak 2004an jarri zuen jendaurrean tarte horri dagokion proiektua eta haren aholkulari juridikoen arabera ez zegoen berriro publiko egin beharrik. Eusko Jaurlaritzak, baina, berriro abian jarri zuen prozedura hori.

Aralarrek, bestalde, azaldu zuen gune hori dela, Europako arautegiaren arabera, gune komunitarioko habitat; bisoi europarrarendako interes bereziko gunea da, Aralarren esanetan. Horren harira, Nestor Aranak adierazi zuen lanak amaitutakoan erreka inguruko kalteak konponduko dituztela eta ingurune hori lehengo egoeran lagako dutela. Gaineratu zuen inguru horretan ez dela bisoirik agertu. Bukatzeko, Aralarrek egin duena demagogia izan dela adierazi zuen.

Rebeka Uberak, Aralar alderdiko batzarkideak, esan zuen onartezina dela tramiteak errespetatu gabe jardutea.



Nazio Batuetako Garapenerako Programaren (UNDP)
GIZA GARAPENARI BURUZKO 2006KO TXOSTENA
“Eskasia baino gehiago: boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia”

**MAHAI INGURUA**

UNESCO Etxeak atsegin handiz gonbidatzen zaituzte *Giza garapenari buruzko 2006ko txostena ‘Eskasia baino gehiago: boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia’ aurkezpenaren* inguruan burutuko den mahai-ingurura. Mahai-ingurua **otsailaren 6an**, asteartea, izango da, **18.30 etan, Arrasateko Kultur Etxean** (Azoka kalea 1).

Mahai-inguruan partaide izango dira:

- Ana Oregi andrea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Uren Sailburuordea.
- Miren Onaindia andrea, UPV/EHUko Garapen Iraunkor eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedraren koordinatzaile eta UNESCO Etxeko zuzendaritza batzordeko kidea.
- Iñaki Antiguedad jauna, EHUko Hidrologiako irakasle katedraduna.
- Mikel Insausti jauna, ekonomilaria eta UNESCO Etxeko kolaboratzailea ingurumen gaietan.
- Josu Sanz jauna, UNESCO Etxeko Ingurumen saileko arduraduna.

Mahai-inguruaren amaieran txostenaren laburpenak eskainiko dira euskaraz.

*DOAKO SARRERA. Baieztapena otsailaren 2a baino lehen egitea eskertuko da.*

Informazio gehiago eta izen-emateak:
UNESCO Etxea • Tlf. 94 427 64 32
ingurumena@unescoeh.org • **www.unescoeh.org**

Antolatzaileak: unesco etxea — centro unesco euskal herria, centre unesco pays basque, unesco centre basque country

Kolaboratzaileak: Goiena Komunikazio Zerbitzuak; Caja Laboral Euskadiko Kutxa; Arrasateko Udala Ayuntamiento de Mondragón; mundukide fundazioa; ULMA; IRIZAR

Ekitaldi honek sortuko dituen berotegi efektuko gasak konpentsatuko dira CeroCO2 ekimenak bideratzen dituen emisio-murrizte proiektuen bitartez. CeroCO2 ekimenak Aldaketa Klimatikoa murriztea du helburu.

MANKOMUNITATEA > URTARRILEKO BILERAN HARTUTAKO ERABAKIAK

# Etorkinendako harrera gida eta ondareen sailkapena egingo du Mankomunitateak

Hiltegira animaliak eramaten dituzten ibilgailuak desinfektatzeko lekua egiteko laguntza jaso du

Lurdes Idoiaga da Debagoieneko Industrialdean ordezkari berria eta Arritxu Oliden MUn



ETORKINAK Rafael eta Rosemary Elisabeth Ekuador eta Perutik etorri ziren Beragara. I.A.

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Etorkinendako ongietorri gida, Debagoieneko datu sozio-ekonomikoen bilketa eta ibarreko ondareen sailkapena egingo du Mankomunitateak. Urtero moduan, oinez ibiltzeko sarea zaintzeko lanak eta enpresa ekintzen zentroa mantentzeko lanak ere egingo ditu. Bost proiektu horiek egitea onartu du, besteak beste, Mankomunitateak eguaztenean Arrasaten egindako urtarrileko bileran.

**BEDERATZI LANPOSTU**
Aipatutako bost proiektu horiek Inem erakundearen bitartez egingo ditu Mankomunitateak. Ibarreko balioak sailkatzen eta baloratzen, etorkinendako ongietorri gida egiten eta oinez ibiltzeko bideak zaintzeko lanak egiten datorren maiatzean hasiko dira; datu sozio-ekonomikoen bilketa ekainean egingo dute eta ekintza zentroa mantentzeko lanak, irailean. Zortzi lagun kontratatuko dituzte proiektu horiek egiteko.

Bestalde, garbiguneetako zaintzaile bat kontratatzea ere onartu zuen Mankomunitateak bilera hartan. Ibarrean hiru garbigune daude: Oñatin, Bergaran eta Arrasaten. Langileak txandakatu egiten dira, eta langile berria ere horrela ibiliko da. Martxoan egingo dute deialdia.

**LURRALDE ANTOLAMENDUA**
LKSri esleitu dio lurralde antolamenduko aholkularitza lana. Bi urtez egingo ditu lan horiek LKSk eta beste bitan luzatu ahal izango da kontratua. Azken lau urteotan ere hark egin du lan hori.

Garapen ekonomikoarekin lotuta, berriz, Valora proiektuan sartzea onartu zuten. Proiektu horretan Euskal Herriko hainbat garapen agentzia daude. Baldintza da elkarte horrek ematen duen beste diru jarri behar duela Mankomunitateak Debagoienean garapena lantzeko. 180.000 euro inguru jaso ditu, eta, beraz, beste horrenbeste jarri beharko du zazpi urtean. Europatik jasotzen du dirulaguntza elkarteak.

**HILTEGIA BERRIZTATU**
Eguazteneko bileran, presazko bi gai onartu zituen Mankomunitateak. Horietako bat, hiltegian berrikuntzak egiteko Aldundiak emandako dirulaguntzaren hitzarmena. Aldundiak 113.325 euro emango ditu bi berrikuntza hauetarako: hiltze sistema hobetzeko eta izotz kamerak berriztatzeko 85.325 euro, eta hiltegi ondoan abereak garraiatzen dituzten ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko leku bat egiteko 27.800 euro. Hiltegi barruko berriztatze lanak hasita daude.

Bigarren presazko gaia izan da Arritxu Oliden izendatzea Mankomunitatearen ordezkaria MUn, Ignacio Lakuntzaren ordez. Bestalde, Lurdes Idoiaga izango da hemendik aurrera Mankomunitatearen ordezkaria Debagoieneko Industrialdean. Andoni Gartzia zen orain arteko ordezkaria.

ELA SINDIKATUA > TUTERAKO LANGILEEK ESKUBIDE ASKO GALDUKO DITUZTELA SALATU DUTE

## Eroskik Tuterako langileekin duen politika oso gogor salatu du ELA sindikatuak

Kritika eta hitz gogorrak izan dituzte ELA sindikatuko ordezkariek Eroskik Tuteran duen politika salatzeko



PRENTSAURREKOA Urruzola eta Martinez egueneko agerraldian. A.LASAGABASTER

A. I. > ARRASATE
Eguenean prentsaurrekoa egin zuen ELA sindikatuak Arrasaten, Eroskik Tuterako langileekin duen politika salatzeko. Unai Martinez zerbitzuetako idazkariak eta Iker Urruzola ibarreko idazkariak egin zuten berba.

Eroskik "bi aurpegi" dituela esan zuten: "Batetik, Arrasate eta inguruetan itxura *jatorra* eman nahi du, baina, bestetik, txapelokerra jantzi eta bere asmoa inposatu nahi die langileei".

Eroskik Espainiako Estatuko supermerkatuetarako hitzarmen kolektiboa sinatu zuen 2006an, FETICO, UGT eta CCOO sindikatuekin. Hitzarmenean, Tuterako langileenak baino baldintza eskasagoak hartu zituzten oinarritzat. Horrela, "langileek eskubide asko galduko dituzte", gaineratu zuten.

GIZARTEA > ARRASATEN IZANGO DA MAHAI-INGURUA

## Unescoren txostenaren gaineko mahai-ingurua

Ur eskasia eta txirotasuna izango dira eztabaidarako gaiak

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE
Unesco etxeak argitara eman berri duen txostenaren gaineko mahai-ingurua antolatu du datorren asteko martitzenerako, otsailak 6. Arrasateko kultura etxean izango da, 18:30ean. Giza garapenari buruzko 2006ko txostena izango da eztabaidagai: *Eskasia baino gehiago: boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia*. Mahai-inguru horretan honako hauek parte hartuko dute: Ana Oregik (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Uren Sailburuordea); Miren Onaindiak (EHUko Garapen Iraunkor eta Ingurumen Hezkuntzaren gaineko Unesco Katedraren koordinatzailea); Iñaki Antiguedadek (EHUko Hidrologiako irakasle katedraduna); Mikel Insaustik (ekonomilaria eta Unesco etxeko kolaboratzailea ingurumen gaietan) eta Josu Sanzek (Unesco etxeko Ingurumen Saileko arduraduna).

**BIGARREN AURKEZPENA**
Unesco etxearen txostenaren lehen aurkezpena Bilbon egin zuten; orain, Arrasaten egingo dute. Unesco etxeak eta Goienak harremana dute eta Goienak kudeatu du martitzeneko mahai-ingurua.

Eztabaidatuko duten txostenaren arabera, ur eskasiaren gaian arazoa da politikarien kudeaketa txarra. Gainera, herri txiro eta aberatsen arteko desberdintasunak eragiten dituela dio.

Maite Aristegi > Milakabilaka ekimeneko kidea

# "Manifestazioan erakutsi gura dugu ibaia itsasorantz doan moduan, gu bakerantz goazela"

XABIER URTZELAI > BERGARA

**Joan den egubakoitzean aurkeztu zuten Irunen Milakabilaka ekimena, eta bihar bertan egingo dute lehenengo ekitaldia, Bilbon. *Elkarrizketa. Errespetua Euskal Herriari. Bakea* lelopean, milaka lagun batu gura dituzte manifestazio berezian, eta guztiak batuta ere, Maite Aristegik dio oraindik lagun gehiagoren babesa beharko dutela.**


Maite Aristegik bat egin du Milakabilaka ekimenarekin. GOIENKARIA

**Nondik sortu da Milakabilaka ekimena?**

Berez, Nazio Eztabaidagunearen fruitua dela esan dezakegu, bake prozesuari herritarren bultzada emateko asmoarekin egindakoa. Baina Milakabilakan herritarrek izan behar dute protagonista, ez alderdi politikoek, ezta beste eragile batzuek ere. Herritarrek herritarrendako egindako ekimena izan behar du, beste lotura barik.

**Joan den egubakoitzean egin zenuten aurkezpena, Irunen.**

Bai, Euskal Herriko hainbat arlotako jendea batu zen han, aurpegi ezagunak edo... Azken baten, zelanbaiteko erreferente izan daitezkeen 300 lagun elkartu ziren, baina herritar soil moduan egin zuten bat ekimenarekin.

**Aurreikusten zenuten babesa jaso duzue?**

Egia esateko, momentuan babes handia jaso genuen, eta zapatuko manifestazioa gerturatzen dabilen neurrian, geroago eta jende gehiago dabil animatzen. Egia da tarte txikia dagoela aurkezpenetik manifestazio egunera, eta oraingo astean ere giro politikoa nahastuta egon dela, Ibarretxe egotzi egin dutelako. Baina azkenean, dena dago lotuta, eta uste dut jendeak ondo erantzungo duela.

**Biharko manifestazioa, baina, ezohikoa izango da.**

Nahiko berezia izango da, bai. Hasteko, herritarrak izango dira protagonista, alderdi politikoek manifestazioa euren interesetarako erabili barik. Leloa erabakita daukagu, baina ez dugu pankartarik eramango, eta ez diogu jende kopuruari garrantzirik emango, hau da, ez dugu zenbat lagun elkartuko garen esango. Izan ere, joaten garenok joanda ere, badakigu jende gehiagoren beharra izango dugula.

**Politikariei adierazpenik ez egiteko eskatuko diezue, behingoagatik herriak dioena entzun dezatela.**

Bai, akaso lotsagabe samar eskatu diegu hori, baina, lehen esandako moduan, herritarrek izan behar dute protagonista. Oraingoan, politikariei entzutea egokitzen zaie, herritarrek zer esaten duten entzutea. Eta eskaerak zeintzuk diren jakinda, har dezatela indarra eta has daitezela lanean. Alderdikeriatan sartu barik, banatzen gaituzten gauzak alde batera utzi, eta batzen gaituztenak izan ditzatela kontuan.

**Biharko kale agerraldiak egingo duen ibilbidea ere berezia izango da.**

Bai. Areatzako zubian hasiko da manifestazioa (17:00), eta Guggenheim museoraino joango gara, ibai ondotik. Ibaia itsasorantz doan moduan, herria bakerantz doala islatu gura dugu horrekin; aurrera goazen herria garela, alegia. Horrekin batera, manifestazioan herritarrei egindako elkarrizketen bideoak ikusi ahal izango ditugu, eta ibaian behera arraunlariak joango dira gurekin batera.

**Horrek ere izango du esanguraren bat.**

Azken baten, herritar bakoitzak indarra izan dezake, arraunlari batek moduan. Baina talde lana egiten dutenean batzen dute benetako indarra, arraunlariz betetako traineruarekin gertatzen den moduan. Hori islatu gura da, zelanbait.

**Eta ekimen horrekin bat egin gura duenak, sinaduratik haratago, aurpegia ere eman ahal izango du.**

Aukera hori ere egongo da. Sinatzearekin batera, *errespetua* leloa duen kartel batekin argazkia egingo zaie animatzen diren guztiei. Hala, milaka irudi koloretsu batu gura ditugu. Hori ez dugu, baina, manifestazioan bakarrik egingo, laster autobus bat jarriko dugu-eta abian, herriz herri joango dena, herritarren babesa jasotzera.

> **"Biharko manifestazioan herritarrek izan behar dute protagonista bakarrak"**
>
> **"Politikariek herriak dioena entzun beharko dute bihar, eta has daitezela lanean gero"**
>
> **"Kolore biziko erretratuak atera gura ditugu, herritarren aurpegiak erakutsi"**

**kontsumoa**


Hiru lagunetik batek kanpoan bazkaltzen du aste barruan. X.U.

## Posible da etxetik kanpo bazkaldu eta dieta orekatua izatea?

X.U. > ARRASATE

Etxetik kanpo bazkaldu behar izaten dugu askotan: etxera joateko astirik ez daukagulako, lan jarduna jarraian egin gura dugulako edota denbora aurreratzeko asmotan gabiltzalako. Hala, etxetik kanpo bazkalduta ere, posible da ondo jatea, dieta osasungarria egitea, alegia. Horretarako, baina, komeni da hainbat aholku kontuan hartzea, bazkaltzerakoan zer kontsumitu behar dugun jakitea.

Hasteko, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) dio bazkaltzeko gutxienez 40 minutu hartu behar ditugula, eta bazkaltzen gabiltzan bitartean ez dela etenik egitea komeni (lan kontuei heldu, telefonoari erantzun...).

Horrekin batera, platerak eskatzeko orduan, komeni da kaloria askoko saltsa eta bestelakoak alde batera uztea. Hain zuzen ere, entsaladak eta barazkiak dira lehenengo plater aproposenak, eta plantxan egindako okela eta arrainak horren osterako. Postreekin ere argi ibiltzea komeni da, baina horrek ez du esan gura kapritxoendako lekurik ez dagoenik. Hori bai, postrean sagar pastela jan gura duenak ondo zaindu beharko du aurretik jan duena.




### 2006an %29,6 igo zen luxuzko autoen salmenta

Luxuzko autoen artean, BMW eta Mercedes etxeek saldu zituzten iaz automobil gehien. Adituen esanetan, maila sozial jakin bat erakusteko erosten dira horrelako autoak, nahiz eta ordaindu ahal izateko banketxera joan behar izaten den.

Egia da, baina, interes tipoen gorakadak eta puntukako gidabaimena ezartzeak eragin zuzena izan dutela autoen salmentetan. Hala, Madrilen saldu ziren horrelako auto gehien (2.815 auto), Katalunia dator atzetik (1.725 auto), eta Andaluzia hirugarren lekuan (1.164 auto). Euskal Herria ez dago aurreko postuetan.



### Gas kontsumoan errekorra, denboralea dela-eta

Gas naturalaren eskaerak gora egin du, marka berria ezarri arte. Joan den astean, eguenean, penintsulan izandako denborealearen ondorioz 1.619 gigawatt kontsumitu ziren orduko. Aurreko errekorra 1.552 gigawattetan zegoen, 2006ko otsailaren 23an erregistratuta.

Gas gehien kontsumitu duten lurraldeen artean daude Aragoi (%64), Extremadura (%24), Kantabria (%19) eta Madril (%13).

Energia elektrikoari dagokionez, joan den astean 43.000 megawatteko muga gainditu zen, 2005ean ezarritako errekorretik gertu (43.708).

gure artekoak

**NARBAIZA PENTSUAK** > Orain dela hogei urte zabaldu zuen Julen Narbaizak pentsu denda; animaliak ere saltzen ditu, kanarioak eta katuak bereziki. Baita animaliendako osagarriak eta produktuak ere.

Julen Narbaiza

# "Maskotendako pentsua saltzen dugu gehienbat"

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

**Bergarako Masterreka kalean dago Julen Narbaizaren pentsu denda; hantxe egon den edonork ezagutzen ditu haren katuak, erakusleihoan ere egoten dira-eta. Pentsuak, haziak, landareak eta animaliak saltzen ditu.**


Julen, dendan, besotan bere bi katu dituela. A.I.

**Pentsuak saltzen dituzu. Zelako bezeroak dituzu?**

Gehienak dira etxean katua edo txakurra duten herritarrak; gaur egun, gehienbat, maskotendako pentsua saltzen dut.

**Azkeneko urteotan aldatu egin da, hortaz, egoera.**

Bai, asko aldatu da; lehen, gehiago saltzen genuen ganaduarendako pentsua, baina baserrien egoera asko aldatu da, eta, horrekin batera, baita geure egoera ere.

**Ez duzu, baina, pentsua bakarrik saltzen.**

Ez; haziak, landareak eta animaliak ere saltzen ditut. Orain ez da garai onena haziak eta landareak saltzeko; arrosak bakarrik saltzen ditut orain, landatzeko sasoi onena da-eta.

**Ze animalia saltzen dituzu?**

Kanarioak eta katuak. Horiexek dira, nire ustez, ondoen egokitzen direnak gure bizimodura, hirietako edo herrietako bizimodura. 400 bat urte dira kanarioak kaiolan bizi direna, eta oso ondo egokituta daude horretara. Katuak, berriz, oso egokiak dira etxean edukitzeko, euren izaerarengatik; gainera, guretako ere oso erosoak dira, ez dituzu paseatzera atera behar, esaterako, txakurrak bezala.

**Animalia arrarorik ere saldu izan duzu, ezta?**

Bai, inoiz sugeren bat edo saldu izan dut, baina bezeroren batek eskatu didalako.

FITXA TEKNIKOA

**> PENTSU AUKERA ZABALA**
Txakurrendako 41 pentsu mota eta katuendako 23 dauzka. Eta baita 200 lore eta landare hazi ere.

**> ETXEKO KATUAK**
Pertsiar arrazako lau katu ditu Julen Narbaizak, hiru eme eta ar bat; katakumeak saltzen ditu.

**> POSTA ELEKTRONIKOA**
Oraindik ez du webgunerik; bai, ordea, posta elektronikoa: *txibisto@euskalnet.net.*

etxeko leihotik



**Eneko Azkarate** > GOIENKARIAko zuzendaria

# Gipuzkoarrak onenak Bizkai aldean

Ez da samurra zutabe honetarako gai eta hitz egokiak aukeratzea. Zailagoa da bizi dugun egoera nahaspilatsuan: De Juana hilzorian, Ibarretxe epaitegietan, Jarrai-Haika-Segikoak kartzelan, bake prozesua pikutara, ETA bereetan, kale istiluak astebururo… Batzuetan komeni da hain transzendente ez jartzea.

Eta, hala, enteratu gara bergarar bat dela Bizkaiko Misterra. Zer? Gipuzkoar bat Bizkaiko ederrena? Javier Gartzia du izena eta Bilboko agentzia batean dago. Horregatik utzi diote aurkezten. Ala gipuzkoarrak fitxatzen hemen ere? Debagoieneko mutilak, behintzat, harro joan gaitezke kalean: Jorge Fernandez ez zen kasualitatea izan…

Futbolean, bestalde, euskal derbian txuri-gorriak nagusitu ziren domekan Anoetan. Baina, han ere, gipuzkoar bat izan zen onena: Iraola. Eta Bizkaitarren taldean zazpi gipuzkoar zeuden, ia Realekoan beste. Eta horrek kezka sortzen dit. Izan ere, zer dute Juanitok, Gerardok, Jesulik, Herrerak eta bestek, Murillok, Adurizek, Iraolak edo Sarriegik ez dutena? Zertan dihardute Realeko behe mailako begiraleek hainbeste gipuzkoar Lezamara joaten uzten?

**"Debagoieneko mutilak harro: Jorge Fernandez ez zen kasualitate hutsa izan…"**

**> Realak** 12 jokalari ditu **euskaldunak ez direnak, hau da, kanpotik fitxatutakoak. Taldearen erdia. Zertarako, ordea? Ikusitakoak ikusita, hobe litzateke bertakoekin aritzea, gipuzkoar harrobia oparoa da-eta.**

**> Athleticek** izango du **non fitxatu Reala bigarren mailara jaisten bada. Ez ginateke harritu behar Aranburu eta Prieto txuri-gorri jantzita ikusiko bagenitu, azpeitiarra erabateko txuri-urdina bada ere.**

begi-bistan



**Inausketa lanetan (Bergara)**
**2007/01/30**

**Argazkia:** Oihana Elortza.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Bergarako Santa Marina parrokiaren ondoan dauden banananondoak inausi (podatu) dituzte oraingo astean. Inausketa sasoian gaude; udazken eta neguan izaten da horretarako garaia.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



**Iraia Artzamendi**
PINTOREA

Bergarako Nahikari tabernan jarri du erakusketa Iraia Artzamendi arrasatearrak. 22 urte ditu eta Arte Ederrak ikasi zituen Leioan.

Hamaika margolan jarri ditu: grabatuak, serigrafia lanak eta estanpazioak. Otsail osoan egongo da erakusketa zabalik.



**Jose Luis Iartza**
SAN FELIPE APOSTOL

Arrasateko San Felipe Apostol elkarteko presidente berria da Jose Luis Iartza. Domekan egin zuten urteko batzar orokorra eta hantxe aukeratu zuten. Idazkaria izango da Joxe Elortza eta diruzaina Jose Antonio Etxeberria. Hileta zerbitzuez arduratzen da elkarte hori.



**Ivan Vaz**
DISEINATZAILEA

Atzo, eguena, EAEko diseinatzaile onenaren lehiaketako finala jokatu zuten Barakaldon. Hiru finalistetako bat zen Ivan Vaz aretxabaletarra. Erredakzioa ixterakoan bukatu gabe zegoen ekitaldia. *Sueños de seda y algodon* izeneko bilduma aurkeztu du lehiaketa horretan.

Urolako eta Goierriko giza plataformak protesta egiteko elkartu ziren hilaren 23an, Donostian, Diputazioaren aurrean. Eta, Debagoieneko aurre-erretiratu eta pentsiodunen elkarteak, Appaldek, bat egin zuen protestarekin. Alargunduta dauden emakume edadetuen egoera salatu gura izan zuten, eta pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko eskatu.

**Felipe Antonio Igartua** > Appalde elkarteko presidentea

# "Emakume asko daude herri hau jaso dutenak, pentsio ezin tristeagoarekin"

XABIER URTZELAI > OÑATI

**Badira zortzi urte ibarrean Appalde elkartea sortu zutela, eta ordutik hona da presidente Felipe Antonio Igartua (Oñati, 1939). Emakume alargunen alde egindako protestaren gainean hasi gara berbetan, baina askoz ere gehiagorako eman du elkarrizketak.**


XABIER URTZELAI

**Appaldek bat egin zuen alargunduta dauden emakume askoren egoeragatik protesta egiteko.**

Halaxe da. Diputazioaren aurrean eskatu genuen alargunen pentsioak, gutxienez, lanbide arteko gutxieneko soldatarekin pareka daitezela. Kopuru hori 570 euro da, eta esan beharra dago orain momentuan emakume asko daudela hilean 493 euro baino jasotzen ez dituztenak.

**Pobreziaren barruan sartzen da diru sarrera hori.**

Eusko Jaurlaritzak dio, eta baita beste estamentu batzuek ere, hilean 507 euro baino gutxiago dituena pobrezian bizi dela. Eta, egoera horretan ditugu herri hau jasotzeko horrenbesteko lana egin duten emakume asko.

**Nagusienak dira, gainera, egoera txarrean daudenak.**

Eta horrek arduratzen gaitu gehien. Kontuan hartu lehen enpresek saritu egiten zutela ezkondu eta etxean geratzen zen emakumea. Zelako lana egin duten horrenbeste seme-alabadun familiak gobernatzen eta aurrera ateratzen! Eta, orain horrelako pentsioekin zigortzen ditugu. Badaude emakumeak berogailua jartzeko edo argia pizteko beldurrez egoten direnak.

**Jakinekoa da emakume askok diruari etekin handia ateratzeko duten gaitasuna. Ez da abilezia, beharra baizik.**

Kasu batzuetan bai. Askok jan, edan, jantzi eta bestelako gastu guztiei aurre egin behar izaten diete 493 eurorekin. Kopuru horren bikoitza emango nizkieke agintariei; seguru horrekin ere ez zirela moldatuko.

**Eta, zein da Diputazioak eman dizuen erantzuna?**

Nik dakidala, ez dute pentsioa igotzen beste batzuekin alderatuta berezitasunik egon ez dadin. Pentsio kopurua Madrildik erabakitzen dute, baina Nafarroan eta Araban, adibidez, alargunei guk eskatzen duguna eman diete. Hemen dirua egon badagoela esaten digute, baina ezin dutela bereizketarik egin.

**Eta hori da, hain zuzen ere, gehien amorrarazten zaituena.**

Hori kritikatzen dut nik, beste batzuendako berehala ematen dutela dirua, alegia. Realari, Euskalteli, Bruesari... Saskibaloi taldea igo zenean, adibidez, Diputazioak berehala eman zuen diru mordoa. Eta hori guztia ondo dago, baina beste lehentasun batzuk daude; lehen esandako moduan, herri honen alde horrenbesteko lana egin duten emakumeen egoera konpontzea, adibidez.

**Negua sasoi gogorra izaten da diruz justu dabilenarendako.**

Bai. Horrelakoetan, langile normalen moduan, pentsiodunek ere uztailean eta azaroan aparteko paga izaten dugu. Neguan, baina, berogailuen eta bestelakoen erabilerarekin etxeko gastuek gora egiten dute.

ESKAERA

**"Alargunen pentsioa, gutxienez, 570 euro izan dadila eskatzen dugu"**

KONPROMISOA

**"Negar egitearekin ez da ezer lortzen, borroka egin behar da, eta hori sumatzen dut faltan"**

KRITIKA

**"Realari, Euskalteli eta Bruesari dirua ematea ondo dago, baina beste behar batzuk beteta daudenean egin behar da hori"**

**Hilabete amaierara iristen ez direnak zelan konpontzen dira?**

Seme-alabek diruz laguntzen diete, baina haiek ere ahal duten neurrian egiten dute hori. Eta gero, nagusiak arduratzen dira ilobak zaintzeaz. Ez da formula txarra, baina guztiek ez dute aukera hori.

**Aurre-erretiratuok ere baduzue zeuon gerra.**

Bai, urteak daramatzagu geure interesen alde borrokan. Kontua da azken urteotan penalizazioak aldatzen joan direla, eta egun %6 da. Hau da, 60 urterekin erretiroa hartzen duenak 65 urtera arte bost urte ditu; bost bider sei, 30. Lagun horrek %30eko zigorra izango du bizi osorako. Lehenago, baina, penalizazioak %7koak edo %8koak ziren, eta guk eskatzen dugu penalizazioekin gelditu edo, gutxienez, penalizazioa guztiendako oraingo legediaren araberakoa izan dadila.

**Horrek esan gura du aurre-erretiratu batzuek %40ko penalizazioa daukatela.**

Hori da, 45 urte kotizatzen ibili eta gero 18 urte kotizatu ditueenaren egoeran daude asko, %60 kobratzen. Horretarako, Auzitegi Konstituzionalean demanda daukagu jarrita. Estatu mailako 10.000 lagun inguruk jarri dugu demanda hori. Politikari guztiek esaten digute arrazoia daukagula, baina ez dugu aldaketarik ikusten.

**Gainean daude hauteskundeak. Igartzen duzue hori?**

Igarriko dugu, bai. Hauteskunde garaian berehala etortzen dira politikari guztiak, gurekin berba egin gura dutela esatera, batzarrak egin gura dituztela. Eta guk gustura asko hartuko ditugu denak, baita Carlton hotelera joan behar badugu ere (barre). Baina hauteskundeen ostean gauzak, seguruenik, gutxi aldatuko dira, orain arte ez dira aldatu-eta.



zabalik

Gorka Etxabe

# Huts eta bi

Ez diot itxura onik hartzen bake prozesuari. Aukera dagoen bitartean itxaropenik ez dela galdu behar erakutsi digute txikitatik, baina nik, tamalez, bidean utzi dut itxaropen hori. PPk gauzak ondo egin zituen, Espainiaren interesen gainetik ezarri zituen alderdiaren interesak. Aldamenetara begiratu gabe, pedalei indarrez eraginez, bidean aurkitu zituen oztopoak gaindituz, eta horrexegatik guztiagatik Raxoirenek inbidia ematen didate. Gobernuan egon zirenean botere judiziala *okupatu* zuten eta ondo lotu gainera. Ederto egindako lan horren emaitzak jasotzen ari gara gaur. Behin eta berriro, eta adibideak hor daude: Jarrai-Haika-Segi auzia, Iñaki De Juanaren heriotza zigorra, Ibarretxe, Otegi, Barrena eta Petrikorenaren deklarazio hartzea, 18/98 auzia eta beste zenbait kasu. Era berean, ETA erakundeak ere ez dit batere konfiantzarik ematen. Abenduaren 30ean Gabon Zaharraren bezperan kaka zaharra eta, orain beste kide bat atxilotu dute Bartzelonan; ustez, Valentzian egingo den itsas estropada batera zihoan, hobe parte hartzera joan balitz, baina tamalez bere asmoak beste batzuk ziren. Bakearen aldeko jarrera sendoagoa falta zaio ETAri edo jarrera definitiboa. Horren guztiaren aurrean zer egin dezakegu? Egia esan, aspaldi ez dut manifestazio batean parte hartu. Gizarteak kalera irten behar duela esaten digute, bakea exijitu behar diegula agintariei... Ez dakit. Ez dirudi gauzak aldatuko direnik, eta hortaz, *gerra prozesuan* segituko dugu. Gustatuko litzaidake itxaropentsuago agertzea leiho honetara, baina egunerokoak zapuztu ditu nire esperantzak. Eta orain arte idatzi dudan guztiak zein erlazio du izenburuarekin? Egia esan, nire asmoa zen futbolaz berba egitea eta azken derbiaz jardutea, baina arlo horretan bai ez dudala batere itxaropenik. Badakizue zein den nire taldea. Realzalea naiz eta tamalez bigarren mailan ikusiko dut datorren urtean.

**"Gobernuan egon zirenean botere judiziala okupatu zuten eta ondo lotu gainera"**

**"Realzalea naiz. Tamalez bigarren mailan izango da datorren urtean"**

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

### ATHELICEKO JOKALARIEK BERDE KOLOREKO ZINTA DAROATE BESOAN

**Irakurle batek zera galdetu digu: "Athleticeko jokalariek berde koloreko zinta bat daroate besoan lotuta. Eta ez dute partidu batean bakarrik eroaten, guztietan baizik. Atentzioa eman dit horrek. Zergatik daroate?**

Erantzunaren bila Haritz Gallastegi kazetari elgetarrarengana jo dugu. *Berria* egunkariko eta Euskadi Irratiko Athleticeko berriemailea da Haritz Gallastegi. Haren esanetan, "dopin kontuengatik zigortuta dagoen Gurpegi taldekideari elkartasuna adieraztearren eta epaileen erabakiarekiko ezadostasuna agertzearren erabiltzen dute berde koloreko zinta".

### ARROPA MANKOMUNITATEAK JARRITAKO EDUKIONTZIRA BOTA ETA GERO ZER?

**Erabili behar ez duen arropa Mankomunitateak horretarako jarritako edukiontzietara botatzen duen irakurleetako batek honako zalantza agertu du: Zer egiten da arropa horrekin edo nora bideratzen da?**

Erantzuna jakiteko asmoz Mankomunitaeko Ingurumen Zerbitzura jo dugu. Han azaldu digutenez, Emaus-era bidaltzen dute edukiontzietan batutako arropa. Gero, Emaus bera da arropa kudeatzeaz arduratzen dena. Jasotako arropa berrerabiltzeko moduan baldin badago, bada, berrerabili egiten dute. Hala, zati bat beharra duten lekuetara bideratzen dute, espetxeetara esaterako; eta beste zati bat Emausek berak dituen bigarren eskuko arropa dendetan saltzen dute.

Berrerabili ezin den arroparen kasuan –oso zaharra dagoelako, kendu ezin diren zikinak dituelako...– birziklatzen saiatzen dira.

Mankomunitatetik argitu dutenez, astean behin batzen dute edukiontzietako arropa –beharraren arabera gehiagotan ere izan daiteke– eta Emausera ere, Donostiara, astean behin eroaten dute.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

### ARRASATEKO KULTURAGUNE BERRIA

**Irakurle batek noiz irekiko duten jakin gura du. Udalak datorren astean emango du horren guztiaren berri.**

Asteon, hain justu, bidali du oharra kulturagune berriaren gainean. Martitzenean egingo dute gunearen aurkezpena eta hantxe esango dute noiz egingo duten inaugurazio ofiziala eta zerbitzuak noiz zabalduko dituzten ere bai.

marrazkiz

Unai Busturia



blog

## Pierre abadearen inguruko faltsukeria

**Eneko Bidegain**
www.berria.info/blogak/eneko/

Frantziako klase politiko guztiak erakutsi du bere atsekabea, Pierre Abadearen herioaren berri ukan ondoan. Denek goratu dute behartsuenen alde lan handia egin duen apaiza. Denek goratu dute, baina agintean dagoen klase politikoak bazterketa soziala hedatzen duten politikak daramatzanean, omenaldi horiek faltsukeriatik badute. Pierre Abadea egiazki omentzea gizonak eta emazteak prekarietatera edo karrikan bizitzera eramanen ez dituen politika ekonomiko eta sozialak bultzatzea litzateke. Etxebizitza sozialak eraikitzen ez dituen hiri batek ahalke izan behar luke Pierre Abadea goraipatzean. Langileak hilabetean 600 euroko soldatarekin ordaintzen dituzten enpresek, eta hori ahalbidetzen duten politikak egiten dituztenek, ez dute harro izaterik, Pierre Abadea txalotzean.

## 'Noiz' ote gauden...

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
www.eibar.org/blogak/amatino

Eta orain zer? Galdetzen du orok. Baina, erantzuteko, aurrenik jakin behar da non gauden. Nekez asmatuko dugu aurrerantzean zer egin ez badakigu orain non gauden edota "noiz" ote gauden..

plazara

Arrasateko udal gobernu taldearen jardunaren gainean idatzi du Itziar Lamarainek. Haren ezaugarri nagusia "egia erdiak" esatea dela dio. Horren harira, hiru adibide aipatzen ditu Lamarainek: aurrekontuak, Arrasate Iraunkorra eta Zabaletako merkataritzagunea. "Egia erdi" horiek eguneroko jarduna dira Arrasateko Udalean Itziar Lamarain PPko zinegotziaren esanetan.

Itziar Lamarain *

# Gezurrak esango ditugu, tralara...

Egia erdiak –gezur ez deitzearren– dira udal honetako gobernu taldearen ezaugarri nagusia.

Bukaeratik hasita: ez dago aurrekonturik, ez delako akordio politikorik egon. Gezurra.

Egungo udal gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuen zirriborroak aurrera egingo ez zuela ikusita –dakigun bezala, EAJren 5 botorekin eta EAren hirurekin–, eta Ogasun batzordeko presidenteak hala eskatuta, talde politikoetako ordezkarien arteko elkarrizketak proposatu ziren. Gutxieneko aurrekontu alternatiboak egiteko aukera aztertzea zen helburua; eta Udaleko teknikariek aukera egokiena zela iritzi zioten.

Talde guztioi egin ziguten dei. Guztiak agertu ziren, EAJ izan ezik, eta geroago PSE bereizi egin zen.

Batzarrak egin ziren, baita akordioak lortu ere; gaur egun oraindik indarrean daudenak.

Ezker Batuak jarri zuen lehenengo baldintza izan zen osoko bilkuran onartu behar zirela Udal Arautegi Organikoari aldaketa batzuk egitea. Are garrantzitsuagoa: onartu egin behar zela egun existitzen ez den Herritarren Parte-hartzerako Arautegia.

Aurrekontuekin zerikusirik ez badute ere, guztiok etorri ginen bat proposamenok aztertzeko eta hurrengo batzarrean emendakinak aurkezteko. Eztabaida egokiaren ostean onartu egin ziren. Une hartatik, aurkeztutako Arautegi Organikoa eta Herritarren Partehartzerako Arautegia bost talde politikoen proposamena ziren: 20 bototik 10.



MIKEL ARROIABE

Berriz diot: egon zen eta oraindik badago akordioa. Baina EAJk, proposamen serio eta landua aurkezteko aukera zegoela ikusita, oso planteamendu ezberdina duten taldeek –borondatea dagoenean guztia salba daitekeela erakutsi dute– hainbat batzarretan egindako lana deuseztatzera etorri da.

Eta EA izan da, behin eta berriz esan eta gero proposamen alternatibo horrek haren hiru botoak zituela, azkeneko batzarra bertan behera laga zuena, alkateak hala eskatuta. Hain zuzen, Bixente Etxebarria alderdi horretako kide eta Ogasun batzordeko burua da. Bada, alkateak eskatu zion urtarrilaren 22ra arte itxoiteko, gaia Gobernu batzordean lantzeko.

**"Ez dago aurrekonturik, ez delako akordio politikorik egon. Gezurra"**

**"Oraindik akordioa dago. Baina EAJ, proposamen serio eta landua aurkezteko aukera zegoela ikusita, lana deuseztatzera etorri da"**

Eta gaur arte. Aurrekontu alternatiboen proiektua ez da apurtu proiektua egiten ari ziren taldeen arteko desadostasunengatik. Ez du jarraitzen EAk batzarrak *sine die* atzeratzea erabaki zuelako. Eta beste behin geratu da EAJren "mantu babesle negargarriaren" azpian –EAJko bost zinegotziek apenas egiten dute berba elkarren artean–.

Beste egia erdi bat. Arrasate Iraunkorra. Proiektu txalogarria eta lagundu beharrekoa. Oinarrietako bat da herritarren parte-hartzea. Eta, hain justu, Herritarren Parte-hartzerako Arautegi proposamena gehitzea izan da EAJ eroan duena aurrekontuen negoziazioa leherraraztera.

Beste bat. Zabaleta. Mozio bat onartu zen Egitamu Orokorra aldatzeko –irtenbide bakarra momentu honetan–, merkataritzagunea eraikitzea atzeratzeko. Bada, inolako forma legalik ez duten moratoriak argudiatuz, teknikariek behin eta berriz esan dutenez, aldaketaren kontra bozkatu dute EAJk, EAk eta PSEk; hala, abenduaren 26ko osoko bilkuran emandako abstentzio-botoa aldatu egin dute, eta, horrenbestez, Zabaletako merkataritzagunearen proiektuak aurrera jarraitzen du.

Halakoak ia egunero gertatzen dira Arrasateko Udalean: Biteriko pergola, babestutako etxebizitzen zozketa...

Hainbeste egia erdi edo gezur erdi...

* Itziar Lamarain Arrasateko Udaleko PPko bozeramailea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Prestatuta gaude elurteei aurre egiteko?

| | |
|---|---|
| BAI | %33,3 |
| EZ | %66,6 |

**> EZ GAUDE GERTU**
Ezetz uste dut, nahiz eta geroago eta hobeto ibili. Azken urteotan, behintzat, elur-makina dezente ibili da bideak garbitzen. Hutsunea sumatzen dut, hala ere, herri eta auzo txikietan.
**Ainara**

**> ORAINDIK EZ**
Nire ustez, orokorrean, herritarrok ez gaude ondo prestatuta. Elur apurra egin eta berehala istripu mordoska izaten dira errepidean; jendeak ez ditugu hartzen hartu beharko genituzkeen neurriak. Elurrak lilluratzen gaitu eta askotan, autoa etxean utzi ahal izan arren ere, harekin ateratzen gara errepidera.
**Aitor**

**> NAHIKOTXO**
Nik uste dut gero eta prestatuago gaudela. Dena dela, errepidean beti izaten da zerbait. Otsailean beste elurte bat ei dator eta ikusiko dugu...
**Miren**

**DATORREN ASTEKOA: Sumatu duzu igoera mugikorraren fakturan?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

Batasunak hitzegiten du abenduaren 29an balego bezala, 30ean ezer gertatu izan ez bailitzan. Barajasko "istripua" ahaztu, ez ikusi egin, eta jarrai dezagun aurrera, bakeprozesuak eta konponbideak merezi dutelakoan.

PPk uste du, ordea, abenduaren 30eko erasoak arrazoia eman diola eta, funtsean, ezer ez dela zazpi urteotan aldatu, Itun Antiterrorista eta ondoko Alderdien Legea indarrean jarri zirenetik alegia. PPk 2000 urtean dirau.

Gainerako alderdi guztiek, berriz, Anoetako agirira itzuli dira, 2004ko azarora arte. Bakegintza eta normalizazio politikoa bai, baina, Kongresoaren ebazpenaren ildotik, gatazka kaleetatik atera, indarkeriarik ez eta eztabaida politikoa alderdien eskutan baino ez bada uzten.

Nork ote arrazoia? Batasunak izan dezake, ETAk behingoz armak utzi eta burujabetza politikoa ematen badio. PPk, berriz, ETAk 2000 urteko sarraskiari ekiten badio. Eta gainerako alderdiek, ondoko sei-zazpi hilabeteetan Barajasen z apuztutako aukerari emeki-emeki berriro heltzen baldin bazaio.

## Ziklokrosa bailaran?

**Lokatza Ziklismo Eskola**
www.goiena.net/blogak/lokatza/

Aurtengo ziklokross denboraldia amaitu da jadanik. Badirudi berpizten dijoala neguko kirol hau, eta galdera hau luzatzen dizuet: Gure herrian ikusiko ahal izango dugu ziklokross lasterketarik? (...)

(...) Txirrindularirik ez badago, ezin lasterketarik antolatu, eta probarik ezean txirrindulariak ezin dira lehiatu...

koplak

Eñaut Uriarte

## Denok koplak kantatzera

San Ageda eta San Blasak
orain direla ezagun
Kalera irtenda gozoak dauden
opilak dasta ditzagun.

Hemen bazaude asper eginda
ta ez bazoaz inora
Aprobetxaizu ta San Blasetan
hurbildu Abadiñora.

Euskal Herriko perietan hauxe
lehena eta sagraua
Esan didate egoten dela
han sekulako ganaua.

Santa Ageda bezpera dugu
Euskal Herriko eguna
Domekarako egin nahi neuke
hitzordua edo jarduna.

Ohiturak berreskura ditzagun
lehengo zaharren antzera
Kopla kantari irtenaz denen
barneko hotzak kentzera.

Kilometroak direla eta
erromerian ta kantuz
Aranzadiri laguntzen denok
eta gainera gozatuz.

# Udalari edo nori?

**Garbiñe Arana**
(Galizia kaleko bizilagun bat)
Arrasate

Iazko azaroaren 22an, Arrasateko Udalekoekin jarri nintzen harremanetan, hauei jakinarazteko Galizia kalean arratoiak zeudela. Ingurumen Saileko emakume batekin jarri ninduten hizketan eta berak ere onartu zidan Galizia kalea garbitasun falta duen kale bat dela.

Urte berria hasi dugu eta inor ez da arazoa konpontzera azaldu. Esan beharra daukat Galizia kaleko bizilagunok beste herritar guztiek bezala ordaintzen ditugula zergak. Udalak auzo batzuenganako daukan uztasuna salatu nahi dugu eta honi dei egiten diogu bertan beraien lana arduratsu bete dezaten eta auzo honetako arazoei aurre egin diezaieten. Bestalde, aipatzekoa da Gabonetan gure auzoko kale hau egunetan argi barik egon zela. Behin eta berriz jarri nintzen Udalarekin harremanetan, baina ez zidaten erantzun garbirik eman.

Auzo honetan pertsona edadetu ugari bizi da eta nazkatuta gaude egoera honekin, ez dago eskubiderik. Ekintzak nahi ditugu, ez hitzak.

# Elgetako Ozkarbik iritzi publikoari

**Etor Sarasua**
(Ozkarbi elkarteko Zuzendaritza Batzordearen izenean eta Batzar Orokorraren babesarekin)
Elgeta

Elgetako Ozkarbi elkarteak zera jakinarazi nahi du: Ozkarbi kultur jolas elkartea den aldetik, argi utzi nahi dugu joera politiko guztiak elkartetik kanpo geratzen direla bertako eguneroko jardunean.

Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorrean onartutako erabakiekin egiten du aurrera eta ez interes pertsonalak edo politikoak jarraituz, EAJ-EAk adierazi duen moduan.

Horrelako adierazpenak egitea oso larria da.

Elgetako EAJ-EAn Ozkarbi elkarteko bazkide bat baino gehiago daude eta aukera izan dute elkartearen batzar orokorretara etortzeko zein bertan hartu diren erabaki eta bozketetan parte hartzeko.

Elgetako EAJ-EAri exijitzen diogu egindako adierazpenak publikoki zuzendu ditzan.

Gaineratu nahi dugu Zuzendaritza Batzorde honek, orain arte moduan, Batzar Orokorrean hartutako erabakietan oinarrituko duela bere jarduna.

# Udal Liburutegiaren lekualdatzea

**Ander Esnaola** (MUko Ikaslea) > Arrasate

Tamalez, dagoeneko heldu zaigu azterketa garaia unibertsitateko ikasle guztioi. Pasa den larunbat goizean, hilaren 20an, Udal Liburutegira joan nintzen ikasteko helburuarekin eta sarrerako atean itsatsita zegoen oharrak harritu ninduen. Idatziak liburutegiaren lekualdaketa dela medio urtarrilaren 22tik aurrera itxita egongo dela adierazten zuen.

Aldez aurretik ere liburutegiaren ordutegia nahiko mugatua dela iruditzen zitzaidan, baina hala nola, orain artean, moldatu izan naiz. Kontuan hartuta Arrasaten unibertsitatea dagoela eta bertako ikasleok liburutegiko baliabideak erabiltzeko premia dugula, noren buruan sartzen da garai hauetan lekualdatze hau egitea?

Udal Liburutegia itxita dagoela jakinik eta MUko liburutegiak *overbooking*-a jasaten duela ikusirik, ez al litzateke hobe izango aldaketa hau atzeratzea?

Jadanik, dirudienez, ez dago atzera bueltarik, baina etorkizunean horrelako erabakiak hartu aurretik, burua erabili!

Nire iradokizuna liburutegi berriari, behintzat azterketa garaietan, ordutegi malguagoa ezartzea da, astegunetan nahiz asteburutan.

# Urtarrilaren 13an Bilboko manifestazioan izan zirenei

**Josu Uribetxebarria Bolinaga**
(Arrasateko Euskal Preso politikoa)
Arasate

Ziur nago jende asko borondate onarekin joango zela. Pertsona horiei esango nieke gatazka honek bi alde dituela. Eta alde bati bakarrik eskatzea indarkeria uztea ez dela zilegia, beste aldeak ere indarkeria erabiltzen duenean.

Azken finean indarkeria da: manifestatzeko eskubidea debekatzea, alderdi politikoak legez kanporatzea, adierazpen askatasuna galarazi eta zigortzea, batzarrak debekatzea, euskal herritar asko Euskal Herriaren alde egiteagatik auzipetu eta kartzelaratzea, euskarari trabak eta mugak jartzea, egunkariak ixtea, ikurrina oraindik debekatzea, presoentzako bizitza osorako zigorra jartzea, Iñaki de Juanari egiten diotena... eta abar. Horri dagokionez, oso mingarria dena, kutxazain automatiko bat erretzeagatik protestatzen duzuenean eta Iñakik jasotzen dituen torturengatik ez.

Baina ez da batak besteari harrika egiteko unea, ezta baztertzeko unea ere. Indarrak batuz denon artean gatazka hau bideratzekoa eta konpontzekoa baizik.

Horrexegatik, benetan esaten dizuet ezker abertzaleak ETAri exijituko diola armak betiko uztea, zuek Gobernu Espainolari indarkeria betiko uzteko exijitzen diozuenean eta manifestazioa egin duzuen bezala, ETAren kontra, Estatu Espainolak Euskal Herriaren kontra erabiltzen duen indarkeriaren aurka beste manifestazio bat egiten duzuenean. Ez ahaztu, gatazka hau Estatu Espainolak Euskal Herriari hitza eta bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea ukatzen dizkiolako datorrela.

Orduan, batera egongo gara eta hainbeste sufrimendu sortu duen gatazkak konpontzeko urrats handia emanda izango luke. Orduan, egia bihurtuko da askotan entzuten dena: denek eman dezagun apur bat, batzuk ez dezaten dena eman behar.

Ni ere bakearen eta elkarrizketaren alde.

# On Joxe Berezibarren oroimenez

**Ibon Aperribai** (apaiza)
Arrasate

Hil berria den On Joxeri buruz (guretzat *Montxon abadea*, bere aita Montxon baserrikoa zelako) honako aspektuak azpimarratu nahiko nituzke:

Pertsona bezala, pertsona on bat izateko baldintzak zituen. Besteak errespetatzen zekien. Horregatik bera ere onartua eta errespetatua zen. Besteei laguntzeko eta mesedeak egiteko beti zegoen prest eta berbako gizona zen, emandako hitza betetzen zekiena. Berarekin harreman sakona eduki dugunok ez genuen inoiz gaizki esaka entzun. Oso sakrifikatua zen. Esker onekoa. Leiala batez ere adiskideekin, adiskideen adiskidea. Umila, apala, bai bizitzan bai heriotzan. Hitz gutxitan esateko: gizon ona.

Apaiz bezala, berriz, fede handikoa zen. Hortaz, ederki bete zuen Gasteizko Seminario ospetsuan ikasitakoa, goiburua: "Beti apaiz, apaiz bakarrik, gauza guztietan". Karisma berezi bat zeukan.

Gaixoekiko, berriz, dohain eta izaera samurra zeukan. Garbi ikusi zen bezala, Gasteizko Ospitalean kaperau egon zenean lehenik; Uribarrin gero, eta batez ere, Santa Agedako gaixo etxean bizi izan zenean. Garai haietan, Santa Agedako gaixo kopurua orain baino hiru aldiz handiagoa zen. Bertan egindako egonaldian, milaka bisita-ikustaldi egin zituen gaixoei aholkuak eta animuak emanez, bai egunez bai gauez, baita asteburuetan ere. Profesio denetan daude pertsona aipagarriak, baita apaizgintzan ere, eta On Joxe pertsona miresgarria izan zen.

Eskerrik asko, On Joxe, egin duzun lan guztiagatik eta bereziki gaixoen alde egindakoagatik.

Agur. Gero arte.

# Etsipengarria

**Inazio Arregi**
(Goienako zuzendari nagusia eta Iraunkortasun Planean jardun duenetako bat)
Debagoiena

Etsipena da atzo GOITBko albistegia ikusten sentitu nuena. Ez dut gogorregia izan nahi eta gainera ez dagokit. Seguru bateon batek belarritik tira egingo lidakeela pentsatzen dudana esango banu, dudan kargua dela eta, askotan mutu izan beharra daukat eta.

Pentsatzen dudana esan ordez, sentitzen dudanaz idatziko dut. Arrasateko Iraunkortasun Plana lantzeko talde batera deitu gintuzten Udaletik: Unibertsitateko errektore, enpresetako zuzendari, dendari elkarte, ekologista, sindikatu, alderdi politiko… Arrasateko eragile guztien ordezkariak.

Gure ilusioa, orduak eta gogoa jarri genituen egitasmo honetan. Gaur, guztia etenda geratu da alderdi politikoen (berriro) adostasun faltagatik. Dirudienez alderdi politikoen eskubide esklusiboa da adostasunak ez lortzea. Hemen beste guztiok daukagu eguneroko bizitzan batekin edo bestearekin paktatu beharra; udal ordezkariek? Hemen akordioak ez lortzearen ondorioak oso larriak izaten dira enpresa munduan; udal ordezkarienean? Hemen, guztiok egin behar izaten ditugu gure etxeko lanak denboraz, eta ahal egin guztiak egiten ditugu gauzak hobetzeko asmoarekin; udal ordezkariek? Hemen, errespetuz jokatzen dugu bezero eta hornitzaileekin; alderdi politikoek?

Eta ez dira gorritzen hiritarrei orduak eta lan egunak kendu ondoren, udalbatzan bildu, eta aurrez egin beharreko etxeko lanak ez dituztelako egin, inolako akordiorik gabe mahaitik altxatzen direnean.

Sentitzen dudana esango dut berriz: etsipena, adarra jo diguten sentipena, eta mina.

Pentsatzen dudanaz ez dut idatziko.

# Quebracho jaia Arrasaten

**Gorka Morras**
Arrasate

Azken egun hauetan gazte asko harrituta utzi duen kartel batek jantzi ditu Arrasateko pareta grisak. Quebracho jaia antolatu omen dute Arrasateko gaztetxean. Baina zer demontre da Quebracho?

Quebracho Argentinako talde iraultzaile bat da, aldaketa sozial baten alde duintasun osoz borrokatzen duena, eta Euskal Herria bihotz-bihotzez maite eta errespetatzen duten burkidez osatua dagoena.

Baina, argentinarrak badira, nolatan antolatu da jaialdi bat Arrasaten?

Alde batetik, duintasunarengatik borrokatzen duen talde hau Arrasaten ezagutarazi nahi dugulako, asko baitugu beraiengandik ikasteko, eta, bestetik, eta batez ere, Quebrachoko bi kide Euskal Herrira gonbidatu nahi ditugulako, beraien poltsikotik ordaintzea ezinezkoa den dirua bildu nahi dugulako.

Elkartasuna herrien arteko maitasuna delako, otsailaren 9an zatoz Arrasateko gaztetxera.

Asko ikasi eta oso ondo pasako dugu!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**



ANTZERKIA

## "UNA VISITA INESPERADA"

Agatha Christie-ren misterio-komedia

Txalo Teatroa

**Non:**
Arrasateko Amaia Antzokian.

**Noiz:**
Otsailaren 4an, domekan, 19:30ean.

Sarrera salmenta
kutxa
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
943 00 12 00
www.kutxa.net

Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón

# Betiko janaria beste modu batera

## eta erraz prestatzeko



Ehun errezeta inguru biltzen dituen sukaldeko eskuliburu honen egilea Karmen Sobejano da.
Liburu praktikoa da, errezetak errazak eta merkeak dira, sukaldean egunero erabiltzeko egokiak.
Liburuak askotariko menuak prestatzeko aukera ematen du, eta sukaldean jarduteko proposamen ugari egiten.
Hasieran, entsaladak eta lehenengo plater hotzak eta beroak daude.
Gero, bigarren platerak, lau taldetan sailkatuta: barazkiak, pastak eta irinak, aboreak eta proteinak.
Eta, amaitzeko, azkenburuko goxoen aukera.




Otsailak 3, larunbata
kartilla + 1. kupoia

berria rekin




liburua
**DOAN!**



## Nola lortu liburua?

1.- **ZURE KARTILLA ESKURATU**
Otsailaren 3an (larunbata), BERRIArekin.

2.- **KUPOIAK ITSATSI**
Otsailaren 3tik aurrera, egunero kupoiak argitaratuko dira BERRIAn, guztira 14.

3.- **KARTILLA OSATZEAN, KIOSKORA ERAMAN**
eta DOAN jasoko duzu liburua.

**HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA:**
Nahikoa izango duzue 943 30 43 45 telefonora deitzea edo **www.berria.info**n izena ematea, eta bidalketa kostuen truke (1,95 euro) etxean jasoko duzue liburua.

Babeslea
Gipuzkoako Foru Aldundia

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)**
Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69
**TRIPALDI ENRIKE**
Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

## DIETISTAK
**ALBERDI MIREIA**
Bergara /Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58
**RAQUEL PEREIRA GALDOS (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Nafarroa etorbidea 3 / 943 79 44 22

## ENTZUMEN ZENTROAK
**GAES**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
**ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON**
Arrasate/ Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**BASTERRETXEA MARIA**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64
**IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA**
Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31
**NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Belorrieta 5 / 943 08 21 89
**ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA**
Bergara / Telleria 6 bis, 11 bulegoa Labegaraieta ind. / 943 76 53 35
**UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.**
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**ABUIN JOSE LUIS**
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian
943 77 01 33 / 943 77 16 77
**ARANTZABAL SAIOA**
Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**CASANELLAS JABIER**
Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68
**ITZIAR OPTIKA**
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88
**ITZIAR UGARTE OPTIKA**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95
**PORTALOI OPTIKA**
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77
**PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA**
Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55
**ZUBILLAGA ZABALA MARISA**
Bergara / Psikologo klinikoa / 943 76 30 76

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
**Antzuola** > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39




**> ARRASATE**
Zirkulazio aldaketa dela-eta, kexuak Biztanleen Arreta Zerbitzuan **> 18**



**> BERGARA**
Etxe hutsak Biziguneren bitartez alokatzeko kanpaina **> 24**




**> ARETXABALETA**
Abiadura Handiko Trenaren kontrako taldea sortu da herrian **> 35**



**> ESKORIATZA**
Herriko zaharren egoitza berritzea aztertzen dabil patronatua **> 35**

**BERGARA** > UMORE-ONA ELKARTEA

# Laster inauguratuko dute Bergarako pianodun elkarte bakarra: Umore-Ona

**HANDITU**
Obra egiten ibili dira azken hilabeteotan, elkartea txiki geratu zaielako

**INAUGURAZIOA**
Otsailean inauguratuko dute; lehengo otxoteak saioa egingo du

**103 BAZKIDE**
Elkarteak dituen 103 bazkideetatik lau dira emakumeak



**LEHEN ETA ORAIN** Pianoaren atzean, ezkerretik: Garitano, Berasategi, Rodriguez eta Aramendi (oraingo zuzendaritza); aurrean: Erdabide, Muxika, Berroia, Madinabeitia eta Ibañez. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gure ibarrean tradizio handia dago elkarte gastronomikoen bueltan. Gizonezkoak hasi ziren halakoak sortu eta erabiltzen. Eta, kostata bada ere, denborarekin, emakumeek ere lortu dute elkarteetara sartzeko eskubidea.

Gaur egun, topaleku garrantzitsu dira, lagunen topaleku, azken batean.

**1948KO IRAILEAN, UMORE ONA**

Bergaran bada Umore-Ona izeneko elkarte gastronomiko bat, Sociedad Artistico-Musical Umore Ona, zehatzago esanda. Hainbat herritarren abesteko zaletasunak bultzatuta sortu zen, 1948an. Bergaran sortu zen laugarrena da. "Bazen aurretik talde handi bat Grupo Coral Umore-Ona izenekoa; kantu entseguak egiten zituen lehenengotan Seminarioko gela batean eta geroago, urtetan, Bar Paldayn, Artekalean. Ezin falta bihotzeko oroitzapen bat hango familiari, Bentura eta Florentino, Pilar eta anai-arreba guztiei", halaxe hasi dute kontakizuna Umore-Ona elkartearen sorreran izan ziren bost lagunek: Jesus Berroiak, Jesus Ibañezek, Inazio Madinabeitiak, Roman Muxikak eta Jose Erdabidek, edo, haiek dioten moduan, *Los últimos de Filipinas* taldeak, haiek dira-eta sorreran egon ziren 40 lagunetatik geratzen diren azkenak. "Jende guztia ez zen kantorea, baina bai ugaritxo bat. Elkartea sortzeko arrazoi bat eman behar zen, eta abesbatzarena eman genuen guk. Horregatik ipini genion izena Umore-Ona, Sociedad Artistico-Musical. Abesbatzakoak ginen 15 bat lagun. Baina guztira 40 bat izango ginen hasieran. Errentan hartu genuen lokala, dirurik ez genuen-eta; obra ere guk geuk egin genuen". Lokala gero erosi zuten, 1979an, "eta eskriturak sinatzera joan ginenean, diru barik joan arren, lokalaren ugazabak notarioari esan zion ez zegoela arazorik, gurekin konfiantza osoa zuela".

**AURRENEKO DANBORRADA**

Hala sortu zuten Umore Ona. Eta gaur egunera arte bizirik irautea lortu dute. Are gehiago, gaur egun berezia da elkarte hori, pianoa dauka-eta. Bergaran elkarte bakarra da. Eta seguru ez direla askorik egongo Euskal Herrian.

Gainera, elkarte bat baino gehiago izan da Bergarako historian; herriaren bizitza kulturala bultzatzeko orduan garrantzi handia izan du-eta. "Hamabost urte inguruan antolatu eta aurrera atera genuen danborrada. Lehenengoa geuk antolatu genuen, 1950ean, karroza eta eregina eta guzti. Kondearen gurdia erabili genuen karroza egiteko".

Bestalde, otxote ezaguna ere izan zuten Umore-Ona elkartean, Bergara izena leku askotara eraman zuena.




**FUNDATZAILEAK** Umore-Ona elkartearen sorrera bultzatu zuen taldea, 1947an, San Martin plazan. UMORE-ONA

**DATUA**

# 60

Barrenkalean dagoen Umore-Ona elkartea 1948an sortu zuten. Beraz, datorren urtean 60 urte beteko ditu. Bergaran sortu zuten laugarren elkartea izan zen. Haren aurrekoak dira: San Migelpe, Pikupe eta Sagarpe.

(24 orrialdean jarraitzen du)

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 3 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |
| Domeka, 4 | Irizar | Erguin 15 | 943 79 12 39 |
| Astelehena, 5 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Martitzena, 6 | Español | Araba etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 7 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Eguena, 8 | Etxeberria | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Egubakoitza, 9 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |

### BERGARA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 3 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 4 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 5 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 6 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 7 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 8 | Urrutikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 9 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |

### OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 3 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 4 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 5 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 6 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 7 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 8 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 9 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

### ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 3 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 4 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 5 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 6 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 7 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 8 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 9 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

### OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia) ........ 943 46 11 11
DYA (Antzuola) ........ 943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi) ........ 943 76 55 76
Suhiltzaileak ........ 943 78 28 00
Ertzaintza ........ 943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala ........ 943 03 53 00
- Antzuola ........ 943 76 62 23
- Aramaio ........ 945 44 53 40
- Aretxabaleta ........ 943 71 19 59
- Bergara ........ 943 03 54 00
- Elgeta ........ 943 03 54 00
- Eskoriatza ........ 943 71 44 52
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola ........ 943 76 62 46
- Arrasate ........ 943 79 14 39
- Aretxabaleta ........ 943 71 18 63
- Bergara ........ 943 77 91 06
- Eskoriatza ........ 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 04 11

### GARRAIOAK

PESA ........ 902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate ........ 943 79 12 22
- Aramaio ........ 945 44 50 33
- Aretxabaleta ........ 943 77 12 64
- Bergara ........ 943 79 12 22
- Eskoriatza ........ 943 71 40 59
- Oñati ........ 943 78 03 65

### DEBAGOIENA

Mankomunitatea ........ 943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga) ........ 943 78 15 12
Nekazaritza ganbera ........ 943 76 10 15
Zerga Bulegoa ........ 943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate ........ 943 77 11 43
- Bergara ........ 943 76 44 42
- Oñati ........ 943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio ........ 945 44 53 35
- Arrasate ........ 943 77 16 77
- Aretxabaleta ........ 943 71 26 28
- Bergara ........ 943 76 56 41
- Elgeta ........ 943 76 82 84
- Eskoriatza ........ 943 71 53 28
- Oñati ........ 943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola ........ 943 76 60 65
- Aramaio ........ 945 44 53 74
- Arrasate ........ 943 77 01 05
- Aretxabaleta ........ 943 71 10 27
- Bergara ........ 943 77 91 58
- Eskoriatza ........ 943 71 46 88
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 03 53

Udalak
- Antzuola ........ 943 76 62 46
- Aramaio ........ 945 44 50 16
- Arrasate ........ 943 79 09 00
- Aretxabaleta ........ 943 71 18 62
- Bergara ........ 943 77 91 00
- Elgeta ........ 943 76 80 22
- Eskoriatza ........ 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga ........ 943 71 47 46
- Oñati ........ 943 78 04 11

## URBANOAK

### ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

### BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

### ARAMAIOKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 3**
Bariku arratsaldean hasitako hobetzeko joerak segituko du zapatuan. Aurpegi argiagoa erakutsiko digu eguraldiak, baita epelagoa ere.



**Domeka, 4**
Zapatuko eguraldiaren antzekoa egingo du. Haizeak ekialdetik joko du eta horrek eguraldia epelduko du eguerdi partean. Goizean fresko.

## EUSKAL HERRIAN

Azken egunotako grazia bako eguraldia alaitu egingo zaigu. Oro har, eta ekialdeko haizeren eraginez, epeldu egingo du eta eguzkia ere ikusiko dugu. Hori bai, goizeko lehen orduetan oraindik ere tenperatura baxuak izango ditugu eta maximo eta minimoak berdin samarrak izango dira.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Martitzena, 23 — **2 ºC**

**MAXIMOA** Egubakoitza, 19 — **20 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **86,7L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 24 | 2 ºC | 1 ºC | 44,1 l/m² |
| Eguena, 25 | 2 ºC | 0 ºC | 12,2 l/m² |
| Egubakoitza, 26 | 2 ºC | 0 ºC | - l/m² |
| Zapatua, 27 | 4 ºC | -5 ºC | - l/m² |
| Domeka, 28 | 7 ºC | -2 ºC | - l/m² |
| Astelehena, 29 | 9 ºC | -2 ºC | - l/m² |
| Martitzena, 30 | 8 ºC | -1 ºC | 12,3 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA OTSAILEAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 10 | 17 | 24 | 2 |

# oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Informatika ikastaroa hasiko da HHIn**
Helduen eskolak oinarrizko informatika ikastaroa emango du otsailetik ekainera bitartean. Eskolak martitzen eta eguenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko eta informazio gehiago izateko egoitzara jo –Barrenkalea 33, 2. solairua–, edo 943 76 44 52 zenbakira deitu.

BERGARA
**> 1983an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
Martxoaren 24an egingo dute bazkaria, Zabala jatetxean. Izena emateko jo Euskadiko Kutxara otsailaren 16a baino lehen. Bazkari egunerako 11:30ean egin dute hitzordua, San Martin plazan.

BERGARA
**> Zabalik Udal Euskaltegiko matrikulazio epea**
Udal Euskaltegian zabalik du dagoeneko ikasturtearen bigarren zatirako matrikulazio epea. Informazio gehiago 943 76 44 53 telefono zenbakian.

DEBAGOIENA
**> Zikloturista taldean izena emateko epea**
Otsailaren 13ra arte dago zabalik Debagoieneko Zikloturista Taldean izena emateko epea. Interesatuek dei dezakete 669 08 21 10 telefono zenbakira 20:00etatik 22:00etara.

DEBAGOIENA
**> Presoen senideei laguntzeko errifak**
Bergara, Antzuola eta Elgetako presoak bisitatzeko senideek egin behar dituzten bidaietan laguntzeko errifa abiarazi dute. Herriotako hainbat tabernatan eskura daitezke, 3 euroren truke. Txartel bakar horrekin hilero hainbat sari eskuratzeko aukera dago: astelehenetik eguenera 30 euro eta barikuetan, 60 euro, ONCEko azkeneko hiru zenbakiekin bat eginez gero. Gainera, otsailaren 23an 300 euroko sari berezia egongo da.

ARETXABALETA
**> Flamenko eta kaxoi jotze ikastaroa**
Otsailaren 7an hasi eta eguaztenero izango dira eskolak, Kurtzebarri eskolan, martxo bukaerara arte. Hastapen taldea –18:30etik 19:30era– eta aurreratua –19:30etik 20:30era– egongo dira. Izenemate epea zabalik dago. Horretarako, jo Aretxabaletako Azkena tabernara edo Arrasateko Aker Tatoo dendara. Plaza mugatuak dira.

ELGETA
**> AHTren gainean eztabaidatzeko deia**
AHTren proiektuaren gainean eztabaidatzeko eta jarrera guztiak batzeko hitzordua egin dute. Gaur, egubakoitza, izango da, 20:30ean, udaletxean.

ELGETA
**> Santa Agedako entsegua, gaur, barikua**
Kiroldegiko gimnasioan batuko dira, 20:30ean. Gaztetxoak, guraso elkartea, abesbatza eta nahi duten herritarrak batuko dira Santa Agedako entsegurako.

OÑATI
**> Federatu txartelak jasotzeko daude Arrolan**
Arrolako ordezkariek federatuei jakinarazi nahi diete federatu txartelak heldu direla. Hala, martitzen eta eguenetan pasa daitezke egoitzatik, 19:00etatik 20:00etara, txartelok eskuratzeko.

ARRASATE
**>Ahotsak plataformaren aurkezpena**
Emakume Txokotik jakinarazi dutenez, Ahotsak plataformako ordezkarien hitzaldia otsailaren 7an, datorren eguaztenean, izango da, 18:30ean, osoko bilkuren aretoan.

ARRASATE
**> Taxi lizentzia eskualdatzeko prozedura**
Taxi lizentzia bat eskualdatu gura du Udalak. Oinarriak daude Biztanleen Arreta Zerbitzuan edo udaletxean. Eskaintzak otsailaren 7a baino lehen aurkeztu behar dira.

ARANTZAZU
**> Baketik Fundazioaren ikastaroa, datorren astean**
Gatazkak etikoki lantzen ikasteko eta adiskidetasunezko bizikidetza bat lortzen laguntzeko ikastaroa egingo du Baketik Fundazioak. Hilaren 5etik 7ra arte izango da eta bi txanda egongo dira: 09:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 19:30era. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 943 25 10 05 zenbakira.

ARRASATE
**> Haurrak liburutegi berriaren lekualdatzean inplikatu nahi dituzte liburutegiko kideek**
Hori horrela, giza katea osatuta eroango dituzte liburuak Monterrondik kultura etxe berrira. Hilaren 7an izango da hori, 11:00etan. Herriko ikastetxe guztietako LHko lehen mailako ikasleak gonbidatu dituzte. Bestalde, ibilbidean dabiltzan herritarrek parte hartzeko aukera ere izango dute.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Badaukazu San Blas eguna ospatzeko ohiturarik?



**Mirari Lamariano**
Langilea
Antzuola

Bai, joaten gara urtero. Ermita dugu hemen eta beti gustatu izan zaigu egun hori. Umeekin joaten gara eta guk eramaten dugu ogi opila bedeinkatzera eta San Blas opila ere bai.



**Yolanda Lizarralde**
Langilea
Antzuola

Bai, San Blas eguna ospatzeko ohitura gorde egin dugu, batez ere, umeak txikiak direlako. Ogia eramaten dugu bedeinkatzera. Gustuko dugu, salda eta txorizoa egoten da… Ederki ibiltzen gara.



**Elene Baztarrika**
Ikaslea
Antzuola

Joaten naiz ermitara, meza entzuten dut eta gero, San Blasa jaten dut. Bueno, batzuetan, mezetan nagoela, mokadu bat edo beste jaten dut. Ogi opila eramaten dut bedeinkatzera.



**Jose Mari Kortabarria**
Erretiratua
Antzuola

Nik ez daukat joateko ohiturarik. Umetan joanda nago, baina orain ez. Opila, berriz, ekartzen badute jaten dut, bai. Eta normalean bedeinkatzera joaten dira eta gero opila ekartzen dute.



**Joseba Garitano**
Langilea
Antzuola

Lehenago joaten nintzen, mutikotan, baina orain ez. Jaten dut, amak egiten duelako. San Blas opila egiten du. Ibarreko atarira joaten bazara, ikusiko duzu zelako anis usaina dagoen!

txaloak eta txistuak



PIRRITX ETA PORROTX

## Pirritx eta Porrotx, sarreren salmenta

Bergarako guraso batzuk haserre daude Elkar dendakoekin. Kultura Sailak iragarri zuen sarrerak astelehenean salgai jarriko zituztela, baina Elkarrekoek aukera eman zuten sarrerak gordetzeko, eta berehala agortu ziren. Azkenean, pailazoek bi emanaldi egingo dituzte.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 108

108 milioi euro. Edo zehatzago izanda, 108.647.526 euro inbertituko du Gipuzkoako Diputazioak Arrasaten. Horietatik 58.660.487 euro izango dira 2007rako inbertsio eta ekarpenak. Hala onartu zuen Aldundiak iazko abenduaren 22an egin zuen batzarrean.

usteak uste

Aintzane Irizar

## Autobusean gora eta behera

Horrelaxe ibiltzen dira batzuk gurean: autobusean gora eta behera. Udaletako eta Diputazioko arduradunak oso pozik daude orain dela hilabete batzuk jarri duten autobus zerbitzuarekin. Linea gehiago eta maiztasun handiagoarekin jarri dituzte. Ez diote gezurrik eta horren lekuko naiz; gure etxe aurretik sarri-sarri pasatzen dira autobusak. Zumarragara edo Bergarara joan nahi dutenendako oso ondo dago. Baina, zer gertatzen da Oñatira joan nahi duenarekin? Edo alderantziz? Bada, eguna ondo antolatu behar du eta presa handi barik eta lasaitasunez hartu behar ditu gauzak. Azkenaldian askotan etorri behar izan dute nire etxekoek (oñatiarrak) Antzuolara. Bada, ondo entzun: ia ordubete egiten dute. Oñatin autobusa hartu, Udana igo, jaitsi, Deskarga igo, jaitsi eta azkenean, Antzuolan daude. Eta itzuleran, berdin. Sekulako mauka dugula sinistu arazi nahi digute, gainera. A!, eta goizpasa hori, gainera, 1,80 euro ordaindu behar. Noski, kilometro kopuruaren arabera ezarriko zuten prezioa. Gero entzun behar dugu automobila gutxiago eta garraio publikoa gehiago erabili behar dugula.

5 galdera...

# Eukene Gracia

Neurri oihal dendakoa
Bergara

**1. Zelakoak aurreikusten dira aurtengo Aratuste jaiak?**
Badirudi, guk dendan izan dugun enkargu kopuruagatik, aurreko urteetan baino jende gehiagok mozorrotu behar duela aurten. Gazte koadrila asko etorri dira, baita elkarrekin mozorrotu behar duten guraso eta seme-alaba ugari ere.

**2. Zuek zeuek zein lan egiten duzue bestela, urtean zehar?**
Gurea oihal saltokia da, eta batez ere janzkiak, berokiak, jakak, prakak, brusak eta halakoak egiten ditugu. Hainbat jostunek gurekin lan egiten dute, eta haiek arduratzen dira egiten dizkiguten enkarguez.

**3. Zer mozorro ikusiko ditugu aurten Bergaran? Zer lan egitea eskatu dizkizue aurten?**
Hainbat neskak *Micky Mouse* sagutxoaren mozorroa aukeratu dute; beste batzuek pottokiarena; *Grease* filma ere hartu dute inspirazio moduan, baita *Rebelde Way* telesaila ere; toreatzaileak, ijitoak, piratak, pailazoak, eskimalak, maitagarriak (hadak) eta beste ere izango dira. Ez dakidana da Bergaran aterako diren, edo beste herriren baten.

**4. Bezeroek aldez aurretik jakiten dute zer gura duten?**
Gehienek bai. Horretarako erakusleihoan oihal ugari jarrita daukzat eta denda barruan mozorroen gaineko aldizkari ugari ditugu bezeroek ikus ditzaten. Hala ere, gehienek badakite zer gura duten, eta askok Interneteko irudiak ekartzen dizkigute.

**5. Zeuk badaukazu aratusteetan mozorrotzeko ohiturarik?**
Bai, oso gustuko dut. Zoritxarrez aurten beste zeregin batzuk ditut eta ezingo naiz atera. Bestela, Aratusteez gain, lagunok batzuetan afaltzeko elkartu eta mozorrotu egiten gara. Mozorroak lotsa alde batera utzi eta dibertitzeko dira.



**ZERBITZUAK** > SANTA BARBARA

# Santa Barbara laster zabalduko dute

Eguraldiak oztopatzen ez badu, "otsaila bukatu aurretik" jolas parkea zabaltzea espero du Zerbitzu Sailak

**U.M.** > ARRASATE

Atzerapenarekin dabil Udala Santa Barbarako jolas-parke tematikoko obrekin. Hala azaldu dio Moises Altunak, Udaleko zerbitzuburuak, Arrasate Irratiari: "Abenduan hasi ginen lanekin eta ezin izan genuen bukatu Gabonen aurretik". Moises Altunak jakinarazitakoaren arabera, "orain momentu honetan ipinita daude adin nagusienendako gunea (6-12 urtekoendako) eta adin ertainekoa (3-8 urtekoendako). Azkena muntatzea falta da (6-36 hilabeteko umeendakoa), egun hauetan muntatzen ibili dira eta horren beharrezkoa dugun ura orain oztopo bihurtu da lanak bukatzeko. Lurrean gomak ipini behar dira eta horiek ezin dira ipini euria egiten badu".

**OTSAILA AMAITZEN DENERAKO**

Edozelan ere, Altunak aurreikusten du posible izango dela otsaila bukatu aurretik lanak bukatzea, "eguraldiak deskantsu txiki bat ematen badigu. Arrasatek izango duen parke bereziena izango da", gaineratu du zerbitzuburuak.

**EZ ERABILTZEKO ESKAERA**

Era berean, eskatu gura die herritarrei obrak bukatu arte jolas-parkea ez erabiltzeko: "Arriskurik ikusi gabe, jendeak parkea erabili egiten du. Oraindik ez dago ipinita lurreko goma, gunea itxita dago... Eskatuko nuke itxaroteko pixka bat eta obra bukatu artean ez sartzeko".

**PARKE HUTSAK DIRELA-ETA**

Bestalde, herriko parkeen gainean, hainbat herritarrek horrenbestetan kritikatu dituzten parke hutsak edo hotzak (Biteri, Seber Altube...) ere berbagai izan zituzten irratian. Halako parkeak eraikitzeko zergatia azaldu zuen Altunak: "Udalak erabakitzen duenean gune zehatzek zelakoak izan behar duten, kontuan hartzen duela aisialdiko guneak aisialdirako direla, baina baita ere, behar direla beste hainbat gune erdigunean egon beharrekoak beste zenbait gauza antolatzeko, urtean zehar antolatzen diren dozenaka ekitaldi antolatzeko". Adibide moduan ipini zituen jaiak (San Juanak, Santamasak...); gogorarazi zuen, baita ere, azoka txikia Laubiden egiten dela, zezen-plaza ere han ipintzen dutela, barrakak Maiatzaren Bata plazan... Eta horretarako traba bako lekuak behar dituztela, erdigunean, gainera.

> KULTURA ETXEA

### Datorren martitzenean, hilaren 6an, Arrasateko kultura gune berria aurkeztuko dute: Kulturate

Kulturate izena aukeratu du Udalak kultura etxearendako. Izen horren jatorria azaltzeko, Kulturateren irudi korporatiboaren gaineko azalpenak emateko eta oro har, Arrasateko kultura gune berria aurkezteko ekitaldia egingo dute datorren martitzenean. Hitzordua eguerdian egin dute, 12:00etan, Kulturateko areto nagusian (Azoka kaletik sartuta). Han izango dira, besteak beste, Inazio Lakuntza alkatea, Jon Garai Kultura Saileko teknikari-burua eta zerbitzuaren izena eta irudia landu dituen AZKko Asier Albistur ordezkaria. Martitzenean emango dute, baita ere, eraikinaren zaharberritzearen eta zerbitzuen eta filosofiaren azalpena eta jakinaraziko dute noiz hasiko diren zerbitzu berriak eta noiz inauguratuko duten.

> LIBURUTEGIA

### Herriko neska-mutikoak inplikatu gura dituzte liburutegiaren lekualdaketan, hilaren 7an

Udal Liburutegitik dei egin gura diete herriko eskolei datorren astean liburutegiko materialaren leku aldaketan parte har dezaten. "Otsailaren 7an, eguaztenean, goizeko hamaiketan liburu mordoa eramango dugu, giza katea eginda, Monterrondik kultura etxe berriko haur liburutegira".

Hain justu ere, deialdia egin diete ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako lehen mailako neska-mutikoei. Halaber, jakinarazi dute lan hori animatzeko eta alaitzeko Oihulari Klown taldeko lau pailazok ere parte hartuko dutela ekimenean.

Gainera, erdigune inguru horretan dabiltzan herritarrek ekimenean parte hartzeko aukera ere izango dute.




**ZERBITZUAK BAKARRIK** Astelehenean zabaldu zuten Garibai; zerbitzu publikoak bakarrik pasa daitezke hortik. IKER BARANDIARAN

**ZIRKULAZIOA** > ERDIGUNEAN ZIRKULAZIOA ALDATU DUTE

# Zirkulazio aldaketa dela eta, kexu dezente

Alkateak pazientzia eskatu du, baina, halaber, azpimarratu du asmoa dela ibilgailuak erdigunetik kentzen joatea, "beste hiri batzuetan moduan"

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Astelehenean sartu ziren indarrean erdiguneko zirkulazio arau berriak. Eta orain arte ez dute batere harrera onik izan. Besteak beste, Gipuzkoa etorbidean, ertzain etxearen parean ipini duten semaforoak eraginda ilara luzeak sortzen direla-eta kexatu dira asko. Biztanleen Arreta Zerbitzuan kexu dezente jaso dituzte, baita udaletxeko Zerbitzu Sailean ere.

**MAALAK NORANZKO BI**

Kontuak kontu, oraingoz, bere horretan segituko du egoerak. Inazio Lakuntza alkatearen esanetan, "lortu gura dugu Zerkaosteta, Biteri eta erdigunea, guztia oinezkoendako izatea. San Juan auzotik ere atera gura ditugu ibilgailuak eta San Juan eta Biteri lotu, oinezkoendako izateko. Beraz, horixe da mezu inportantea: erdigunetik autoak desagerrarazten joango gara, bestelako herri askotan moduan. Hala, ibilgailuak Nafarroa etorbidea, Otalora, Zarugalde eta saihesbidea erabili beharko dute".

Halaber, alkateak uste du sortu den nahaspila izango dela "jendeak ohitura hartu arte". Hala, ertzain etxearen parean sortzen diren auto ilarak direla-eta, jakinarazi du etorkizunean, Gelmako etxeen obrak bukatzen dituztenean, Maala kaleak (ertzain etxe ondokoak) bi noranzko izango dituela.

Gogorarazi du, baita ere, Zerkaosteta itxi egin behar izan dutela, obrengatik, eta horrek ere "desenrosotasunak eragiten dituela, baina bestela ezin dira obrak egin".

**MERKATARITZA** > BEHERAPEN AZOKA

# 11 saltokik bakarrik eman dute izena otsaileko merkealdi azokan parte hartzeko

Azoka horretan izena emateko epea bukatuta dago, "baina datorren astean norbait badator, hartuko dugu"

**U.M.** > ARRASATE

Ez zuen espero Arrasateko Udalak halako erantzunik herriko dendarien aldetik, otsailean egin gura duten merkealdi azoka delaeta: "Iaz maiatzean egin genuen dendarien artean galdeketa eta 20 bat gertu azaldu ziren halako azoka baten parte hartzeko; orain, berriz, erdiek kale egin digute", azaldu du azoka antolatzen dabilen Marga Garmendia Udaleko teknikariak.

Hori horrela, inguruko herrietara jo du Udalak, azokarako dendari bila. Oñati, Bergara eta Aretxabaletan dabiltza begira: "Bergaran, esaterako, batek erakutsi zuen interesa".

Edozelan ere, herrikoei begira, "datorren astean izena ematera badator norbait, hartuko dugu", gaineratu du.

**ZAPATA DENDARIK EZ**

Izena eman duten 11 dendarien artean gehienak jantzigintzarekin lotutakoak dira: "Adibidez, zapata denda bat bera ere ez da animatu. Badago saltoki bat edo bat etxerako osagarriak eramango dituena, baina gehienak dira jantzien gainekoak". Hala, bestelako saltokiak ere animatu gura ditu: "Ez da zertan izan denboraldiko beherapenak dituen saltokia; biltegian materiala badute, hura merkeago ipini eta bestelako dendek ere parte har dezakete azokan; elektrizitate denda batek, adibidez".

**HISTORIA** > UNION CERRAJERAREN URTEURRENA

# Zerrajeraren historia errepasatuko dute erakusketa baten bitartez, ekainean

Dagoeneko ehun argazkitik gora batu dituzte; baina argazki gehiago dituzten herritarrei dei egin gura diete utz ditzaten erakusketarako



**DENETARIKOAK** Orotariko argazkiak batu gura dituzte, lehengoak eta oraingoak; argazkian, torloju fabrika, 1950ean. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE
1906an zabaldu zituen ateak Union Cerrajera lantegiak Arrasaten. Eta ehungarren urteurren hori gogora ekartzeko, argazki erakusketa historikoa antolatzen dabiltza lantegia bera eta Udala. Bi komisario kontratatu dituzte antolatzeko, Ainara Elgoibar mungiarra eta Bartzelonan bizi den Manuela Chiapponi italiarra. Eta biei laguntzen eta, batez ere, datu historikoekin erakusketa aberasten dabil Josemari Velez de Mendizabal historialaria.

Ekainean egingo dute erakusketa, lantegiak 1906ko ekainean hasi zuen-eta jarduna. Kultura etxe berrian ipiniko dute. Dagoeneko ehun argazkitik gora batu dituztela azaldu du Elgoibarrek, eta erakusketan 80 ipini gura dituzte. Hala ere, "erakusketaren garrantzia kontuan hartuta eta proiektua ahalik eta gehien aberasteko, dei egin gura diegu Zerrajeraren gaineko argazkiak dituzten herritarrei argazki horiek erakusketarako utz diezazkiguten", gaineratu du. Erakusketan ipiniko dute argazkiei laguntzen ikus-entzunezko materiala. Esaterako, 40ko hamarkadako film bat dute.

Argazkiak ondo zaintzeko eta jabeari behar bezala bueltatzeko, Udala arduratuko da haiek batzeaz. Utzi gura dituenak udaletxera eraman behar ditu, Marga Garmendiaren izenean (943 25 20 70 edo *enplegu@arrasate-mondragon.net*).

**UDALA** > URTARRILEKO OSOKO BILKURA

# San Josepe harrobiari 2008ra arte lanean segitzeko aukera eman dio Udalak

Udalbatzarrak onartu zuen, baita ere, harrobia etorkizunean zertarako erabiliko duten erabakitzeko ideia lehiaketa antolatzea

**U.M.** > ARRASATE
San Josepe harrobiak 2008ko abenduaren 31ra arte lanean jardun ahal izango du. Udalbatzarrak astelehenekо osokoan onartu zuen, batetik, harrobiarekin beste hitzarmen bat sinatzea; laugarrena izango da. Horren arabera, harrobiak jarduerarekin segituko du 2008ko abendura arte. Ordurako, harrobikoek gertu utzi beharko dute inguru guztia, etorkizunean bestelako erabileraren bat eman diezaioten. Hitzarmena luzatzeko proposamena onartu zuten, EAJ, EA, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin. EBk eta Aralarrek kontra bozkatu zuten eta Talde Mistoa abstenitu egin zen. Bestetik, harrobiaren harira, udalbatzarrak onartu zuen, aho batez, hainbat herritarren proposamena: harrobiaren etorkizuna erabakitzeko ideia lehiaketa antolatzea. 18.000 euro inguru bideratuko dituzte horretarako.

**ARRASATE IRAUNKORRA ZALANTZAN**
Bestalde, Arrasate Iraunkorra egitasmoaren barruan, iraunkortasun plana eta ekintzen planaren onespena proposatu zuten astelehenekо batzarrean eta horrek eztabaida piztu zuen alderdi politikoen artean. Ezustekoa izan zen hori; izan ere, orain arte, kanpora begira, behintzat, Arrasate Iraunkorrean parte hartu duten erakunde, alderdi eta elkarteen artean adostasun itxura erakutsi dute.

Kontuak kontu, PPk, Talde Mistoak, eta Alderdi Sozialistak iragarri dute ez dutela plan horren alde bozkatuko. Diote edukiarekin ados egon arren, ez dutela argi iraunkortasunaren aldeko foro hori zela garatuko den; zein konpetentzia izango duen, estatutuak, jarduna… Hori guztia argitu arte, ez dute plan horren alde bozkatuko. Are gehiago, zenbait alderdik salaketa gogorragoak ere egin zituzten horren kontura.

**EGUAZTENEAN, AURKEZPENA**
Bestalde, Arrasate Iraunkorra egitasmoaren harira, eta Udalaren onespenik ez lortu arren, aurreikusitako moduan plana aurkezteko saioak egiten hasi dira. Oraingo astean, Arrasaten egin dute, eguaztenean. Foroan lanean ibili diren erakunde eta agenteei aurkeztu diete, berrets dezaten.

**DE JUANAREN ALDE**
Bukatzeko, Iñaki de Juanaren aldeko mozio bi eztabaidatu eta bat onartu egin zuen udalbatzarrak. EAJ, EA, EB eta Aralarrek aurkeztutakoa onartu zuten, besteak beste, presoaren eskubideendako errespetua eskatzen.

> ELKARTASUNA

### Argentinako Quebracho taldearen aldeko jaia

"Quebracho Argentinako talde iraultzaile bat da, aldaketa sozialaren alde duintasun osoz borrokatzen duena, eta Euskal Herria bihotz-bihotzez maite eta errespetatzen duten burkidez osatua dagoena". Hain zuzen ere, azken bi urteotan herriko sei gazte izan dira hura ezagutzen. Halaxe aurkeztu dute Arrasateko gaztetxekoek Quebracho jaia antolatzeko ideiaren jatorria.

Argentinako talde hori Arrasaten ezagutarazi gura du gaztetxeak, "asko dugulako haiengandik ikasteko". Hala, besteak beste, Quebrachoko bi kide ekarri gura dituzte. Eta horretarako dirua batu gura dute gazteek.

Quebracho jaia izango da datorren otsailaren 9an (egubakoitza); herritarrei parte hartzeko dei egin gura diete gaztetxekoek.

POLITIKARIEN IRITZIAK

**Ander Rodriguez**
EZKER BATUA

**"Onartu denarekin, harrobia ixteko epea luzatu egin da"**

Harrobiaren ustiapenak segituko du 2008ra arte. Bestalde, leherketa kopurua handitu egin da azken hilabeteotan Udalaren baimen barik, eta hemen ez da inolako espedienterik zabaldu. EBk gura duen akordio bakarra da bihar bertan jarduera eteten duena.

**Paco Gartzia**
PSE-EE

**"Behin eta berriro salatu dugu zalantzak ditugula"**

Zer erabaki behar duten, ze potestate duen… zalantzak ditugu. Bestalde, ez dugu iraunkortasunaren aldeko planaren kontra bozkatuko, baina bai "txiringitoen" kontra. Hasieratik txartxo landu da gai hori, atzamarrarekin egindako esleipena izan da.

**Inazio Lakuntza**
ALKATEA (EAJ)

**"Orain hiru hil ez genituen horrenbeste kritika espero"**

Arrasate Iraunkorrean egin den hausnarketa prozesua oso zabala da, 65 lagun ibili dira zazpi hilabetez. Ez genituen horrenbeste kritika espero. Harrobiari dagokionez, 2008ra arte AP1-eko lanek handik pasa behar dute. Biak batera bukatuko dira, beraz.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

**MUSIKA** > '25 HITS OF MONDRA UNDERGROUND SOUNDS' BILDUMA

# Herriko punk, oi! eta rock-and-roll taldeen bilduma egiten dabiltza

'25 Hits of Mondra Underground Sounds' izena du herriko 24 taldek osatutako bildumak

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Badira lauzpabost urte Des-Kontrol taldeko Aritz Unamuno herriko punk, oi! eta rock-and-roll taldeen bilduma egitea pentsatzen hasi zela. Halako baten, asmo hori errealitate bihurtzeko lanean hasi zen. Musika estilo horiek egiten dituzten gaur egungo eta iraganeko taldeengana jo, eta 24 taldez osatutako zerrenda bete dute. Talde bereko Oier Beitia eta Enboskadako Asier Sala ere ditu lagun zeregin horretan.

**GRABATZEKO ERRAZTASUNAK**

Iraganeko talde gehienek aurretik grabatutako kantuak eskainiko dituzte. Gaur egungo taldeak, berriz, egunotan dabiltza grabatzen. Ekimenaren bultzatzaileek erabaki dute talde gazteenei laguntza eskaintzea. Horretarako, Beitia eta Sala dabiltza entsegu lokalean hainbat talderen kantuak grabatzen laguntzen.

**MUSIKA LEGATUA UTZI**

Unamunok azaldutakoaren arabera, bildumaren helburua da herrian punkak, oi! eta rock-and-rollak utzi duenaren legatua jasotzea: "Inoiz ez ditugu batu estilo horietan herrian izan diren taldeak, eta bada ordua!".

Bestalde, Unamunok nabarmendu du lagun talde batek egindako ekimena dela eta zerrenda itxita dagoela: "Guk gustuko ditugun musika estiloak aukeratu ditugu, inor baztertzeko asmo barik. Gure helburua ez da herriko musika talde guztiak batzea".

Diskoaren azala eta diseinua Iker Aranburuzabalak egin du, eta CDa 8 eurotan jarriko dute salgai. 23 taldek sartu dituzte kantuak, bakoitzak bat, eta Des-Kontrolek bi: Decibelios-en *Vientos de libertad* eta *Makina lehertu arte* kantu berria.

### Taldeak

- Des-Kontrol
- Zakarrak
- Iskanbila
- RIP
- Arkada Social
- Enboskada
- Never Surrender
- Agressive Kombat
- The 5 Twisters
- Los Cretinos
- Kañeria 13
- Radio Wings
- The Jukebox
- Lost Souls
- Material Rechazado
- Shaggy D. & Troublemakers
- Lost Girls
- JFK
- Anti-Social
- Asier Sala
- Jodete
- Last Rebels
- Special Crew
- Ardi Galduak




**24 TALDE** *25 Hits of Mondra Underground Sounds* bilduma. IKER ARANBURUZABALA

**Arrasateko Euskalgintza**

**SMS LEHIAKETA**



Gaur egungo gazte asko SMS bidez komunikatzen dira. I.B.

## Ikasleei zuzendutako SMS lehiaketak oso harrera ona du DBH eta Batxilergoko ikasleen artean

**I.B.** > ARRASATE

Aspaldian Arrasateko Euskalgintzak hainbat lehiaketa antolatzen dihardu, herriko DBH eta Batxilergoko ikasleei zuzendutakoak. Berriena SMS lehiaketa da. Iaz azaroan hasi ziren horrekin eta hilero egiten dute. Euskalgintzako Motibazio lantaldeak asmatu zuen lehiaketa, kontuan hartuta gaur egungo gazteek harremanetan jartzeko gehien erabiltzen duten bidea dela, eta alor horretan ere euskararen erabileraren gainean eragiteko.

Euskalgintzako lagunek hutsuneak dituzten bost bat esaldi bidaltzen dituzte ikastetxeetara hilero, eta ikasleek bete behar izaten dituzte. Irabazleen artean euskal musika talderen baten CDa zozkatzen dute.

Bestalde, Oñatiko, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Bergarako ikasleek *Dakixenak Indaixela* aldizkaria jasotzen dute hilero. Lau herri horietako euskara elkarteek egiten dute aldizkaria, eta DBH eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta dago hori ere. Aldizkariaren edukietako bat da euskalkiaren gaineko lehiaketa, eta arrakasta handia du. Irabazleen artean, euskal musika talderen baten CDa zozkatzen dute hilero.

**JAIAK** > GESALIBARKO JAIAK

# Auzoko jaietako bertso afariak 25. urteurrena beteko du

Gaurtik domekara bitartean Gesalibarko jaiak ospatuko dituzte; bertsoak, erromeria eta beste izango dira.

**I.B.** > ARRASATE

Gaur (egubakoitza) hasi eta domekara bitartean Gesalibar auzoan Santa Ageda jaiak ospatuko dituzte. Asteburuko lehenengo ekitaldia Jentiola elkartean egingo duten bertso afaria izango da. Sebastian Lizaso eta Sustrai Kolina izango dira han, eta Txinparta musika taldeak alaituko du. Gainera, aurtengoa afari hori egiten duten 25. aldia da, baina urtero etorri ohi den Andoni Egañak kale egingo du.

**JUANITO MAORTUARI OMENALDIA**

Zapatuan umeendako jolas eta tailerrak egingo dituzte, 11:00etan; eta 12:00etan meza izango da. Eguerdian, berriz, auzotarrek etxerik etxe Santa Ageda koplak abestuko dituzte. Eta iluntzean, Jentiolan elkartuko dira mahaiaren bueltan, indarberritzeko. Afalostean, Txinparta taldearekin erromeria izango dute.

Etzi, domeka, meza entzungo dute eta Garagartzeko koroak abestuko du. Horren ostean, luntxa egingo dute eta 12 urteotan elkartean lan egin duen Juanito Maortua omendu egingo dute.



**GESALIBAR** *Arrasate Argitan* liburuan azaltzen den auzoko irudia. ARRASATE ARGITAN



Plater aurrekozinatuak

Delikatesenak

Ardoak

Ogi labetik atera berria

Fruta

Urdaitegia

# Bizigarri

**Inaugurazioa, barikuan, otsailaren 2an, 19:00etan**
**Gonbidatuta zaude!**
**Astelehenetik aurrera zabalik!**

Bizigarri •Zarugalde Kalea 6 - Arrasate • Tel - Faxa.: 943 039281

> ESKUBALOIA

### Lau porroten ostean, Ford Mugarrik garaipena behar du

Erromoren aurkako partidua irabaztea, besterik ez dute buruan Ford Mugarrikoek. Joan den astean Askartzaren aurka galdu egin zuten, etxean, partidu polemikoan, eta okerrena da porrot hura laugarrena izan zela jarraian. Denboraldia bikain hasi eta gero, Beñardo Balerdiren mutilek beherakada handia izan dute jokoan eta matematikoki mailari eusteko behar dituzten lau puntuak lortzea benetan zail egiten ari zaie. Egoera horri buelta ematen saiatuko dira Areetan. Lehen itzulian 24-28 galdu zuten Erromoren aurka, baina Arrasatekoak euren jokoa berreskuratzen hasi dira eta zapatuan irabazi egingo dutela uste dute.

> ATLETISMOA

### Lasarteko krosean maila bikaina eman zuten Arrasatekoek

Pasa den asteburuan, Donostiako 52. Nazioarteko Krosa jokatu zen, eta hantxe egon ziren parte hartzen Arrasate Atletismo taldeko kideak. Maila bikaina eman zuten, gainera, arrasatearrek. Kadete mailan, Martin Berrizbeitia aretxabaletarra hirugarren gelditu zen 4.000 metroko proban. Junior mailan, eta 6.600 metrokoan, Markel Blancok seigarren postua lortu zuen. Endika Donaik, berriz, proba bertan behera utzi behar izan zuen.

Gure atletentzat hurrengo konpromisoa, bestalde, beterano eta junior mailetako Euskadiko Txapelketa izango da, Mendizorrotzan. Jonathan Perez, berriz, Zaragozan izango da, estatuko pertika-jauzilari onenekin, bost metroko saltoaren bila.



**PILOTAN** *Emakume pilotari* proiektua 2004an jarri zuten abian. GOIENKARIA

**PILOTA** > EMAKUMEEK ERE BADAKITE PILOTAN

# Pilota tailerra antolatu du Emakume Txokoak

Bi egunean egingo dute, Emakume Txokoan, eta 'Emakume pilotari' proiektuarekin uztartuko da

**JOKIN ETXEBARRIA** > ARRASATE

Duela urte batzuk Gipuzkoako Pilota Federazioa, emakumeen parte-hartze eskasarekin kezkatuta, lizentzia kopuruaren jaitsieraren arazoari konponbide bila hasi zen. Hausnarketa sakonak egin ostean, *Emakume pilotari* proiektua aurkeztu zuten eta egitasmo horretan hamar herrik egin zuten bat; horien artean Arrasatek. Aurtengo Santamasetan, Arrasateko Udalak emakumeen artean pilota sustatzeko sinatu zuen hitzarmenak bere isla izan zuen, emakumezkoen gomazko pala partidua ikusteko aukera izan baitzen Uarkapen.

**EMAKUME TXOKOA, PILOTARI**

Bada, emakumeen kirolak duen bultzada premiari laguntzeko asmoz eta *Emakume pilotari* proiektuari nolabait segimendua eginez, Arrasateko Emakume Txokoko arduradunek pilotari buruzko tailer bat prestatzea erabaki dute. Proiektuarekin uztar daitekeen tailer bat da eta bertan, bi egunean, hainbat gauza landuko dira.

Lehen hitzordua martxoaren seian izango da, arratsaldeko seietan. Orduan, euskal pilotaren historia eta bertan emakumeak izan duen papera ezagutu ahal izango dute tailerrean parte hartzen dutenek. Horretaz gain, ikastaroak iraungo duen ordu parean eskulanak ere egingo dituzte, nork bere eskuzko pilota egingo baitu.

Lehen egunean teoria bada nagusi, bigarren egunean, martxoaren 13an, praktika nagusituko da. Izan ere, aurreko egunean hasitako eskuzko pilota amaitzearekin batera, Uarkape frontoira gerturatuko dira eurek egindako pilota probatzera. Horretaz gain, palako saio batzuk ere egingo dira.

Aukera polita dute, beraz, emakumeek kirol horretara gerturatzeko tailerraren bidez. Ikastaroari buruz informazio gehiago eduki nahi duenak Emakume Txokora hurbildu edo 943 79 41 39 telefono zenbakira dei dezake.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Lasagabaster - Cipris | 2-5 |
| Saukelu Abian - THC | 5-0 |
| Iluntz - Omu Dribling | 1-9 |
| Equs - Abokajarro | 2-4 |
| Dublin Irish Pub - HLB 108 | 2-3 |
| Iriztu Taberna- Cicatrus | 7-0 |
| Billy & The Cowboys -McAwen Dauen | 1-8 |
| Manhattan Pippol- Iturriotz Taberna | 2-7 |
| At. Celaya- Betrayer | 3-1 |

**PARTIDUAK**

| Otsailak 3, zapatua | | Epaileak |
|---|---|---|
| 09:50 | Lasagabaster. - THC | McAwen Dauen |
| 11:00 | Dublin - McAwewn Dauen | THC |
| 12:00 | Iriztu - Iturriotz Taberna. | Dublin |
| 13:00 | Iluntz. - HLB 108 | Iturriotz Tab. |
| 15:50 | Billy & The Cow. - Betrayer | At. Celaya |
| 17:00 | Manh. Pippol - At. Celaya | Betrayer |

| Otsailak 4, domeka. | | Epaileak |
|---|---|---|
| 10:50 | Equs - Cicatrus | Omu Dribling |
| 12:00 | Cipris-Omu Dribling | Equs |
| 13:00 | Abokajarro - Saukelu Abian | Cipris |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Saukelu Abian | 25 | 9 |
| 2. | Omu Dribling | 21 | 9 |
| 3. | HLB 108 | 21 | 9 |
| 4. | At. Celaya | 20 | 9 |
| 5. | Betrayer | 19 | 9 |
| 6. | Iluntz | 17 | 9 |
| 7. | Cipris | 16 | 9 |
| 8. | McAwen Dauen | 14 | 9 |
| 9. | Abokajarro | 14 | 9 |
| 10. | Iriztu Taberna | 12 | 9 |
| 11. | Manhattan Pippol | 11 | 9 |
| 12. | Lasagabaster | 10 | 9 |
| 13. | Dublin Irish Pub | 9 | 9 |
| 14. | Iturriotz Taberna | 7 | 9 |
| 15. | Billy & The Cowboys | 7 | 9 |
| 16. | THC | 4 | 9 |
| 17. | Equs | 3 | 9 |
| 18. | Cicatrus | 3 | 9 |

### Istiluak berriz Zaldibarren

Zoritxarrez, aurreko jardunaldian istilu asko izan ziren jokalarien artean. Hori dela eta, antolakuntzak hainbat jokalariri zigorrak jartzea erabaki du. Iriztu taldeko jokalari batek, adibidez, zortzi partidu eman beharko ditu jokatu gabe, Cicatrus taldeko jokalari batek bi, Iluntz-eko batek hiru eta beste batek bi, eta Dribling taldeko batek partidu bateko zigorra bete beharko du.

**SASKIBALOIA** > EUSKAL LIGAREN HASIERA

# Euskal Ligako lehen aurkaria Baskonia Fundazioa izango da

Domekan, arratsaldeko seietan, Iturripen hasiko dira Mugarri Alkesako gazte mailakoak Euskal Liga txapelketa jokatzen

**J.E.** > ARRASATE

Dagoeneko hemen da. Euskal Ligak lehenengo aldiz bisitatuko du Arrasate, domekan, Iturripen. Mugarri Alkesako gazte mailako taldeak Baskonia Fundazioa izango du aurkari. Partidu zaila izango da arabarren aurka jokatuko dutena, batez ere horrelako txapelketa baten jokatzeak ekartzen duen urduritasunagatik. Hala ere, Jose Mari Baltzategiren mutilek aukera ona dute liga honetan zer egiteko kapaz diren erakusteko.

**NAGUSIEK, KONTRARIO BERA**

Bitxia baldin bada ere, EBA ligarako igoera fasea jokatzen dabilen taldeak ere Baskonia Fundazioa izango du aurkari aste bukaeran. Gorka Zurututzaren mutilek zapatuan, arratsaldeko seietan, jokatuko dute Iturripen. Joan den astean liderraren aurka galdu eta gero, garaipen eta porrot batekin daude arrasatearrak, eta partidua irabaziz gero lasaitasun handiagoarekin ibiltzeko aukera izango dute Mugarrri Alkesakoek. Beraz, asteburuan bi partidu polit eta garrantzitsu izango dira Iturripen, eta zaleen laguntza ezinbestekoa izango da.



**EUSKAL LIGA** Gazte mailako taldeak Euskal Liga hasiko du. ARTXIBOA

Kanpotarrak Arrasaten

**Emma Kieran** > Ingeles irakaslea
Arrasate

# "Hemen asko jaten da eta kalera irteteko ohitura handia dago"

**JOKIN ETXEBARRIA** > ARRASATE

**Duela 31 urte jaio zen Emma Kieran, Luton-en (Ingalaterra), baina Bristol-en bizi izan da ia betidanik. Edozelan ere, bost urte daramatza Arrasaten bizi izaten. Ingelesa irakasten du Mondragon Lingua akademian, eta oso gustura bizi da hemen.**

Dublinen eskolak ematen zebilela atzerrira joateko gogoa sartu zitzaion Emma Kierani. Arrasaten aurkitu zuen postu bat duela bost urte, eta ordudanik hemen da: "Ez dut hemendik mugitzeko intentzio handirik".

Lagun batekin Espainiako mapa batean Arrasate ez zuela aurkitzen ikusita, kezkatu egin zen: "Gainera, toki eguzkitsua izatea espero nuen, baina azaroan heldu nintzenean, euria eta hotza besterik ez nuen aurkitu".

**JANARIA ETA DORREAK**

Horixe izan zen Emma gehien harritu zuena hasieran. Bera ohituta zegoen herrietan etxebizitza modura etxeak aurkitzen eta dorreek sentsazio bitxia eragin zioten. Horrez gain, bazkaltzeko sandwich bat jaten zuen: "Hemen hori oso ezberdina da, asko jaten da eta, gainera, kalera irteteko ohitura handia dago".

**"Toki eguzkitsua izatea espero nuen, baina heldu nintzenean, euria eta hotza besterik ez nuen aurkitu"**


Emma Kieran.

Etorri zenean ez zuen gazteleraz egiten, "baina oso jende jatorrarekin egin nuen topo eta ez nuen batere arazorik izan hemengo bizimodura moldatzeko". Hemen bizi izaten daraman bost urteetan, pentsatzeko eta jarduteko moduak oso ezberdinak direla ohartu da: "Gogoratzen dut lagun batek esan zidala ez nuela zertan horrenbeste 'Mesedez' eta 'Eskerrik asko' esan".

Bikotekidea du Arrasaten, eta maiatzean ama izango da. Oso pozik bizi da hemen, baina herriko hainbat gauza aldatuko lituzkeela adierazi digu: "Etxebizitza bat aurkitzea ez da erraza eta dauden prezioan are eta gaitzagoa da, eta zinema dotore bat ere faltan sumatzen dut askotan".

argazki zaharra

# Saskibaloia ez da oraingo kontua soilik



Arrasatensaskibaloian aspalditik jokatzen dela erakusten digu argazki honek. 1971-72 denboraldian Arrasatek zuen junior mailako taldea duzue irudian, eta kantxa, berriz, dagoeneko desagertuta dagoen Eskola Politeknikokoa da.

Goiko ilaran eta ezkerretik hasita: Gonzalez, Valeta (entrenatzailea), Balantzategi, Etxeandia, Aranburu, Valles, Altuna eta Eguren (delegatua). Beheko ilaran, berriz: Manjon, Alegre, Elortza, Intxausti, Txomin eta Arruti.

**Argazkia:** Ointxe Saskibaloi Taldea
**Informazioa:** Ointxe Saskibaloi Taldea
**Urtea:** 1971-72

bere ustez


Nerea Makazaga

# Kontrabaxu bahituaren gaua

Eskularrurik ez janztea baimentzen duen neguko beste edozein gau izan zitekeen. Egun osoko nekeak lotara gonbidatzen zaituen gau horietako bat.

Hiriko kale estuetan galdu eta hainbat ahalegin berri egin ostean, 52.aren antzik ez zuen kalean aurkitu genuen Harlem Jazz Club-a. Sartuaz bat, argi urdinduek nagusituriko norabideari jarraika, eskenatokian batu ziren gure begiradak. Hasitako kontzertuaren lehen paisaiak galtzeari inolako aukerarik eman gura ez, eta lekua hartu genuen.

**"Taberna hartan inoiz izan ez zen kontrabaxuari besarkatua esnatu naiz gaur"**

Inork inguratzen ez gintuen aulki hartatik, ikuskizunak noranzko ezkutuak hartzen zituen, keak lez, azken notak ekar zezakeenaren metaforan. Giroaren epeltasunak urtzear zeuden gelek hoztutako edalontzia esku jolasean aritzera animatzen zuen.Erritmoari sustraitu guran, legerik gabeko denboran murgiltzeko grinaz, koordinazioa paradigma amaigabeetan galtzen zen. Eta horrela, ametsetan jarraitu nuen, bakardade amestuetan kokaturiko aulki tolesgarrian, zein ametsetan hartu ninduen loak jakiterik gabe. Taberna hartan inoiz izan ez zen kontrabaxuari besarkatua esnatu naiz gaur, bahitzailearen irribarreaz ezpainetan.




LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

## Laster inauguratuko dute Bergarako pianodun elkarte bakarra: Umore Ona

(15. orrialdetik dator
"Bergarako Nobedades-en, Elgetan, Elgoibarren, Arrasaten, Urretxun… eta beste leku askotan izan ginen". Telebistan ere izan ziren, TVEn, birritan, gainera. "*Tarde para todos* saioaren azkeneko kapituluan izan ginen, adibidez".

Eta Bergaran horren ezaguna den San Martzialerako igoera egiten ere, Umore-Onakoak hasi ziren: "Bizkaira joaten ginen urtero, txangoan; haren partez hasi ginen San Martzialera igotzen. San Martzialera igo ginen lehenengo aldia izan zen 60ko hamarkadan. 40 bat urte egin dugu hara joaten. 40 bat urte dira han esaten dela meza, hamarretakoa, txikiteoa, kantuak, bazkaria, kontzertuak e.a. San Martin eguna beti izan da Umore-Onaren eguna; beti gogoratuko dugu egun hori bazkari ona eginda, kantu ederrekin eta lagun arteko giro umoretsuarekin. Esan beharra dago On Miguel Altuna apaizak ez zuela kale egiten urteroko meza esatera sermoi ederrarekin, nahiz eta azkenean Donostiatik etorri beharra izan. Gu azkeneko aldiz igo ginen 2001eko ekainean".

Eta horiekin guztiekin batera, herriko bestelako ekitaldietan ere parte hartu izan dute; Santa Ageda koroan, esaterako.

**BAZKIDE EZAGUNAK**

Ekitaldi ezagunak ez ezik, Umore-Onako bazkide batzuk ere Bergaran ezagun askoak dira. Adibidez, Miguel Okina margolaria bazkide izateaz gainera, haren margolanak elkartean egon dira urte luzez ipinita eta orain, elkartearen handitze lanak egin eta gero, margolariak lanak berritu eta atzera ere ipiniko dituzte.

Ohorezko bazkide izan zen, baita ere, On Miguel Altuna, apaiza eta haren izena daraman ikastetxeko bultzatzaileetako bat.

Lehenengo presidentea, berriz, Ramon Azpeitia izan zen.

Eta Miguel Gonzalez Bastida ohorezko bazkideak (bandako zuzendaria urte luzez) egin zuen, besteak beste, danborradako elkartearen martxa.

**ERABERRITUTAKO ELKARTEA**

Esandako moduan, orain elkartea berrituta dago guztiz. Azken 5-6 urteotako proiektua izan dute hori. "Lehenengo, lokal berria erosi genuen, orain dela bi urte", kontatu du Ibon Garitanok, oraingo presidenteak. "Elkartea oso zaharra zen eta, gainera, mugatuta zegoen 40 lagun ingururako. Txikiegi geratu zitzaigun". Horrela, ondoko lokala erosi eta lehengoan gutxieneko egokitzapena egin eta lokal berrian, besteak beste, sukalde handi bat egokitu dute.

103 bazkide ditu gaur egun Umore-Ona elkarteak. Horietatik lau dira emakumeak, "baina ez dago arazorik emakumeak sartzeko, e? Azkeneko egin zen bazkidea emakumea izan zen", azpimarratu du Garitanok.

Bazkide izateko ere nahikoa erraztasun ematen dituzte Umore-Onan: "Ez dago baldintza berezirik, kuota pagatzea bakarrik. Eta ez da Bergarakoa izan behar bazkide izateko".

Hori jakinda, eta kontuan hartuta, oraindik bazkide gehiago har dezaketela elkartean, interesa izanez gero, hortxe aukera historia handia duen elkarte berritu batean sartzeko.

KONTUAN HARTZEKO

### Winston markako piano-pianola amerikanoa dauka, Mariaren Lagundiatik ekarrita

"Elkarte "artistiko musikala" izanda egoki ikusi genuen elkartean piano bat egotea". Hala azaldu digu Iñigo Alberdik, Umore Ona elkarteko bazkideak, elkartean pianoa ipintzeko ideia. "Mariaren Lagundian pianopianola zahar bat zeukaten, eskatu egin genien, eta baietz esan ziguten. XX. mende hasierako pianola amerikanoa da, *Winston* markakoa. Pianola zen, hau da, teklekin normal jotzeaz aparte, lehenengo tokadiskoen moduan zebilen. Paper biribil baten, perforatuta, musika grabatuta egoten zen, morse erara, eta mekanismo batekin harietara pasatzen zen musika (Madrilgo organilloen antzera ). Gaur egun pianolaren mekanismo hori kenduta dauka, aspaldi, eta afinatu berri dago. Pianoa daukan elkarte bakarra gara, noski". Eta ez Bergaran bakarrik, seguru asko Euskal Herrian ere ez dela halako askorik egongo.

**ETXEBIZITZAK** > ALOKAIRUA SUSTATZEKO PLANA

# Etxe hutsak Biziguneren bitartez alokatzeko kanpaina egingo dute

Bost urtetarako alokairuak izaten dira eta jabeak etxea utzi duen bezala hartuko duen bermea du

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Herrian hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko kanpaina egingo du Udalak. Horretarako, Bizigune programa ezagutarazi nahi du, horren bitartez emateko etxebizitzak alokairuan. Etxe hutsen jabeei eskutitz bat bidaliko die Udalak, Bizigune azaltzeko eta martxoan egingo duten informazio bilerara gonbidatzeko.

**BIZIGUNE EGITASMOA**

2005eko urriaren 27an sinatu zuen Udalak Bizigune programa. Ordutik hona sei etxebizitza bakarrik alokatu dituzte: "Jendeak mesfidantza handia du eta ez da alokatzera ausartzen. Kanpaina horrekin alokairua sustatu nahi dugu", dio Victoriano Gallastegi alkateak. "Biziguneren kin, jabeak seguru daki etxea utzi duen moduan jasoko duela", jarraitu du. Luis Laskurainek, Suradesako gerenteak, adibide bat azaldu du: "70 metro koadroko etxebizitza alokatu dugu Biziguneren bidez astean bertan. Jabeak 580 euroko errenta jasoko du eta bezeroak 95 euro ordainduko ditu; diferentzia administrazioak ordaintzen du". Alokairua bost urterako da. Bergaran, 13 lagunek bakarrik jarri dute Etxebideren bitartez etxea alokatzea lehenengo aukera moduan.

DATUA

**341**

Udaleko teknikariek 341 etxebizitza huts zenbatu dituzte herrian. Hala ere, zentsuan gehiago daudela onartu du alkateak, kopuru zehatza zein den oraindik ez dakiten arren.




**KANPAINA** Luis Laskurain Suradesako gerenteak eta Victoriano Gallastegi alkateak eman dute kanpainaren berri. O.E.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

ERRETIRATUAK

# San Joxepen bazkide egiteko ez dago adinik

Nahikoa da pentsioduna edo erretiratua izatea bazkide egiteko

O.E. > BERGARA

San Joxepe elkarteko bazkide izateko adinak ez du garrantzirik izango hemendik aurrera. "Nahikoa da pentsioduna zarela erakustea. Bikotekidea ere egin daiteke bazkide diru sarrerarik ez badu", azaldu du Luis Larrañaga zuzendaritzako kideak. Erabaki hori hartu du San Joxepe elkarteko zuzendaritzak urtarrilean egindako ezohiko batzarrean. Horrez gain, beste bi erabaki hauek ere hartu zituzten: zuzendaritzako kide izateko denbora hiru urte izatea biren ordez eta zuzendaritzako kideak zerrenda bidez aukeratzea boluntariorik ez badago. "Hamar lagun gaude zuzendaritza batzordean. Gero eta boluntario gutxiago daude zuzendaritzan sartzeko, eta horregatik erabaki dugu beste bide batzuk aztertzea", argitu du Luis Larrañagak. Martxoaren erdialdean egingo dute zuzendaritza aldatzeko bilera eta ordutik aurrera aplikatuko dituzte azken bi erabaki horiek.

**SAGARDOTEGIRA IRTEERA**

Bestalde, San Joxepe elkarteak gertu du otsaileko egitaraua: otsailaren 3an, adibidez, San Blasen abestuko du koruak eta 5ean, kalez kale ibiliko dira Santa Ageda kantuan. Otsailaren 20an Aratusteetako bazkaria egingo dute Agorrosingo tabernan eta 22an, sagardotegira irteera, autobusean. Horrekin guztiarekin batera, oinarrizko informatika ikastaroa eta argazkilaritza eskolak ere antolatu dituzte elkartean otsailerako, La Caixaren laguntzarekin.



URTEAGA Eskumako aldean babestutako etxebizitzak egingo dituzte eta ezkerrean libreak. O.E.

ETXEBIZITZAK > BABESTUTAKOAK ETA LIBREAK

# Urteaga kalearen urbanizazio hitzarmena onartu du udalbatzak

Hitzarmen horrek jasotzen du 219 etxebizitza egitea Urteaga kalean eta orain azpitik doan Uhola erreka desbideratu eta zati bat bistaratzea

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Urteaga kalearen eremu berriaren hirigintza garapenerako hitzarmena egin du udalak Madura Etxegintzak SL enpresarekin, eta hitzarmen hori onartu egin zuen udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran, aho batez. Hirigintza plan horren barruan, 219 etxebizitza egingo dituzte Urteaga kaleko eremu horretan, ingurua urbanizatu egingo dute eta orain lur azpian dagoen Uhola erreka bistaratu egingo dute.

**AUZO BERRIA**

Hitzarmenak jasotzen du 219 etxebizitza egiteko proiektua; 104 babestutakoak eta 115 libreak. Madura Etxegintzak enpresak azaldu digun moduan, Bergaratik Antzuolarako noranzkoan eskumara gelditzen den lautadan, Movillas enpresa egondako tokian, babestutako etxebizitzak egingo dituzte, eta ezkerrean dagoen sailean, etxebizitza libreak. Horiek egiteko, ezkerreko aldean dagoen lehen etxebizitza bota egingo dute. Kale hasieran egiten ari dira dagoeneko 20 etxebizitza libre. Horren ostean 40 egingo dituzte, beste 40 hirugarren fasean eta gainerako 15ak laugarrenean. Prezioak jartzeke daude oraindik. Etxebizitza babestuak egingo dituzten aldean, gainera, orain azpitik doan Uhola erreka desbideratu egingo dute pixka bat eta zati bat bistan gelditukо da gero. Lanak hasteko eta bukatzeko epeak zehazteke daude oraindik. "Udalbatzak onartutako hitzarmena proiektuaren hasiera da. Gipuzkoako buletinean agertu ostean alegazioak jartzeko epea zabalduko da", dio Josean Etxeberriak, Hirigintzako zinegotziak.

> AGORROSIN

### Jolaserako bi kale egongo dira otsaileko asteburuetan

Jolaserako bi kale egongo dira Agorrosingo igerileku handian otsaileko zapatuetan eta domeketan. Flotazioan laguntzeko elementuak edo materialak erabiliko dituzte bi kale horietan eta igeri eta jolas egin ahal izango dute umeek eta gurasoek. Kale horietako erabiltzaileak izango dira: 10 urtetik beheragoko umeak dituzten eta igerileku handian egon nahi duten gurasoak eta igerileku handian autonomiaz ibiltzeko gai diren 10 urtetik gorako umeak.

> MOZIOAK

### De Juanaren mozio alternatiboa onartu du udalbatzak

De Juana Chaosi buruz EAJk aurkeztutako mozio alternatiboa onartu zuen udalbatzak astelehenean. EAJ, EA eta Aralarren aldeko botoekin onartu zuten; EB eta PSE abstenitu egin ziren. Aralarrek argitu zuen De Juanaren senideek aurkeztutako mozioa ere hitzez hitz onartzen dutela. Euskal Erakundeen Alde ekimenarekin bat egitea aho batez onartu zuten eta Aralar abstenitu egin zen Eudelek Barajasko atentatuari buruz egindako deklarazioan.

> TELEBISTA

### Victoriano Gallastegi GOITBko 'Debarri' saioan eguaztenean

Victoriano Gallastegi GOITBko *Debarri* programan egongo da eguaztenean, otsailak 7. Edozeinek egin diezazkioke galderak alkateari. Bi bide daude horretarako: *www.goiena.net* helbidean sartu eta eztabaidako atalean klik eginda edo telefono zenbaki honetara deituta eguazten goiza baino lehen: 943 79 23 96. Saioa eguaztenean emitituko dute 21:15etik 22:15era; eguenean 13:45ean eta egubakoitzean 17:45ean.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA



POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

**ERAKUSKETAK** > 2007KO EGUTEGIA

# Aroztegiko erakusketa egutegia, gertu

Barrenkaleko aretoan 17 erakusketa egingo dituzte 2008ko urtarrilera bitartean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Aroztegi aretoko batzordeak zehaztu du dagoeneko 2007rako erakusketen egutegia. Datorren urteko urtarrilera bitartean 17 erakusketa egingo dira Aroztegin. Lehenbizikoa gaur, egubakoitza, zabalduko dute: Joxe Angel Areta *Juxe*-ren argazkiak izango dira ikusgai.

Horren ondoren, hauek izango dira Aroztegin egingo diren erakusketetako batzuk: Daniel Txopitea (martxoaren 3an zabalduko dute), Kilometroak (apirilaren 20an), Aitor Sarasketa (maiatzean) edo Jabier Sagarzazu (ekainean). Uda ostean, Udal Musika Bandaren 175. urteurrenekoa izango da, azaroan.

**ARTE PLASTIKO EZBERDINAK**

Aroztegiko batzordea Luis Abajo eta German Muruamendiaraz zinegotziek, Luis Laskurain eta Bingen De Pedro BEARTeko kideek, Xabier Aranburu udal museologoak eta Maider Osa kultura teknikariak osatzen dute eta aurkeztutako proposamenen artean aukeraketa egin behar izan dute. "Artista bakoitzaren ibilbidea, curriculuma eta euskarri ezberdinetan aurkeztutako obraren kalitatea hartu ditugu kontuan egutegia osatzeko. Horrez gain, arte plastiko ezberdinen arteko oreka ere bilatu nahi izan dugu. Horrek hainbat kalitatezko artista bazterrean uztera behartu gaitu. Edozein modutan, artistak animatu nahi ditugu hurrengo baten ere eskaera aurkez ditzaten". 2007an Aroztegin egingo diren erakusketek 22.915 euroko aurrekontua daukate.




**ARGAZKIAK** Joxe Angel Areta Juxe-ren *Amazoniako oihanetik Pazifikora* erakusketa zabalduko dute gaur Aroztegin. JUXE



GOIENKARIA

## Bertso afaria Xabi Paya eta Andoni Egañarekin

Artatse elkarteak bertso afaria iragarri du hurrengo zapaturako, otsailaren 10erako. Andoni Egaña Euskal Herriko txapelduna eta Bizkaiko txapela eskuratu berri duen Xabi Paya algortarra izango dira gonbidatuak Artatsek urtero antolatu ohi duen bertso afarian. Izenematea zabalik dago; prezioa 20 euro da eta interesatuek Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan eman dezakete izena. Argibide gehiago Artatse elkartean, Masterrekako 5. zenbakian.

> GAZTETXOAK

### Patxi Hernando Otxe ipuin kontalariaren saioa izango da domekan, Agorrosin kirolgunean

Patxi Hernando Otxe umeentzako ipuin kontalaria izango da domekan, otsailaren 4an, Agorrosinen. *Tik Pun planetako altxorra* izenburuko saioa eskainiko du Hernando Otxek. Ipuin kontaketa 17:00etan izango da eta sarrerak euro bat balio du.

> PINTURA

### Altuna Akizuren margo erakusketa Eibarko Arrate kultura elkartean, hurrengo astetik

Juanjo Altuna Akizuk margo erakusketa zabalduko du hurrengo egubakoitzean, otsailaren 9an, Eibarko Arrate kultura elkartean (Zuloagatarren 3). Erakusketa otsailaren 18ra arte izango da zabalik, aste barruan 19:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

> GAZTEAK

### Bost taldek hartuko dute parte gaur Arrizuriagan hasiko den koadrilen lehiaketan

Bost koadrila izango dira lehian Jardunek antolatutako lehiaketan. 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoek parte hartuko dute; Pirinioetan asteburu bateko egonaldia eskuratuko dute irabazleek. Lehiaketa gaur, egubakoitza, hasiko da Arrizuriagan, 17:30ean.

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

2006

# BEDELKAR-en
## Gabonetako zozketaren irabazleak

BEDELKAR · BERGARAKO DENDARI, OSTALARI eta ZERBITZUEN ELKARTEA

**200 €**
**bakoitza**

| | | |
|---|---|---|
| 08.373 (Larrañaga goxotegia) | 50.938 Lurdes Lete | 70.318 Mª Jose Conde |
| 09.183 (Mujika goxotegia) | 52.358 Paqui Hurtado | 71.376 Juan Etxabarri |
| 14.227 Javier Zabaleta | 60.201 (RTV Santos) | 79.715 Pili Lera |
| 31.137 Jose Vicente Santamaria | 61.008 Mª Luisa Zubia | 80.969 Maite Valpuesta |
| 48.030 Mª Cruz Fernandez | 62.383 Arantza Pildain | 85.101 (Infordelta Bergara) |

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

# Debarri

**VICTORIANO GALLASTEGI Bergarako alkatearekin berbetan**
Eguaztena 7, 21:15ean
Alberto Gorritibereak aurkeztuta

AURREZ GALDERAK EGITEKO: WWW.GOIENA.NET WEBGUNEAN EDO 943 71 23 95 TELEFONO ZENBAKIAN.

DEBARRI / Babeslea

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2007 ARRASATE

FUTBOLA > BKE-KO LEHEN MAILAKO INFANTILAK IGOERA FASEA JOKATZEN DABILTZA

# Villabonaren aurka hirugarren garaipena nahi dute bergararrek

Orain arte igoera fasean jokatu dituzten bi partiduak irabazi egin dituzte BKEko lehen mailako infantilek



**INFANTILAK** BKEko lehen mailako infantiletako taldea. GOIENKARIA

**JOKIN ETXEBARRIA** > BERGARA

Javi Oregi eta Karlos Gorrotxategi ez daude kexatzeko moduan. Eurek entrenatzen duten taldea egiten dabilen denboraldia ez da nolanahikoa. Izan ere, Bergarak lehen mailako infantiletan duen taldeak orain arte jokatu duen ia guztia irabazi du eta ohorezko infantil mailara igotzeko aukera dezente ditu.

Liga txapelketan lehenengo lau sailkatuek igoera fasea jokatzeko txartela lortzen dute, eta bergararrek erraztasunez lortu dute sailkatzea, lehenak amaitu baitute ligan.

**BITIK BI**

Orain arte igoera fasean bi partidu jokatu dituzte eta biak ere irabazi dituzte: 4-1 Oiartzuni eta 0-6 Ostadarri.

Hurrengo partidua Villabonaren aurka jokatuko dute Ipintzan, domekan, eta hirugarren garaipenaren bila irtengo dira.

IGERIKETA > ESPAINIAKO MASTER TXAPELKETAN EZIN HOBETO

# Bost dominarekin bueltatu dira Madrildik Bergara Igeri Elkarteko bost igerilariak

Kepa Irizarrek hiru domina lortu ditu eta Aitor Alberdik bi; beste taldekide guztiek ere lan bikaina egin zuten

**J.E.** > BERGARA

Pasa den asteburuan Espainiako neguko master txapelketa jokatu zen Madrilen. Parte hartzera Bergara Igeri Elkarteko bost igerilari joan ziren, eta ez dira eskuhutsik bueltatu.

Amaia Andueza entrenatzaileak adierazi zigun entrenamenduetan lan ona egiten dabiltzan arren, lehiaketan gauzak oso bestelakoak izaten direla, eta lehen hamarren artean sailkatuta konformatzen zirela. Bada, entrenamenduetako lanak fruitua eman du eta entrenatzailearen desioak txiki utzi dituzte igerilariek; izan ere bost dominarekin bueltatu dira Bergarara.

**HIRU ZILARREZKO DOMINA**

Aukera handienak Kepa Irizarrek zituen. Izan ere, bergararrak Euskadiko Txapelketan oso maila ona eman zuen. Eta, hain zuzen ere, Irizarrek parte hartu zuen hiru probetan podiumean sartu zen: 100 tximeleta eta 200 estilotan bigarren eta 200 tximeletan hirugarren sailkatu zen. Aitor Alberdi taldekideak, berriz, ez zuen atzean geratu nahi izan eta 50 tximeletan bigarren, 50 libretan hirugarren eta 100 libretan bosgarren amaitu zuen.

Beste hiru taldekideak ere bikain ibili ziren, eta aipatzekoa da errelebutan egin zuten lana.

> FUTBOLA

## BTLSko neskek igoera fasea hasiko dute aste bukaeran

Azken momentuan lortu zuten igoera faserako sailkatzea BTLSko neskek, Salvaterrari 4-0 irabazita; hain zuzen ere, Mondrarekin batera lortu dute sailkapena.

Aste bukaeran ekingo dio igoera faseak eta derbiarekin hasiko da, gainera. Izan ere, Mondraren aurka jokatuko dute bergararrek zapatuan, 19:45ean, Ipintzan. Mondra aurreko fasean sailkapenean gorago gelditu zen, baina derbiak beti izaten dira lehia bereziak eta domekakoa ere horrelakoa izango da.

Igoera fasean izango dituzten beste aurkariak honako hauek dira: Eibar, Tolosa, Zarautz, Hernani, Baskonia eta Luberri.

> ESKUBALOIA

## Lehen territorialak etxean jokatuko du, aspaldiko partez

Josetxo Muniategiren taldeak lau partidu jokatu behar izan ditu jarraian etxetik kanpo. Hala ere, partidurik galdu gabe jarraitzen dute bergararrek. Joan den astean 24-30 irabazi zioten Hegialde Autori Legazpin. Horrenbestez, sendo eusten diote lidergoari eta igoera faserako sailkapena oso gertu dute dagoeneko. Hilabete eta erdiren ondoren, berriz ere Labegaraietara bueltatuko dira Bergarakoak. Urola izango dute aurkari domekan, 12:15ean. Urolakoak Arrasateri irabaztetik datoz eta gauzak zail jartzen ahalegindu ko dira.

Bestalde, gazte mailako taldeak ere etxean jokatuko du. Hura ere domekan izango da, 10:15ean, eta Donibane izango da kontrarioa.

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Irubide - Irish Pub | 3-0 |
| Tiki-Taka - Altospornos | 5-3 |
| Komando Piperrak - Niu Tim | 3-6 |
| Errota-Gain - Belengua | 12-0 |
| Tornilleria Deba - Teatekh | 3-14 |

**PARTIDUAK**

| Otsailak 3, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| 16:30 Tiki-Taka - Irubide | Altospornos |
| 17:30 Torn. Deba - Altospornos | Tiki-Taka |
| 18:30 K.Piperrak - Belengua | Torn. Deba |

| Otsailak 4, domeka. | Epaileak |
|---|---|
| 16:30 Errota-Gain - Irish Pub | Teatekh |
| 17:30 Niu Tim - Teatekh | Irish Pub |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Errota-Gain | 30 | 10 |
| 2. | Niu Tim | 27 | 10 |
| 3. | Teatekh | 21 | 10 |
| 4. | Altospornos | 21 | 10 |
| 5. | Tiki-Taka | 12 | 10 |
| 6. | Irish Pub | 9 | 10 |
| 7. | Belengua | 9 | 10 |
| 8. | Irubide | 9 | 10 |
| 9. | Komando Piperrak | 3 | 10 |
| 10. | Tornilleria Deba | 3 | 10 |
| 11. | Azkenak | 0 | 0 |

### Irish Pub taldeak sei puntuko zigorra jaso du

Labegaraietako txapelketan epaile lanak taldeek eurek egiten dituzte. Bakoitzak partidu kopuru bat epaitu beharra dauka. Aurreko asteburuan, baina, Irish Pub taldeko kiderik ez zen agertu Tiki-Taka eta Altospornos taldeen arteko partidua zuzentzera. Ez hori bakarrik, Irubideren aurka jokatu behar zuten partidura ere ez ziren agertu. Hori dela eta, antolakuntzak sei puntuko zigorra ezarri dio Irish Pub taldeari. Berriro horrelakorik gertatuz gero, txapelketatik kanpo gelditukodirela ere gaineratu nahi izan dute.

Bestalde, taldeei eskatzen die antolakuntzak partiduak ezarritako orduan hastea, ordutegiak bete beharra dagoelako.

GIMNASIA ERRITMIKOA > GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO LEHEN FASEA

# Ariznoa taldeko gimnastek lan bikaina egin zuten Arrasaten

Infantil, kadete eta gazte mailetan lehen postuan sailkatzea lortu zuten, taldekako lanean, Arrasateko Uarkape frontoian

**J.E.** > BERGARA

Pasa den asteburuan, Arrasateko Uarkape frontoian, gimnasia erritmikoko Gipuzkoako Txapelketako lehen fasea jokatu zen, eta Ariznoa Gimnasia Taldeko neskek lan bikaina egin zuten.

Taldekako lanean, lehen postua lortu zuten bergararrek, bai infantil, bai kadete eta baita gazte mailetan ere.

**BAKARKA ERE LEHENETAN**

Taldekako lana bikaina izan zen, baina, bakarkakoa ere ez zen atzean geratu.

Infantiletan, Kristina Etxeberria laugarren gelditu zen, Ainara Gonzalez seigarren eta Uxue Lazkanok zazpigarren amaitu zuen.

Kadete mailan, berriz, Lide Toledok lehen postua eskuratu zuen, Usoa Toledo ere bikain ibili zen eta hirugarren amaitu zuen. Haren ondoren Ariznoako beste taldekide batek amaitu zuen: Sarai Ugarteburuk, hain zuzen ere. Senior mailan ere podium bat lortu zuten: Izargi Vegak, hirugarren amaituta.

Ariznoako gimnasten hurrengo hitzordua otsailaren 10ean izango da, Arrasaten baita ere.



**INFANTILAK** Infantiletako taldea lehena gelditu zen. ARIZNOA GIMNASIA TALDEA

**mingainari tiraka**

**Juan Jose Gabilondo** > Murinondoko auzo alkatea

# "Herriko parajerik politena da San Blas"

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

**Juan Jose Gabilondo San Blas auzoan jaiotakoa da. Ziarreta du jaiotetxea eta gaur egun ere San Blasen bizi da, Etxealain. Hango auzo alkatea da, eta gaur auzoko jaiei ekingo diete.**



**San Blas opilik egiten badakizu?**
Gustatzen zaizkit, baina ez dakit egiten. Emazteak egiten ditu.

**Auzoko jaiak ospatzen hasiko zarete gaur. Zer gustatzen zaizu gehien?**
Auzo afaria. Auzoko guztiak elkartzen gara, eta gaur egun auzoan bizi ez diren hainbat ere etortzen da.

**Egitarauan zer sartzeko gogoarekin geratu zara?**
Ezer ez. Egia esan, aukera handirik ez dago gauza gehiago egiteko. Data hauetan eguraldiak ez du askorik laguntzen eta ekitaldietarako toki egokirik ere ez dugu.

**Zeren truke jaitsiko zinateke kalera bizi izatera?**
Ez nintzateke jaitsiko. Jaiotetxea San Blasen dut eta oso gustura bizi naiz. Gainera, ez nuke asmatuko kalean bizi izaten.

**Auzoetan askotan izaten duzue kexuren bat Udalarekiko. Zergatik?**
Ez gaituztelako beste batzuek adina kontuan hartzen. Hala eta guztiz ere, ez dut horrenbesterainoko kexurik. Ondo gaude.

**Bigarrengoz zara auzo alkate. Esperientzia gradu bat da?**
Ez dut uste apartekorik behar denik.

**Eta, ardurarik ematen du karguak?**
Ez da karga handia, baina beti ematen du ardura pixka bat.

**Zer duzu gustukoen San Blas auzotik?**
Dena, oro har. Bergarako paraje politena da.

**Jaietara hurbiltzeko gonbidapena egin nahiko zenuke?**
Eskuzabal eta pozik hartuko ditugu datozen guztiak.

**hau be badaukogu**

## Miguel Altunako ikasleek Eroskiren biltegia bertatik bertara ezagutu dute

**Miguel Altuna ikastetxeko administraritzako ikasleak –bigarren zikloko erdi eta goi mailako hiru talde–, Eroskik Elorrion daukan biltegia bisitatzen egon ziren urtarrilaren 19an. Hornikuntza gaia dihardute ikasten eskolan eta horren osagarri gisa egin zuten Eroskiko biltegira bisita; hain justu ere, han duten biltegi adimenduna ikustera hurbildu ziren. Eroskiko biltegiko arduradunek hainbat azalpen eman zizkieten eta horrekin batera instalazioen barrena ibili ziren guztia bertatik bertara ikusteko asmoz. Alboko irudian Elorriora joandako ikasle taldea irakasleekin batera.**



MIGUEL ALTUNA IKASTETXEA

**bere ustez**



**Jon Suinaga**

## Herri baten kronikak

Herritar bat igerilekura, barkatu, "Agorrosin Ekintza Gunera" hurbildu zen. Bere intentzioa txartel berria ateratzea, kirola eta korrika egiteko asmoarekin. Segidan lortu zuen bere helburua, prezioak jakin bezain laster korrika hasi zen eskandalizatuta.

Abusua salatzeko Udaltzaingora joan zen. Udaltzainek arrazoia eman zioten. Baietz, badakitela nortzuk diren gaizkileak, baina ezin zezaketela ezer egin onartu zuten. Gaizkile banda horrek herrian egiten ditu bere bihurrikeriak; zinea itxi edo San Pedro plazako zuhaitzak txunditzea bezala.

**"Gaizkile banda horrek herrian egiten ditu bere bihurrikeriak; zinea itxi..."**

Zapatu goizean kalean CD bat erosi nion nigeriar bati. Eguerdian pinta bat Irish Pubean edan eta segidan bazkaldu Frankfurt saltxitxak garagardotegi alemanean. Arratsaldean erosketa batzuk bazar txinoan eta Schelckerren. Pakistango lokutoriora hurbildu nintzen telefonoz deitzera eta azkenik afaldu espagetiak pizzeria italiarrean. Ez dakit zergatik izango zen, baina etxera abiatu nintzenean sekulako gogoa neukan txakolin bat edateko.

Gainerakoan, dardarka hasteko Soziedad Alkoholika Aby-Kemekin eta Eric Clapton Belcebluesekin. Zorionak, bi taldeei.

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
MUJIKA BURDINDEGIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

**LANAK** > KULTURARAKO ERAIKINA

# Maiatzean bukatuko dute kulturarako eraikina eta kurtsoa bertan hasi gura dute

Lanak lau hilabete barru bukatuko dituzten arren, horren ostean hornitu egin behar dute altzari eta beharrezko ekipamenduarekin. Hain zuzen ere, lehiaketa bidez esleituko dute hori, eta baliteke lanok apur bat atzeratzea.




**KULTURARAKO ERAIKINA** Santa Kurtz kalean dagoen kulturarako eraikina aldamioak dituela jarrita. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Santa Kurtz kalea eta Herriko Plaza bitartean egiten dabiltzan kulturarako eraikina bukatzear dago. Martxo ingururako aurreikusita zeukaten bukaera lanok hasi zituztenean, baina 2007ko maiatza izango da.

**MAIATZERAKO BUKATUTA**

Lanok aurreikusitako moduan egiten dabil Brues y Fernandez eraikuntza enpresa. Hilabete pare bateko atzerapena izan dute maiatzean lehenengo solairuaren oinarria izan behar zuen hormigoizko plaka jausi zelako langileen aurrean; gainerakoan ez da aparteko ezustekorik izan lanetan. Hala, maiatzean bertan bukatuko dute eraikina egiten.

Eraikina bukatu bai, baina gelak zein aretoak hutsik geratuko dira. Hala, horniketa lanak egin beharko dituzte, hau da, altzariak eta gainerako ekipamenduak sartu. Horrek dirutza handia eskatzen du, eta udalbatzarrak oraindik onartu ez duen 2007ko aurrekontuan zehaztuko dute zenbatekoa. Gainera, zein enpresak hornitu lehiaketa bidez esleituko du Udalak.

Datorren irailean, bada, musika eskolak, gaztelekuak eta liburutegiak ikasturtea hasiko dute. Udalak gurako luke eraikin berrian hastea, eta horretan ahaleginduko da: "Otalora kalean dagoen musika eskolaren egoera larria da une honetan, eta lehenbailehen aldatu gurako genuke", adierazi digute Hirigintza Sailean. Hala ere, baliteke horniketa eta egokitze lan guztiak bukatu barik izatea irailerako, eta aldaketak poliki-poliki egitea Santa Kurtz kalera.

**BOST SOLAIRUTAN BANATUTA**

Alberto Sanz bilbotarrak egin zuen eraikinaren proiektua, eta ez dute inolako aldaketarik egin lanek aurrera egin ahala. 2.847 metro koadro ditu bost solairutan banatuta. Sotoan gaztelekua eta biltegiak daude. Gaztelekuak bi gela izango ditu, eta sototik beheko solairura igoko da. Hain zuzen, gaztelekuan moldaketa txiki bat egin dute: "Sukaldea eta bulegoa jarriko ditugu", azaldu du Hirigintzako arduradunak. Gaztelekuarekin batera, 96 jarleku inguruko erabilera askotariko aretoa eta erakusketak egiteko gela daude beheko solairuan. Liburutegia bigarren solairuan egokituko dute, eta banandutako bost gune izango ditu: harrera, nagusiendakoa, txikiendakoa, taldeko lanak egiteko lekua eta biltegia. Bigarren solairuan kultura etxeari egin diote lekua, eta hainbat gela izango ditu: nagusia, bilera gela eta beste bi txikiagoak. Bukatzeko, hirugarren solairuan musika eskola egongo da. Dantzarako erabiliko duten areto handia izango du, hainbat gela, idazkaritza eta biltegia. Haien gainean, ostera, musika tresnak jotzeko gelatxoak egokituko dituzte.

Eraikinak bi sarrera izango ditu: nagusia lehen bezala Herriko Plazakoa izango da, zuzenean erabilera askotariko gelara sartzeko; bigarrena, berriz, Santa Kurtz kalean egongo da gaztelekura sartzeko. Gainera, Herriko Plazatik eraikinaren atzeko aldean dagoen aparkalekura joateko pasabidea egingo dute.

## Lau hilabetean kenduko dute erreka osteko lur guztia

Deba erreka osteko etxebizitzen lanak aurrera doaz. Han dagoen lurra kentzen dabiltza, heren bat inguru kendu dute, eta hiru edo lau hilabetean guztia izango dute kenduta. Udalak, berriz, babes ofizialeko etxeak egiteko lurra saltzeko dei egin zuen, eta eskaera bat jaso du. Orain, Aldundiaren baimenaren zain dago esleitzeko.



M.A.

> BAKE EPAITEGIA

## Zorione Jausoro izango da bake epailea aurrerantzean

Orain arte Igor Bastardo izan da Aretxabaletako bake epailea. Urte eta erdi inguru egin du izendatu zutenetik, baina aurretik beste lau urtez egon zen. Baina bizilekua aldatu du oraintsu, eta ondorioz, utzi egin du kargua. Hala, Bastardoren ordezkoak hartu ditu orain bake epaile ardurak, Zorione Jausoro aretxabaletarrak, hain zuzen.

Eguazten eguerdietan izaten da udaletxean bake epailea, baina harekin berba egin gura izanez gero, aurrez hitzordua eskatzea komeni da. Udaletxera bertara deitu behar da horretarako.

**POLITIKA** > UDAL HAUTESKUNDEAK

# Alkatetzarako aukerak dituela uste du EA alderdiak

Lau hilabeteren ostean, batzarra egingo dute gaur EAJko kideekin, kontuak argitu eta aztertzeko

Gehiengo absolutoa ez, baina boto gehien lortuko dutela ziur daude, eta "alkatetzarako aukerak izan"




**EA TALDEA** Lore Martinez, Edorta Mendieta eta Andres Lezeta, Herriko Plazako egoitzan, martitzenean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Maiatzeko udal hauteskundeei begira izango duen jarreraren berri eman gura die Aretxabaletako EAk herritarrei. Bakarka aurkezteko erabakia batzar nagusian hartu arren, Udalean lau urtean izandako gorabeherek berretsi egiten dutela aipatu zuten.

**ALKATETZARAKO AUKERAK**
Azken udal hauteskundeetan EAJ-PNVrekin koalizioan aurkeztu zen, baina hainbat desadostasun tarteko, zerrendan ez zuen hautagairik izan EAk: "Koalizioak izandako ibilbidean ez zegoen inolako interesik jarduera integratua gauzatzeko", aipatu zuten. Horren adibide da bilera egiteko eskaera egindа zeukaten EAJ-PNVri, kudeaketaren balorazioa egin eta mahai gaineko kontuak aztertzeko datorren agintaldiari begira; eta lau hilabeteren ostean, egubakoitzean egingo dute, "argi utziz ez dutela azterketarako, eztabaidarako eta akordiorako borondaterik".

Bakarka aurkezteko erabakia hartu eta gero, 2007-2011 agintaldirako udal kudeaketa programa garatu dute: "Ziur gaudelako gutxiengo gehiengoa lor dezakegula eta alkatetzarako aukerak izan", argitu zuten. Hautagaien berri aurrerago emango dute, eta aipatu zuten proposamen abertzale eta zentro-ezkertiarraren balioa eskertuko dutela herritarrek. Gainera, badakite hauteskunde osteko akordioa beharko dela Udalean, "baina koaliziorako irizpideak eta bideak ondo zehaztu beharko dira, eta kudeaketa parte-hartzailea egin herritarren nahiak bideratzeko", adierazi zuten.

## Katea jarri zuten pankartarekin Lausittako zubian




XABI URTZELAI

Joan den martitzen ilunkaran katea jarri zuten Laussita kaleko zubian alde batetik bestera. Pankarta zeukan aipatutako kateak, *Iñaki askatu* zioen pankarta. Arrasatetik herrira datozen automobil guztiek zeharkatu behar dute zubia, eta ezin pasatu geratu ziren hainbat minutuan. Udaltzainek berehala kendu zituzten katea eta pankarta.

**OHITURA** > SANTA AGEDA MUTILAK

## 1988an jaiotako 40 bat mutil ibiliko dira Santa eskean

Domekan baserrietara joango dira eta astelehenean kalean entzungo ditugu

**M.A.** > ARETXABALETA
Otsailarekin batera hitzordu garrantzitsuak datoz, eta aurten 19 urte beteko dituzten mutilak hasita daude Santa Ageda eguneko usadioa gertatzen. Gabonetako oporrak bukatu orduko hasi ziren dantza entseguak egiten 1988an jaiotakoak, eta gaur, egubakoitza, entsegu nagusia izango dute txistulariekin, Iturrigorri frontoian.

**HIRU EGUN DANTZAN EGITEKO**
Domekan, Santa Ageda bezperan, baserrietara hurreratuko dira kantuan eta eskean, eta astelehenean herrian ikusiko ditugu. Gainera, 19:00etan, dantzan egingo dute Herriko Plazan; baita domekan, hilaren 11n, eta 18an, Aratuste-domekan.



TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34




*Loteria primitiboak eta kinielak*

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15
ARETXABALETA

**INGURUMENA** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# AHT Gelditu! Elkarlana sortu dute, eta argibideak emateko astea antolatu

Otsailaren 6tik 11ra bitartean berbaldiak, bideo emanaldiak eta irteera egingo dituzte; gainera, informaziogunea egongo da udaletxe zaharrean

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Abiadura Handiko Trenaren inguruan dagoen informaziorik eza eta iluntasuna salatu gura izan zituen herrian sortu den AHT Gelditu! Elkarlana taldeak, martitzenean. Horrez gain, gaiaren gaineko argibideak eman gura dizkiete herritarrei antolatu duten astean.

**EZTABAIDATU BARIK**

Arabako Luku herrian lanak hasita daudela aipatu zuten, nahiz eta oraindik gaiaren gaineko eztabaida sakonik ez den egin. "Eraikuntza faraonikoa da, txikizioa ekarriko duena, eta dirutza publikoa erabiliko dute horretarako", salatu zuten, eta "herrien kaltetan besterik ez da izango", gaineratu. Lanok geratu eta herritarren artean "zelako garraioa gura dugun" hausnarketa bultzatzea proposatu zuten.

**ARGIBIDEAK EMATEKO ASTEA**

Sortu duten taldeak zabala izan gura du, eta batzarretarako gonbidapena egin zieten herritarrei: eguenero, 20:00etan, udaletxe zaharrean. Bestalde, argibideak emateko astea antolatu dute *Herriak bizirik, amalurraren txikizioari stop!* leloarekin, eta erakusketa eta informaziogunea egongo dira udaletxe zaharrean. Hilaren 6an, martitzena, berbaldia egingo du AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kide batek, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Eguaztenean, 21:30ean, bideo emanaldiak egongo dira Orly, Urbaltz, Arlutz eta Azkena tabernetan. Eguenean, hilak 8, Vasco-Navarro trenaren gaineko berbaldia egingo du Iñaki Baronak, 19:00etan, udaletxe zaharrean, eta domekan, hilak 11, irteera egingo dute, Eskoriatzatik, AHTk kaltetuko dituen inguruetara.




AHT GELDITU! ELKARLANA Prentsaurrekoa egin zuen martitzenean udaletxe aurrean Aretxabaletan sortu den taldeak. M.A.

**EUSKARA** > BERTSO-ESKOLA

# Gaur, egubakoitza, hasiko da lanean bertso-eskola

Hala eta guztiz, izena emateko aukera daukate oraindik 8 eta 11 urte arteko gaztetxoek, Loramendira deituta

M.A.> ARETXABALETA

Bertso-eskola hasiko da lanean gaur arratsaldean, eta herriko gaztetxoak bertsolaritzara zaletzea izango du helburu egitasmoak.

**IZENA EMATEKO, LORAMENDIRA**

Iaz egindako moduan, aurten ere abian jartzera doaz bertso-eskola Loramendi Euskara Elkartearen laguntzarekin. Bertsolaritza gustuko duten 8 eta 11 urte arteko gaztetxoak elkartuko dira egubakoitzetan, 17:00etatik 18:00etara bitartean, udaletxe zaharrean. Eta Nerea Urra arrasatearra izango dute gidari bertsoen gaineko sekretu guztiak ikasteko. Gaur hasiko dituzte eskolak, baina oraindik izena emateko epea zabalik dago; Loramendi EEra deitu behar da lehenbailehen.

**IKASTAROAK AURRERA**

Bestalde, Loramendi EEk jakinarazi gura du masaje txinatarraren gaineko ikastaroa egiteko sortu dela taldetxoa, eta laster hasiko dituztela eskolak. Gogoratu astelehenetan izango direla, 18:00etatik 20:00etara bitartean, eta Maitena Arana arrasatearra izango dela irakaslea. Norbaitek interesa izanez gero, dei dezala lehenbailehen euskara elkartera.

**EGITARAUAN ALDAKETAK**

Loramendi EEk joan zen astean banatu zien bazkideei datozen hilabeteetarako hitzorduen egitaraua. Orain, baina, aldaketa batzuk egin dituzte: oraingo aste bukaeran ez da egongo makillaje ikastarorik, eta sagardotegira irteera martxoaren 3an izango da, eta ez otsailaren 10ean.

> PARROKIA

## San Blas eguna ospatzeko 10:30ean esango dute meza Apotzagaetxebarriko Salluenteko ermitan

Gaur, otsailak 2, Kandelaria eguna da, eta parrokian, 19:00etan, esango duten mezan kandelak bedeinkatuko dituzte. Bihar, ostera, San Blas eguna, herritar asko hurreratuko da Apotzagaetxebarri auzoko Salluente ermitara santuari bisita egitera. 10:30ean esango dute meza, eta jakiak bedeinkatuko dituzte ostean. Parrokian, 19:30ean, esango duten mezan ere bedeinkatuko dituzte.

> GAZTEAK

## Eskulanak, ikastaroak eta eskiatzera irteera egingo dituzte, otsailean, gaztelekuko kideek

Egitarau dotorea gertatu die Txatxilipurdik Atxagazte gaztelekuko kideei otsailerako. Oraingo aste bukaeran pinak egingo dituzte, eta hurrengoan, hilak 10, Aratusteetarako gertatzen hasiko dira: zelan margotu aurpegia eta zelan orraztu erakutsiko diete. Otsailaren 16an eta 17an, eskaiolazko maskarak egingo dituzte; eta hilaren 23 eta 24an, eskiatzera joango dira, Candanchura. Norbaitek interesa izanez gero, jo dezala gaztelekura argibide eske.

ZARAIA
taberna
Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95




KOOPERATIBA Oilategiak, pentsu lantegia eta oilaskoak hiltzeko eraikina bukatzen dabiltza. MUNDUKIDE

**HIRUATX** > EKUATORE GINEAKO PROIEKTUA

# Lagun bi joan dira Mitemeletera, oilategiak bukatu eta abian jartzera

Aretxabaletan bizi den Ibon Antero eta Aramaioko Alberto Iñurrietak hilabete eta erdi inguru egingo dute Ekuatore Ginean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Hiruatx elkarteak Ekuatore Gineako Mitemelete herrian abian jarritako proiektua bide onetik doa. Oilaskoak hazi eta saltzeko oilategiak egiten dabiltza, eta oraintsu bidalitako materialarekin aurrerapen handiak egin dituzte.

**KOOPERATIBA ABIAN JARTZEA**

Materiala bidali bakarrik ez, orain bi lagun joan dira Mitemeleteko herritarrei laguntzera. Urtarrilaren 24an atera ziren hemendik, eta hilabete eta erdi inguru egingo dute han.

Aramaion bizi den Alberto Iñurrieta soraluzetarrak eraikitzen dabiltzan guztia bukatu, eta abian jartzen lagunduko die: zortzi oilategi oilaskoendako, pentsua egiteko lantegia eta oilaskoak hiltzeko eraikina.

Azken urteotan Aretxabaletan bizi den Ibon Antero donostiarrak, ostera, kooperatiba kudeatuko duen lantaldea antolatzea eta trebatzea izango du helburu: gerentzia, administrazio, produkzio eta merkatari lanak zelan egin erakutsiko die, eta kooperatibaren izaera azaldu.

**BERRIAK MARTXOAN**

Edozelan ere, Mundukideko kide Iñurrieta eta Antero laguntzera joan dira, baina Hiruatxen helburua da Ekuatore Gineako bizilagunek eurek sortzea lanpostuak: "Izan ere, herri bakoitzaren garapenak bertakoen lana izan behar du", diote Hiruatxeko kideek. Proiektuarendako laguntza eman duten bazkide, kolaboratzaile zein herritarrek martxo inguruan jasoko dute Mitemeleten dauden laguntzaile bien berri.

**XAKEA** > ARLUTZ TALDEAK PARTIDA

## Bilboko Peña Rey Ardid hartuko du Arlutzek etxean, bihar, 16:00etan

Orain arte jokatutako partida guztietan eskuratu du punturen bat edo beste Arlutzek, eta gogotsu dabiltza kideak

**M.A.** > ARETXABALETA

Denboraldiari dagokion laugarren partida jokatuko du Arlutz xake taldeak. Bilboko Peña Rey Ardid izango du aurkari, eta 16:00etan hasiko da partida Iralabarri plazan duten txokoan.

**GROSEN AURKA 3-1**

Denboraldi gogorra aurreikusi zuten Arlutzeko kideek, ohorezko ligan jokatzen duten gainerako taldeak indartsu zetozelako. Gros taldea da horietako bat, eta aurreko zapatuan aurrez aurre izan zuten. Fran eta Andoni Miguel anaiek berdindu egin zituzten partidak, eta Aitor Alcaide eta Esteban Romerok galdu. "Bagenekien galdu egingo genuela, eta halaxe izan zen, 3-1. Hala ere, puntu bat lortu genuen, eta beheko mailara ez jaisteko lehian ibiliko garen taldeontzat benetan baliotsua izan daiteke hori", azaldu zigun Alcaidek. Hala, Arlutzek jokatutako partida guztietan eskuratu ditu puntuak orain artean, eta gogotsu dabiltza kideak.

Bihar aurrez aurre izango duen taldea ez da indartsuenetakoa: "Partida gogorra izango da, baina irabazteko aukera asko ditugula esango nuke", adierazi zigun Alcaidek.

> PILOTA

### Perez de Labeagak eta Uribarrenek eta Akizu eta Gardokik jokatuko dute gaur Iturrigorrin

Joan den aste bukaeran Udaberri pilota txapelketari dagozkion partiduetatik bakarra irabazi zuten herriko pilotariek: Perez de Labeaga eta Uribarren 22, Bergara 11. Gainerakoek galdu egin zuten: Akizu eta Gardoki 15, Arrasateko 22; Uriarte eta Oion 12, Lagunak 22; Lasagabaster eta Altzola 16, Arrasateko 22.

Oraingo aste bukaeran ere izango dituzte partiduak. Etxean jokatuko dute, gaur, 20:00etan: Perez de Labeagak eta Uribarrenek Antzuolako bikote baten aurka; eta Akizuk eta Gardokik tolosarren aurka. Lasagabaster eta Altzola Azpeitira joango dira, gaur, 19:00etan; eta Uriarte eta Oion, Zumarragara. Etxebarriak eta Mondragonek bihar daukate partidua, 12:15ean, Urretxun.

> ESKI IRTEERA

### Hilaren 10erako eta 11rako Luz Saint Sauveurrera eskiatzera joateko irteera antolatu du Murrukixok

Eski irteera antolatu du Murrukixo Mendizale Elkarteak Frantziako Luz Saint Sauveur inguruko pistetara. Hilaren 10ean joan eta 11n itzuliko dira, eta izena emateko Murrukixoko egoitzatik pasatu behar da martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara bitartean. Bazkideek 95 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek 100 euro; ikasleek 5 euro gutxiagoren truke izango dute. Prezio horretan sartzen dira autobusean joan-etorria; afaldu, lo egin, eta gosaria; eta segurudun forfaita.

Irteera ez da hasiberriendako, nahiz eta urtarrilean antolatutakoa bertan behera geratu zen elur gutxi zegoelako. Martxo ingururako zeharkaldiko eski irteera antolatuko dute, elurra badago.






GOIENKARIA
2007ko otsailaren 2a

**HIRIGINTZA** > IBARRAUNDI INGURUAREN URBANIZAZIOA

# Ibarraundi inguruko urbanizazio proiektua aldatu egin dute

Martitzenean, otsailaren 6an, egingo dute proiektuaren aldaketaren gaineko berbaldia Ibarraundi museoan. 18:30ean izango da



INGURUA OINEZKOENDAKO Argazkian Ibarraundi museoa eta inguruak. I.B.

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

San Pedro eta Ibarraundi museoaren arteko ingurunea urbanizatzeko proiektuak aldaketak izan ditu. Hala jakinarazi dute Udaleko ordezkariek.

Proiektua aspaldiko asmoa da. Hain zuzen ere, hasiera baten Eskoriatza Sustapenak enpresak egin behar zuen lan hori, baina Intxaurtxuetako etxebizitzak eta urbanizazioa egiten atzeratuta dabilenez, Udalak berak egitea erabaki zuen. Horren truke, Eskoriatza Sustapenak 300.120 euro ordainduko dizkio.

**OGI LABEA BABESTU**

Udalaren hasierako asmoa zen biblioteka ondotik Ibarraundi alboko zubiraino espaloia egitea. Horrez gain, zubitik San Pedro kaleko 6. zenbakiaren atzealderaino beste espaloi bat egin gura zuten. Eta bukatzeko, asmoa zen San Pedro kaleko 9. zenbakitik Ibarraundiko zubiraino errepidea egitea.

**DATORREN ASTEAN BERBALDIA**

Baina Udala konturatu da errepidea Ibarraundi alboan eginez gero, museoaren alboan dagoen ogi labea galdu egingo dela. Hortaz, erabaki du errepidea Ibarraundi atzetik egitea, eta Donostiako Eduardo Satrustegi ingeniaria dabil behin betiko proiektua egiten; 15 egunean bukatuko du. Martitzenean berbaldia egingo dute Ibarraundin, 18:30ean.

**KULTURA** > AITZORROTZEN HILEKO EGITARAUA

# Irlandako folkarekin hasiko da egitaraua

Folk kontzertua, antzerkia, aurkezpen-berbaldia, erakusketa eta beste egingo ditu Aitzorrotz elkarteak otsailean

**I.B.**> ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak ezagutzera eman du otsailerako antolatu duen programa. Mota askotako kultura ekintzak eramango dituzte herrira.

Bihar, zapatua, egingo dute hileko ekitaldi berezienetako bat, Inkernu tabernan, 22:30ean. Brendan *Bik* McFarlane eta Terry O'Neill musikariek Irlandako folk musikan oinarritutako kontzertua egingo dute.

Bi musikariak Irlandako Tuan taldeko kideak dira, eta McFarlane oso ezaguna da duen ibilbide politikoagatik.

**IRLANDAKO GATAZKA HITZETAN**

McFarlane IRAko kide izan zen, eta 1981ean Irlandako erakunde armatuko presoek espetxeetan egin zuten gose greban esku hartu zuen. Hain zuzen ere, Bobby Sands-en alboan izan zen Long Kesh espetxean, eta H blokeetako komandante izendatu zuten.

Sandsen eta IRAko beste bederatzi presoren heriotzek gogor eragin zuten McFarlanengan. Hala, haien omenezko *Song for Marcella* abestia idatzi zuen, nazioartean oso ezaguna dena.

McFarlane oso ezaguna egin zen, baita ere, 1983an Maze espetxetik IRAko 33 presoren ihesaldia antolatu zuelako. Istorio hori *Maze* izeneko filmean kontatu zuten, eta McFarlanek berak aktore lanak egin zituen film hartan.

Gaur egun McFarlane aske dago eta Sinn Fein alderdiko kide da. Ahal duen guztietan kontzertuak egiten ditu Terry O'Neillekin batera.

**AHOTSAK-EN BERBALDIA**

Bestalde, hilaren 14an, eguaztena, Ahotsak taldeko kideek *Emakumeak batzen gaituenetik* izenburupean berbaldia egingo dute Ibarraundi museoan, 19:00etan. Hala, elkarrizketaren eta konponbidearen aldeko emakumeek ekimena azalduko diete eskoriatzarrei.

**OIHULARI KLOWN-EN ANTZEZLANA**

Hilabetea bukatzeko, bi ikuskizun egingo dituzte Inkernun: hilaren 23an Oihulari Klownek *La espera* antzezlana egingo du; eta 24an Kuk taldeak kontzertu akustikoa egingo du.

Erakusketei dagokienez, hilaren 5etik 28ra herriko Amuska emakumezkoen elkartearen gainekoa egingo dute. Taldearen sorrera, ibilbidea, helburuak eta ekintzak azalduko dizute argazkien bidez.

**TRADIZIOA** > KINTOAK SANTA AGEDAN

# Neskak ere irtengo dira kintoetan

Astelehenean eta hilaren 11n dantza egingo dute; eta asteburuan Santa Ageda koplak abestuko dituzte

**I.B.** > ESKORIATZA

Etzi, domeka, herriko kintoak Santa Ageda eguneko koplak abesten ibiliko dira baserriz baserri. Hala, euskal tradizioari eutsiko diote, aspaldiko kantuen eta ohituren bitartez. Horren ostean, batutako janari eta diruarekin merienda egingo dute Herriko elkarte baten.

Etzidamu, astelehena, berriz, herrigunean ibiliko dira koplak abesten; eta iluntzean, 19:00etan, dantza egingo dute Herriko Plazan. Hori izango da proba garrantzitsuena. Hala ere, hori ez da aurten dantza egingo duten egun bakarra izango, hilaren 11n beste hitzordu bat dute-eta.

**ASPALDITIK ENTSEATZEN**

Aurten, herriko kintoak 20 neska-mutiko izango dira. Eta, hain zuzen ere, lehenengo aldia da neskak ere kintoetan irteten direla.

Bestalde, kintoek aste batzuk daramate kultura etxeko lokaletan entseatzen. Hain zuzen ere, birritan, astelehenean eta hilaren 11n herri guztiaren aurrean dantza egin beharko dute Herriko Plazan.

Bi aurrelarik eta atzelarik desafioa egin beharko dute; eta gero, guztiek batera.




IKER BARANDIARAN

## TESAk Europa mailako diseinu sari bat jaso du

Talleres de Eskoriatza TESA enpresak sari garrantzitsua eskuratu du IF Design Award lehiaketako antolatzaileen eskutik. Europako lehiaketa horren arduradunek nabarmendu dute TESAk egindako izuaren kontrako ebakuazio sistema bat datorrela gaur egungo tendentzia arkitektonikoekin, eta horregatik saritu dutela. Izuaren kontrako ebakuazio sistema horiek TESAk Eskoriatzan duen plantan egin dituzte. Sari banaketa martxoan egingo dute Hannover hirian (Alemania).



**OROIMEN TAILERRA** Argazkian, egoitzan bizi diren hainbat lagun irakaslearekin oroimena lantzen. IKER BARANDIARAN

**ONGIZATEA** > 32 LAGUN BIZI DIRA EGOITZAN

# Herriko zaharren egoitza berritzea aztertzen dabiltza

Egoitza bi erakinetan banatuta dago: berria eta zaharra; bietan daude logelak eta zerbitzuak

Egoitza zerbitzuaz gain, Aita Mennik eguneko zentro zerbitzua kudeatzen du eraikin berean

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Herriko zaharren egoitzan egon gara asteon, hango egoiliarrak bisitatzen. 32 lagunendako lekua du egoitzak, eta beteta dago, jakina. Aspaldian eskaera handia dago pertsona nagusiak egoitzetara eramateko, eta Eskoriatzan ere gauza bera gertatzen da.

Egoitza bi zatitan banatuta dago: eraikin berria eta eraikin zaharra. Berrian 12 egoiliar bizi dira eta zaharrean 20.

Zaharren egoitzan bizi ahal izateko ezinbestekoa da 60 urte baino gehiago izatea. Hala ere, askoz nagusiagoak ere badaude, jakina: zaharrenak 99 urte ditu, hain zuzen ere.

**PREMIA ETA ZERBITZU HANDIAGOA**

Herriko zaharren egoitzak hainbat etapa bizi izan ditu. Horietatik azkenetako bat 1985etik 1998 bitartekoa izan zen. Tarte hartan egoitzak hotel baten antzera funtzionatzen zuen; hau da, egoiliarrak fisikoki eta psikikoki ondo zeuden, baina bakarrik ez egoteko egoitzan bizi ziren.

Gerora, poliki-poliki gizarteko aldaketek bestelako zerbitzuak ematera eragin zituzten. Hain zuzen ere, dagoeneko emakumezkoek ez dute adindunak zaintzeko ardura osoa hartu gura; bizi-itxaropena luzeagoa da, eta, hala ere, horrek ez du bizi-kalitatea askorik hobetzen.

**BEHARRETARA EGOKITU**

Horrek guztiak, batez ere, zaharrenen bizi-kalitatea eskasagoa izateak egoitzetan bestelako zerbitzuak ematera behartu ditu. Aldundiak berak egoitzetako arduradunei eskatu die zailtasun fisikoak edo psikikoak dituztenei lehentasuna emateko. Hau da, motaren bateko mendekotasuna dutenei batez ere. Horren ondorioz, itxaron-zerrenda are eta handiagoa dago halako egoitza gehienetan, baita Eskoriatzako horretan ere.

**EGUNEKO ZENTROA**

Hala, zaharren egoitzan psikogeriatria zerbitzua eta Aita Mennik kudeatzen duen eguneko zentroa ere badituzte. Are gehiago, oroimena eta burmuinaren erabilera indartzeko hainbat tailer eta ariketa egiten dituzte egoitzan bertan. Horrekin batera, egoiliar horren neurrian ariketa fisikoa ere egiten dute.

Egoitzaren izen ofiziala Mesedeetako Amaren ospitale-babes etxea da eta fundazio pribatu batek dauka horren ardura, baina horren gainean patronatu bat dago. Patronatua alkateak, parrokoak eta herriko beste ordezkari batzuek osatzen dute.

Orain, patronatuaren helburua da egoitzako eraikin zaharra ahal den neurrian eraberritzea eta, denboraz, berriaren parera egokitzea, nahiz eta une honetan biak erabiltzen dituzten, zaharra eta berria. Horretarako, Aldundiaren laguntza beharko dute, azken horrek dauka-eta halako zerbitzuen ardura nagusiena.

FILANTROPOAK ETA GIZARTE ZERBITZUAK

## Eten bako 190 urte babes-etxe eta ospitale zerbitzua ematen

Aspaldikoa da babes-etxe, ospitale eta egoitzen tradizioa herrian. Hori herriko filantropoei zor diote eskoriatzarrek. 1814an Mendia izeneko eskoriatzar batek diru kopuru zehatz bat utzi zuen babes-etxe bat zabaltzeko; eta hala egin zuten 1817an. Behartsuei jaten ematen zieten han. Haren ostean, 1920an, Celestino Aranburuzabalak 100.000 pezeta utzi zituen behartsuen ospitalerako. Azkenik, 7 urte geroago, Jose Aranak ur-biltegia, eskola eta babes-etxea jarri zituen. Hala, 1915ean zabaldu zuten egun ezagutzen dugun egoitza. Ordutik aurrera mojek hartu zuten haren ardura.

Ordutik gaur egunera arte hainbat fase bizi izan ditu: 1915etik 1936ra behartsuendako babes-etxea izan zen; 1936tik 1948ra umeei eskolak emateko baliatu zuten, mojek dirurik ez zutelako; 1948tik 1984ra adingabekoak babesteko zentroa izan zen; eta handik aurrera, zaharren egoitza.

> KIROLA

### Areto futboleko hainbat norgehiagoka

Asteburuan areto futboleko hainbat norgehiagoka egingo dituzte herriko kiroldegian. Zaleek herrian ikusi ahal izango dituzte partiduak.

Bihar, zapatua, ohorezko ligako taldea UPV Campus de Alava taldearen kontra lehiatuko da, 16:00etan.

18:00etan, berriz, euskal ligako taldeak Lagun Onak taldea izango du aurkari.

Kirol hitzorduekin bukatzeko, etzi, domeka, liga nazionaleko gazte mailako taldeak Berrio-Otxoaren kontra lehiatu beharko du.

> ZINEMA

### Etzi, domeka, 'Pipi Galtzaluze' filma emango dute

Etzi, domeka, *Pipi Galtzaluze* filma emango dute Ibarraundi museoan, 17:30ean. Ume eta gaztetxoei zuzenduta dago eta euskaraz emango dute. Emanaldiak 80 minutu iraungo du eta sarreran euro bat ordaindu beharko da.

Pipi Galtzaluze tximino eta zaldi batekin bizi da. Lagunek Pipi zoragarria dela uste dute; baina herriko gizon-emakume aspergarriek ez dute horrekin bat egiten eta umezurtz-etxe batera bidali gura dute.

> IKASTAROAK

### Amuskaren eskulanen ikastaroa otsailean hasiko dute

Amuska emakumeen elkarteak eskulanen ikastaroa egingo du otsailetik aurrera kultura etxean.

Horretarako izena emateko aukera izango da astelehenean eta martitzenean, hilaren 5ean eta 6an. 18:00etatik 19:00etatik bitartean egongo dira Amuskakoak kultura etxean.

Eskulanen artean pintura, olioa, larrua, ehoziriak (bolilloak) eta bestelako lanaintzak emango dituzte.

AZKOAGA
ESTANKOA
943 71 48 77
Zure Zerbitzura

Villar
Ile apaindegia
Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

> KORRIKA
### Gaur, egubakoitza, Korrika antolatzeko batzarra

Martxoaren 25ean, domeka, 06:30ak aldera pasatuko da aurtengo Korrika Antzuolatik. AEK-k antolatzen du ekitaldi hori, baina herriz herri ere taldeak osatzen dituzte, antolaketan laguntzeko. Hain zuzen ere, gaur, egubakoitza, 19:15ean, batzarra egingo dute, Olaranen.

> UMEAK
### Pello Añorga ipuin kontalariaren emanaldia bihar

Bihar, zapatua, Pello Añorga ipuin kontalaria izango dugu. Udal Liburutegian izango da emanaldia, 18:00etan. 1,5 euro izango da sarrera.

Oiartzuarra da Pello Añorga; irakasle ibili zen, baina ipuin kontalaritzan murgildu zen buru-belarri orain dela urte batzuk.

> KZGUNEA
### Otsailean zehar hainbat ikastaro KZgunean

Eguenean, hilak 8, *Kontsumitzailea sarean* izeneko ikastaroa egongo da KZgunean (10:00-12:00). Hilaren 14an, bidaiarien eskubideen gainekoa, (16:00-18:00). Hilaren 20an, etxebizitzaren erosketaren gainekoa (10:00-12:00) eta 27an elikadura segurtasunaren gainekoa (10:00-12:00).

> SAHARA
### Azken urtetan baino %50 bat gehiago batu dute Sahararako

Anelkarreko arduradunek jakinarazi digutenez, 510 bat kilo material batu dute Sahararara bidaltzeko. 48 kilo atun, 208 kilo dilista, 252 kilo arroz eta 231 kaxa konpresa batu dituzte. Aurreko urteetako datuekin konparatuz, %50 bat gehiago material batu dute.

**Maite Asensio** > Hezitzailea

# "Euskaraz jolasten badira, elkarren arteko harremanak euskaraz sortuko dituzte"

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

**Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Pausokak antolatuta, euskal kantu eta jolasen ikastaroa izango dugu otsailean eta martxoan. Urtxintxa aisialdi eskolakoek eskainiko dute ikastaro hori, eta Maite Asensio irakasleetako batekin berba egin dugu horren gainean.**



Maite Asensio, Urtxintxa eskolako hezitzailea. URTXINTXA

**Zelako kantuak eta jolasak ikasi ahal izango ditugu?**

Urtxintxak badauzka bi CD-ROM euskal kantu-jolasekin, eta handik aukeraketa egingo dugu. Denetarikoak ikasteko aukera egongo da: soka-saltoan edo goma jolasean abestekoak, korroan abestekoak... Asko izaten dira talde handietan egitekoak, etxean lasaiago abestekoak ere ikasiko ditugu...

**Galtzen joan dira kantuok?**

Herri txikietan gehiago mantentzen da umeak kalean jolasteko ohitura, baina, hirietan, batez ere, umeak ez dira kalera irteten, etxean geratzen dira. Irteten badira, gainera, gurasoekin parkera joaten dira, eta kito. Horrela, asko ari da galtzen umeak kalean jolas egiteko ohitura. Orain dela hamar urte hasi ginen gu ikastaro horiekin, eta oraindik hementxe jarraitzen dugu. Hori da, beharra dagoelako.

**Ze garrantzi dute horrelako jolasek?**

Batetik, umearen garapenean eragiten dute. Bestalde, umeak elkarrekin euskaraz jolasten badira, elkarren arteko harremanak euskaraz sortuko dituzte.

**JAIAK** > SANTA AGEDA ESKEAN IRTENGO DIRA GAZTEAK ETA ABESBATZAKOAK

## San Blas jaiak ospatuko dituzte Basalde auzoan eta Santa Ageda jaiak Galartzan

Aurten 18 urte beteko dituzten 15 kinto ibiliko dira Santa eskean; baita Antzuolako abesbatzakoak ere

**A. I.** > ANTZUOLA

Basalde auzoan San Blas jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Bihar, zapatua, 12:00etan, meza nagusia izango dute San Blas ermitan. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute bertan elkartzen direnen artean. Trikitilariek ere jardungo dute.

**SANTA AGEDA**

Domekan, bestalde, hilak 4, Santa Ageda bezperan, hainbat ospakizun egingo dituzte.

Batetik, Santa eskean irtengo dira herriko kintoak (neskak ere bai) eta Antzuolako abesbatzakoak. Aurtengo kintoak, guztira, neska eta mutil, 15 gazte dira, aurten 18 urte beteko dituztenak. Goizean goiz irtengo dira kantura; goizez, baserririk baserri ibiliko dira. Arratsaldean, berriz, kalean ibiliko dira Santa eskean.

Bestalde, Galartza auzoan Santa Ageda jaiak ospatuko dituzte. Domekan, 11:45ean jaien hasiera iragarriko dute kanpai hotsekin. 12:45ean, Ageda Deunaren baselizan, meza egingo dute. Ondoren, salda, ardoa eta pintxoak banatuko dituzte bertara joaten direnen artean. Galartzan ere trikitilariek jardungo dute jaiari musika jartzen.

bere ustez



Mikel Larrea

## Aurrera egiteko atzera begiratu

Atzera begiratzeko ordua da, baina etorkizunaren erreferentzia galdu gabe. Azken urte hauetan zer egin dugun eta zer egitea nahi dugun hausnartu; hainbat arlotara eraman dezakegu hausnarketa hori, eta nik, orokorrean, Antzuolaren ibilbideari aplikatu nahi diot.

Herri baten garapenean hainbat egoerak izaten du eragina: uholdea arazo sozialak sortzeko detonantea izan daiteke; herriko semeak espetxeratzeak tentsio politikoak eragiten ditu; arazo urbanistikoak familien arteko eztabaidak pizten ditu; Espainiako gobernuaren arauek Udala osatu gabe uzten dute.

**"Atzera begiratu eta urruti geratzen zait kontsentsoaren irudia, denok bat ginenekoa"**

Arazook konpontzea udal agintariei dagokie neurri handi baten, baina herritarrek ere gainditzeko gaitasuna erakustea ezinbestekoa da.

Atzera begiratu eta urruti geratzen zait kontsentsoaren irudia, denok bat ginenekoa. Aurrera begiratzerakoan gerturatzen ikusten dut egoera hura. Hori lortzeko denon partaidetza behar da. Ausartak izan behar gara herriaren antolaketan gure ekarpenak egiteko, kirol edo kultur elkarteetan parte hartuz, gure semealaben heziketan lagunduz, edota zergatik ez, Udal gestioan norberaren ikuspuntuak azalduz zinegotzi erara.

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

**HAURTZAINDEGIA** > SEI UME ZEUDEN HAURTZAINDEGIAN ETA OTSAILEKO IZENEMATE EPEAN BESTE BOSTEK EMAN DUTE IZENA

# Haurtzaindegiak arrakasta izan du herrian: 11 ume daude izena emanda

Hiru ikasturte nahikoa izan dira herriko haurtzaindegia betetzeko eta, horretaz, zerbitzua herrian beharrezkoa dela ikusteko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Egun sei ume zaintzen dituzte Elgetako haurtzaindegian Laura Martinek eta Elbira Gonzalezek. Otsailetik aurrera, ordea, kopuru hori ia bikoiztu egingo da. Otsaileko matrikulazio epean beste bost eskaera jaso dituzteeta. Guztiak onartuak izango direlakoan daude.

Duela hiru urte zabaldu zuten haurtzaindegiak. Zalantza handiak izan ziren zerbitzu berriaren aldeko apustua egin ala ez. Orain, argi gelditzen da Elgetan haurtzaindegia beharrezkoa dela.



**LASTER GEHIAGO** Martin eta Gonzalezek sei ume zaintzen dituzte haurtzaindegian. Laster ia bikoitza izango dira. L.Z.

**HAMAR UMETIK GORA**

Haurtzaindegia herri eskolako gela batean dago gaur egun. Zabaldu zenean adostu zen gehienez hamar ume hartuko zirela bertan. Dagoeneko gainditu egin da kopuru hori, baina ume bakar bat gehiago izanik, egungo lokalean aurrera jarraitzea erabaki da. Otsailetik aurrera, beraz, ume gehiago izango dituzte zaintzapean Martin eta Gonzalezek.

**ALDAKETAK LASTER**

Zaindu beharreko ume kopurua ia bikoitza izanik, laguntzaile bat gehiago eskatuko dute Martin eta Gonzalezek: "Guztiak goizez etorriko dira eta errefortzu moduan beste pertsona bat beharko dugu, lanaldi erdian besterik ez bada", esan diote GOIENKARIAri.

Udalaren asmoa da etorkizunean haurtzaindegia egun eraikitzen ari diren Torrealdeko babes ofizialeko etxebizitzen azpira eramatea. Gela handiago eta erosoagora. Patxi Basauri alkateak kalkulatzen du abendu amaiera ingururako amaituta egongo direla etxe horiek. Orduan hasi beharko dute, beraz, haurtzaindegi berriaren proiektuarekin.

Laster, beraz, Elgetako haurtzaindegiko sei umeek lagun gehiago izango dituzte jolasean egiteko. Haurtzaindegiaren arrakasta ikusita, pozik egoteko moduan daude duela hiru urte proiektu horren alde hain lan handia egin zuten guztiak.

## Suhiltzaileak teilatuetako elurra kentzen

Martitzenean hartutako irudia da. Elur asko pilatu da teilatuetan eta jausten hasi denean ezuste bat baino gehiago eragin ditu herrian. Auto batek kalteak izan zituen. Aparkatuta zegoen lekura elurra jausi eta kristalak apurtuta amaitu zuen. Auzokoren batzuek abisua emanda, Udalak neurriak hartzea erabaki zuen. Arrisku lekuetan hesiak jartzea, Berraondokoan zeuden autoak kentzea eta suhiltzaileei deitzea erabaki zuten.




L.Z.

> IZENEMATE EPEA ZABALIK

### Munduko dantzen gaineko ikastaroa egingo dute kiroldegian

Otsailaren 11tik martxoaren 11ra, kiroldegian, biribilean dantzatzen diren Grezia, Bretainia, Alemania eta Turkiako dantzak irakatsiko ditu Patxi Monterok.

Saioak domeketan egingo dira, 17:30etik 20:00etara eta ikastaroak 20 euro balio du. Izena emateko 626-78 33 67 telefono zenbakira deitu behar da.

> PERTSONAL BILA

### Kaleak garbitu eta gatza botatzeko langile bila dabil Udala

Berriz elurtea izanez gero, Udalak jendea behar du kaleak garbitu eta gatza botatzeko. Lan hori egiteko prest dagoenak udaletxean eman behar du izena.

Elurte egun hauetan brigadako lau langileak lanez lepo ibili direla-eta, Udalak kaleak garbitzeko pertsona gehiago hartzeko erabakia hartu du.

> FUTBOLA

### Zapatuan jokatuko du Elgetako taldeak Antzuolan, 16:30ean

Aurreko asteburuan jokatu ez zuen norgehiagoka bihar, zapatua, jokatuko du Elgetako futbol taldeak. Txapelketa erregularreko azken partidua da eta Antzuola liderraren zelaian jokatuko dute elgetarrek, 16:30ean.

Porra banatu gabe geratu zen aurreko astean, eta partidu horren emaitzarekin erabakiko da.

**DEIALDIA** > ENTSEGUA KIROLDEGIAN GAUR 20:30EAN

## Domekan, Santa Agedako koplak

Maala Guraso Elkarteak koplak kantatzeko gonbita egin die parrokiako koroari, gaztetxeari eta herritar guztiei

**LZ.** > ELGETA

Maala Guraso Elkarteak Santa Agedako koplak kantatzeko gonbita egin du aurten. Deialdi zuzena egin diete parrokiako koroari, gaztetxeko kideei eta Musika Eskolako ikasleei. Baina, noski, elgetar guztiak ere ekintza horretan parte hartzera gonbidatuta daude.

Aurten Santa Ageda bezpera jaieguna izanik ez du ekitaldia eskolak antolatuko. Ohitura mantentze aldera, beraz, Maala Guraso Elkarteak hartu du lekukoa.

Domekan irtengo dira koplak kantatzera. 18:15ean egin dute batzeko hitzordua Herriko Plazan. Irteera 18:30ean egingo dute eta herriko kaleetan barrena ibiliko dira Santa Agedako koplak abesten.

**GAUR ENTSEGUA 20:30EAN**

Domekan guztia ondo atera dadin, Maala Guraso Elkarteak entsegua egingo du gaur arratsaldean Elgetako kiroldegian. Hitzordua 20:30ean da.

Domekan baserritar jantzita irtengo da taldea abestera. Trikitixa eta guzti ateratzeko asmoa dute antolatzaileek. Kantatuko diren koplak urtero eskolako umeek kantatzen dituztenak izango dira.

"Gure asmoa da ekintza herriko eragile guztiei irekitzea. Eskola umeen kontua izan dena aurten herri guztiari zabaltzea", esan digute Guraso Elkartetik. "Nahiko genuke ekintza polita ateratzea".

**EZ DA ZINEMA SAIORIK EGONGO**

Umeak Santa Agedako koplak abestera irtengo direnez domekan, hilaren 4an, ez da haurrendako zinema saiorik egongo. Bertan behera gelditzen da, beraz, Espaloia Kafe Antzokian egitekoa zen *El Planeta del Tesoro* filmaren proiekzioa.

Hurrengo zinema emanaldia otsailaren 11n izango da. *Bambi II* filma eskainiko dute orduan.

UDALA

## Oraingo astean egin dute osoko bilkura

Joan den astean egitea egokitzen zen, baina atzeratu egin behar izan zuten

U.M. > ARAMAIO

Urtarrilari dagokion osoko bilkura egin du udalbatzarrak oraingo asteko eguaztenean. Atzerapenarekin egin dute; izan ere, berez, joan den eguaztenean egitea zegokion. Baina eguraldiak oztopatu egin zuen eta herenegun egin zuten batzar hori.

Gai zerrendan aurreikusitakoen artean, kiroldegiarekin eta kultura etxearekin lotutako gai bat landu zuten zinegotziek. Izan ere, bi zerbitzuon kudeaketa zeini esleitu erabaki behar zuten. Hain zuzen ere, datozen bi urteotarako kudeaketa zeinek egingo duen.

Udaletxeko obrak ere berbagai izan zituzten, jakinarazi zutelako eraikinaren teilatua konpontzeko lanak bukatu dituztela.

**BIRLANDAKETA**

Eta aurreikusita zituzten beste pare bat gai aipatzearren, haur eskola berriaren garbiketa lanak esleitzeko baldintzen orria onartzea aztertu zuen udalbatzarrak. Eta baita ere lehiaketa deitzea San Adrian eta Durakogain mendietan birlandaketa egiteko. Hain zuzen ere, lan horiek egiteko partida garrantzitsua gorde du Udalak: Mendi Sailak 2007rako dituen 82.815,76 euroetatik 53.315 euro horretarako erabiliko dituzte.

Horiek, bada, aurreikusitako gaiak. Edozelan ere, ez dugu zinegotziek hartutako erabakien berririk, albistea idaztean batzarra oraindik egin barik zegoen-eta.

**LAGUN ARTEAN DANTZA TALDEA**

Bestalde, Udaleko kontuekin segituz, herriko erakunde nagusiak gutuna bidali die Lagun Artean dantza taldean lehenago ibilitakoei.

Hain zuzen ere, datorren apirilaren 21ean herriko dantza taldearen 50. urteurrena ospatzeko asmoa dutela-eta, taldean ibilitakoak gonbidatu nahi ditu Udalak ekitaldian parte hartzera. Hala, egingo dituzten dantzak entseatzeko egunak zehaztu ditu: gizonezkoendako, martitzenetan eta eguenetan, 20:00etan. Eta emakumezkoendako eguenetan, 20:00etan. Bi kasuetan entseguak eskolako kiroldegian egingo dituzte.



**IRAKASLEAK** Mertxe Mondragon alkatea (eskuman), Maika Martinez arrasatearra eta Esti Etxebarria bizkaitarra (ezkerrean). U.M.

**HEZKUNTZA** > HAUR ESKOLA BERRIA

# Haur eskola astelehenean inauguratuko dute

11:00etan inauguratuko dute; Jaurlaritza, eskola eta Udaleko ordezkariak izango dira, besteak beste

UBANE MADERA > ARAMAIO

Oraingo astean sartu dituzte altzariak Masusta haur eskolan.

Oraingo astean, baita ere, ibili dira gurasoekin antolatzen ume txikiendako eskolak izango duen funtzionamendua. Eta oraingo astean izan dira irakasle berriak lanlekua ezagutu eta egokitzen.

**INAUGURAZIO EKITALDIA**

Hori egin eta gero, astelehenean, hilaren 5ean, zabalduko dituzte eraikin berriko ateak. Eta ez bakarrik inaugurazio ekitaldirako, astelehenean bertan hasiko da-eta zerbitzua ematen.

Inaugurazioari dagokionez, 11:00etarako egin dute hitzordua. Ekitaldira gonbidatu dituzte Jaurlaritzako, haur eskolen partzuergoko eta Udaleko ordezkariak. Baita ere haur eskolara joango diren neska-mutikoen gurasoak, eskolako ordezkariak eta gurasoen elkartekoak. Halakoetan ohikoa den zinta moztuko dute ordezkariek, luntxa emango dute eta eraikin berria erakutsiko dute.

**GEHIAGORENDAKO LEKUA DAGO**

Oraingoz, bederatzi umek eman dute izena. Edozelan ere, alkateak esan digu oraindik badela gehiagorendako lekua.

Urte osoan emango du zerbitzua: 0 eta 2 urte arteko umeendako eskola publikoa. Hain justu, abuztuan bakarrik itxiko dute.

Irakasleei dagokienez, bi dira: Maika Martinez arrasatearra eta Esti Etxebarria areatzarra (Bizkaia).

Eraikinak hiru gela ditu; horietako bi elkarren artean komunikatzen direnak. Bulegoa eta terraza ere baditu. Urdin kolorea erabili dute dekoratzeko,San Martin Eskolan moduan.

## 'Aramaio, lehen, orain eta gero' lelopeko astea

Aste kulturala egitea ohitura bihurtu da herri eskolan. Aurreko urteetan antzinako sukaldea, artzaintza edota egurraren ingurukoak jorratu dituzte, eta aurten *Aramaio, lehen, orain eta gero* gai monografikoa lantzen ibili dira. Besteak beste, Floren Untzuetak organo kontzertua jo zuen martitzenean, eta eguenean ogia egin zuten. Argazkian azaltzen den erakusketa ere ipini dute ikasleek, liburutegian.



GOIATZ ARANA

> KULTURA

### Bizente Goikoetxea bihar aterako da, Santa Ageda eskean

Santa Agedaren bueltan gaur, barikua, atera behar zuten eskolako neska-mutikoek auzoz auzo eskean.

Eta bihar, berriz, Bizente Goikoetxea abesbatzakoen txanda da. 14:00etan aterako dira haiek plazatik. Honako ibilbidea egingo dute: plaza, Eguzkierripa, Arraga, Zalgo, Errotabarri eta atzera ere kalera. Iluntzera arte jardungo dute kantuan; gero, afaria egingo dute. Kalkulatzen dute 20 lagun inguruk parte hartuko dutela ekimenean.

Batutako diruari dagokionez, berriz, bestelako urteetan moduan, erdia Caritas-i emango diote eta beste erdia abesbatzaren beharretarako erabiliko dute.

> KIROLA

### Otsailerako eskiatzera joateko irteera antolatu dute

Elurra etorri ahala, Orixol Mendi Elkarteak iragarri du eskiatzera joateko irteera antolatuko duela.

Otsailaren 24an eta 25ean joango dira. Lekua erabakitzeke dute: Luz Ardiden, La Mongie, Cauterets… elurraren arabera erabakiko dute nora joan. Hain zuzen ere, otsailaren 24an aterako dira autobus geltokitik, 04:30ean.

Txangorako izena emateko azkeneko eguna da otsailaren 15a. Bazkideek 110 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, berriz, 120 euro. Prezio horren barruan honakoa dago sartuta: autobusa, lo egitea, zapatuko afaria, domekako gosaria eta forfaita. Bazkaria norberak berea eraman beharko du.

> GAZTEAK

### Olioa batzeko txabolan daude orain gazteak

Joan den asteburuan kendu zuten kiroldegiaren aterpean *eraikitako* txabola, herriko zenbait gaztek asteotan erabili duten bera.

Gazte horiek erabaki dute txabola handik kentzea, euren esanetan, eguraldiarengandik (hotzarengandik, batez ere) hobeto babestuta daude-eta orain aukeratu duten lekuan.

Hain zuzen ere, etxean erabilitako olioa batzeko Udalak erabiltzen duen txabolan sartu dira. Hara eraman dituzte kiroldegipeko txabolan zituzten jarleku eta bestelakoak eta hantxe daude orain, "kalean baino hobeto", diotenez.

**ABELTZAINTZA** > SAN JUAN ZAHAR BASERRIA

# "Abereek asko lotzen dute, baina ez ditugu kendu gura"

Urtarrilaren 15ean txerria hil zuten, eta sukaldean dituzte txorizoak lehortzen

Jende asko pasatzen da baserri aurretik mendira, batez ere perretxiko sasoian



ABEREAK Pantxi Ibartzabal aurrean eta Marilu Ibartzabal atzean ukuiluan dituzten behien inguruan. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > GATZAGA

Halamoduz irits zitekeen astelehenean San Juan Zahar baserrira. Izan ere, elur dezente zegoen, eta izotzak gogortuta, gainera: "Elurra egin egin du, baina ez da hainbeste geratu –40 zentimetro inguru– haizerik ibili ez delako", argitu digu Pantxi Ibartzabalek. Marilu eta Pantxi Ibartzabal ahizpak bizi dira San Juan Zaharren. "Elurrarekin ez gara beldurtzen, gure beldurra zuhaitzen bat jausi eta argindar barik geratuko ote garen da", gaineratu du.

**ABEREEKIN LANEAN**

Txorizoz beteta daukate sukaldea, sabaitik behera txorizoak eta txorizoak: "Txerri bi genituen eta urtarrilaren 15ean hil genuen bat. Txorizoak lehortzeko dagoen eguraldirik okerrena egin digu, eta lehenengo bi egunetan larri ibili ginen. Sukaldea askorik ez berotzen saiatu gara, eta orain ondo doaz", azaldu digute.

Badira urtetxo batzuk Pantxi erretiratu zela, eta bata bestearen arrimuan gobernatzen dute baserria: "Txerriaz gain, sei behi ditugu eta bost txahal, bi orain-txe kentzeko; baita hiru ahuntz, oiloak eta untxiak ere; eta, zela ez, txakurrak eta katuak", dio Pantxik. Ardiak, bestalde, oraintsu kendu dituzte: "Ezin genien lan guztiei ondo jarraitu eta", diote. Onartzen dute abereek lan handia ematen dutela, baina abere bako baserria oso hotza dela iruditzen zaie: "Abereak izatea oso lotua da, baina ez daukagu kentzeko asmorik lanean jarraitu ahal dugun bitartean, behintzat", argitu digu Pantxik.

**JENDETZA PERRETXIKOTAN**

Etxaustegi eta Dominaga baserriak ditu inguruan San Juan Zaharrek, eta ohituta daude elkarri laguntzen: "Ez daukagu inolako arazorik elkarri laguntzeko; medikuarengana joateko, esaterako. Uda parteko belar lanak ere elkarrekin egiten ditugu, silobolak egin ostean jasotze lanak batez ere", dioskute ahizpa biek.

Gatzaga herritik hainbat kilometrora daude, Arlabanen dagoen Dorletako ama birjinaren iruditik gora eginda. Hala ere, ez dira isolatuta bizi jende asko pasatzen da-eta bertatik: "Alabitara, Degurixara, Arantzazura... eta beste hainbat tokitara joaten dira hemendik. Eta onddoak eta perretxikoak batzeko sasoian ezin duzue sinistu ere egin zenbat automobil etortzen den. Batu ez dakit zer batuko duten, baina etorri...", diote. Eta Ibartzabal ahizpek irribarrearekin egiten diote ongietorria baserri ingurura hurreratzen zaien edonori.

> ERREPIDEAK

## Elurrak baino gehiago, izotzak eragin ditu arazoak herrian

Joan zen astean egindako elurteak hainbat arazo eragin zituen Gatzagan. Istripuak izan ziren, bai Arlabanen, bai Gatzagara doan errepide zaharrean, eta arazook areagotu egin zituen izotzak. "Izugarrizko izoztea izan dugu, eta Udalaren makina gatza bota eta bota ibili da hainbat egunetan herrian bertan zein errepidean", adierazi digu Jon Sasiain zinegotziak. Gainera, baserri batzuetako bizilagunek gatza eskatu zioten Udalari baserri inguruan botatzeko. Izan ere, urtarrilaren 25etik aurrera ez da jausi elurrik, baina baserri askotan bost, sei eta egun gehiagotan izan dituzte zuri bazterrak izotzak gogortuta.

> INTERNET

## Bidaiariek dituzten eskubideen gaineko ikastaroa KZgunean

Ikastaro bi egingo dituzte Pilar kalean dagoen KZgunean otsailean. Hilaren 12an, astelehena, *Aurkitu zure liburua* izenekoa azalduko du Aitor Madrid arduradunak. Interneteko liburutegian zela sartu, zer dagoen eta zela aurkitu gustuko liburuak erakutsiko die, 18:00etatik 19:00etara bitartean, bertaratzen diren gatzagarrei.

Hilaren 26an, astelehena, bidaiariek dituzten eskubideen gaineko ikastaroa egingo du. Hegazkinen kasuan, *overbooking* deritzona, bidaiak atzeratu edo bertan behera uztea eta ekipaje arazoak aztertuko ditu Internetten. Tren, autobus eta taxietako bidaiaren eskubideak ere azalduko ditu 17:00etatik 19:00etara bitartean.

'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

**Aloña Mendiko eskubaloi saila 06-07**
**astelehen honetan,**
***Asteleheneko Goienkaria*-rekin**

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Asteleheneko Goienkaria*-k.

Oraingo astelehenean, otsailak 5, Oñatiko Aloña Mendi elkarteko eskubaloi sailarenak argitaratuko ditugu.
Saileko talde guztien argazkiak eta horietako bat, senior mailako neskena, handiz eta jokalarien izen-abizenak jasoko dituzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria.*




Asteleheneko Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Aimar Irigoien > Harri-jasotzailea

# "Ni igeltseroa naiz, eta lanorduak amaitzean joaten naiz entrenatzera"

JOKIN ETXEBARRIA > BERGARA

**Aimar Irigoien harri-jasotzailea, Euskal Herriko txapelduna, Bergarako Murinondo auzoan egongo da domeka eguerdian erakustaldia egiten. Aitzakia hori hartuta, harekin egon gara. Lanean harrapatu dugu –igeltseroa da–, baina ez digu inolako trabarik jarri galdera batzuei erantzuteko.**




Aimar Irigoien, etxeko atarian, atzean gurasoak dituela, 2003an ateratako argazkian. UZTARRIA

**Domekan Bergarako San Blas auzoan egongo zara. Zer motatako erakustaldia egiteko asmoa daukazu?**

Normalean hainbat harri eramaten ditut mota horretako erakustaldietara. Hiru harri izaten dira. Horietako bat 200 kiloko laukizuzena izango da; Euskadiko Sei Orduetarako zerbait berezia prestatzen nabil, eta sasoi onean nagoen jakiteko pisu ona izango da hori. Beste biak, oraindik ez dakit, baina ziurrenik bata biribila izango da eta bestea kubikoa. Espero dut guztiak gustura gelditzeko moduko lana egitea.

**Harri-jasotzea tradizio handiko kirola da Euskal Herrian. Zu nola sartu zinen mundu horretan?**

Gure aitaita zenak ere kirol hori praktikatzen zuen. Ez dakit nola edo zergatik, baina ni txikia nintzela, 4 bat urte nituela, harri formako egur bat egin zidan, 15 bat kilokoa. Hura jaso nuen eta gutxika-gutxika mundu horretan sartzen hasi nintzen. Esan daiteke zainetan daramadala kirol hori.

**Zer da gehiago, zaletasun ala ofizio?**

Orain arte zaletasuna izan dela uste dut ofizio baino gehiago. Orain, ez dakit, dagoeneko maila batzuetara heldu gara ofiziotik gehiago izan beharko lukeena. Marka handiak lortu ditugu, eta hemendik aurrera zailtasunak geroz eta handiagoak dira.

**Zer motatako entrenamenduak egiten dituzu? Harriak etxean izaten dituzu?**

Entrenamenduak orain arte etxean egiten nituen eta gustura ibiltzen nintzen nire bakardadean. Baina duela gutxi Telleria harri-jasotzailearen bi semeekin, Urtzirekin eta Iraitzekin, entrenatzen hasi nintzen haien etxean, eta lagun giroan ibiltzen gara orain. Eta hobe horrela; izan ere, horrelako giroan errazago egiten dira gauzak bakarka ibilita baino.

**Horrelako harri batzuk lortzea nahiko garestia ei da. Horregatik aparteko lan bat hartu behar izan duzu?**

Egia esatearren, harri horiek ez dira merkeak. Harri-jasotzeak ez du aparteko dirurik ematen eta bizi ahal izateko bestelako lanak egin behar izaten dira. Ni, adibidez, igeltseroa naiz, eta lanorduak amaitzen ditudanean entrenatzera joaten naiz normalean.

**Eta zaletasun izateko ez da gogorregia?**

Bai eta ez. Galdera horri erantzutea ez da 4 urterekin hasi eta horixe bizi izan dut bizitza guztian. Ez dakit hori bakarrik egin dudalako edo besterik ez dudalako probatu, baina niri ez zait horren gogorra egiten. Hori bai, 18 urterekin hasi nahi duen batentzat oso zaila da kirol hori.

**"Orain arte harri-jasotzea zaletasuna izan dela uste dut ofizio baino gehiago"**

**"Kirol horretatik bizi ahal izan gurako nuke, baina ez da batere erraza"**

**Baina horretaz aparte beste zaletasun batzuk ere badituzu: autoak eta ehiza, ezta?**

Bai, hori da. Ehizazale itsua naiz, gainera. Dezentetan joaten naiz ehiza egitera. Normalean denetik ehizatzen saiatzen naiz, baina oilagorra harrapatzen dut gehien.

**Harri-jasotzera bueltatuko gara. Lan horrek Euskal Herritik kanpoko herriak ezagutzeko balio izan dizu, ezta?**

Bai, egia da. Euskal Herritik kanpo sarritan ibili izan naiz erakustaldiak egiten: Turkian eta Suitzan, besteak beste.

**Eta nola hartzen dute?**

Kirol hori ez da askorik praktikatzen gure herritik kanpo, eta haientzat harrigarria da. Sekula ikusi gabeko zerbait da haiendako, baina ondo hartzen gaituzte kanpora irteten garen bakoitzean. Turkian, adibidez, telebistan agertu ginen.

**Euskal Herriko txapeldun gazteena zara eta errekorrez beteriko ibilbidea duzu egina.**

Egia esatearren, orain arte ez dut lesiorik izan. Ez dut inongo arazorik izan ez hankan ez beste inon ere, eta horrek ere lagundu egin dit gogor lan egiten. Horrela, marka polit dezente egiteko aukera izan dut. Hasi 12 urterekin eta orain arte markak egiten jardun dut. 17 urterekin 177 kiloko harria jaso nuen esku batekin eta 19 urterekin 218 kilokoa. Aurten zorte handia izan dut, eta 20 urterekin harri handitako txapeldun izan naiz. Orain arte inork ez du horrelakorik lortu horren gazte izanik. Ez dut ahaztu nahi *Kintokotan* ere txapeldun izan naizela. Bestalde, Euskadiko eta Gipuzkoako harri txikitan bigarren izan naiz.

**Inazio Perurena txiki uzteko asmoarekin?**

Inaziok jarraitzen duena beste bide bat da. Hura harri handiekin ibiltzen da markak hobetzeko asmoz. Nik ere eduki nuen bolada bat horretan ibili nintzena, baina dagoeneko alde batera utzi dut. Orain txapelketa munduan sartuta nago, eta hori bestelakoa da. Hala ere, Inazioren lanak hobetzea zaila dela uste dut. Sekulako markak egiten ditu, mutil handia da eta oso bide onetik doa.

**Inaziok ere aita atzean utziko du agian.**

Orain doan martxan jarraitzen badu, agian bai, baina Iñaki Perurena ere marka handiak egindakoa da.

**Zer esango zenieke *Errezilgo Obelix* deitzen dizutenei?**

Horrenbeste ezizenez deitzen diogu elkarri…

**Etorkizunari begira zer asmo daukazu? Harri-jasotzetik bizi izatea posible ikusten duzu?**

Kirol horretatik bizi ahal izan gurako nuke. Gauza polita da bakoitzak maite duen kiroletik bizi ahal izatea, baina ez da erraza. Diru askorik ez dago. Bada, oraingoz, Euskadiko Sei Orduetarako proba prestatuko dut eta gero atseden hartzeko asmoa daukat.

**PILOTA** > BINAKAKO TXAPELKETAKO FINAL-LAURDENAK

# Bengoetxea eta Ruiz ezustekoaren bila Bergaran

Multzoko azken postuan gelditu direnez, Martinez de Irujo eta Goñi III.a faboritoen aurka jokatu beharko dute final-laurdenetan


**AUKERAKETA** Lau pilotariak eguenean etorri ziren Bergarara pilota aukeraketa egitera. JOKIN ETXEBARRIA

**JOKIN ETXEBARRIA** > BERGARA
Dagoeneko iritsi dira final-laurdenak eta kanporaketak bere hitzaren esanahia berreskuratuko du. Nahiz eta partidu guztiak galdu kaleratzerik ekartzen ez duen ligaxka zentzugabeak joan den astean izan zuen amaiera, eta asteburu honetatik aurrera ikusi ahal izango dugu bikoterik indartsuenek ahulenak kanpoan nola uzten dituzten.

Urdulizen, Bizkaian, gaur hasiko da binakako txapelketako bigarren fasea, Koka-Otxandorena eta Gonzalez-Pascual bikoteen arteko norgehiagokarekin. Baina Bergaran ere izango da zer ikusi domekan, 17:00etan. Izan ere, eskuz banakako txapelduna, joan den urteko binakako txapelketako irabazlea eta aurtengo binakakoan txapela berriz janzteko faborito Juan Martinez de Irujo Bergarako Udal Pilotalekuan izango da, Fernando Goñi –Goñi III.a– bikotekide duela.

**IRUJO VS BENGOETXEA**
Aditu gehienek txapelketan gauza handiak egiteko moduan zirela esan arren, Oinatz Bengoetxeak eta Patxi Ruizek osatutakoa da aurtengo binakakoan partidarik irabazi ezin izan duen bakarra. Joan den astean, Gonzalez eta Pascualen aurka 22-18 galdu ondoren multzoko azken postuan amaitu dute nafarrek, eta horrek, hain zuzen ere, faborito handien aurka lehiatu behar izatera eraman ditu.

Hala ere, orain da partiduak irabazten hasteko garaia finalera iritsi nahi bada, behintzat. Hori bai, Bengoetxeak eta Ruizek ezusteko galanta emango lukete Irujori eta Goñiri irabaziz gero. Aurkariak, behintzat, ez dira aldekoak, ligaxkan jokatutako partiduan 22-19 galdu baitzuten. Orain, baina, hiru aukera izango dituzte faboritoak garaitzeko. Lehena, domekan, Bergarako Udal Pilotalekuan. Txapelketako partidu horretaz gain, beste bi jokatuko dira: GalartzaV.a eta Barriola Chafee eta Laskurainen aurka eta Larraldek eta Arrutik Apezetxea-Zubieta bikotearen kontra.

**ESKUBALOIA** > ADISKIDANTZAZKO PARTIDUA IZANGO DA ZUBIKOAN

# Arratek eta Darien Logroñok Asobal ligan nola jokatzen den erakutsiko dute Oñatin

Zapatuan arratsaldeko sei t'erdietan Zubikoan jokatuko dute Asobaleko bi taldeek

Oñatiko Txanda dendarien elkarteak antolatu du partidua Aloña Mendiren laguntzarekin



**JD ARRATE** Eibartarrek Asobal Ligan duten taldea ekarriko dute Oñatira. GOIENKARIA

**J.E.** > OÑATI
Alemanian Munduko Eskubaloi Txapelketa jokatzen dabiltza egunotan. Hori dela eta, Asobal ligak atseden hartu du eta Oñatiko Txanda dendarien elkartekoek (Aloña Mendi klubeko eskubaloi sailaren laguntzarekin) hori aprobetxatu dute eskubaloiko maila goreneko bi talderen arteko adiskidantzako partidu bat antolatzeko.

Eibarreko JD Arrate eta Darien Logroño taldeak gerturatuko dira Oñatira. Partidua bihar jokatuko da Zubikoa kiroldegian, arratsaldeko sei t'erdietan, eta sarrera doan izango da.

Izan ere, liga txapelketan atsedena izan arren, taldeen prestakuntzak aurrera egin behar izaten du. Lehia berriro otsailaren 10ean hasiko da, eta bai Arratek eta baita Logroñok denboraldia amaitzeko zer-nolako indarrak dituzten neurtzeko balio izango du adiskidantzazko partidu horrek.

**BI IBILBIDE EZBERDIN**
Bi talde *txiki* izateagatik helburua mailari eustea dute biek ala biek, baina orain arte eraman duten ibilbidea oso ezberdina da. Arrate tradizio handiko kluba da eskubaloian, baina bigarren mailan urte dezente eman eta gero, duela hiru urte lortu zuen Asobal ligara igotzea, eta sailkapenaren erdialdean amaitzea lortu dute hiru denboraldi hauetan. Logroñoko taldeak, berriz, aurten du Asobal ligan lehenengo urtea eta Bidasoarekin lehian dabil azken postuetara ez erortzeko.

Dagoeneko 15 jardunaldi jokatu dira Asobal ligan eta bi taldeak oso egoera ezberdinean daude. Arrate sailkapenaren erdian dago, zortzigarren postuan hain zuzen ere, sei partidu irabazi eta bat berdindu ostean 13 puntu dituela. Darien Logroño, berriz, 14. postuan da, zortzi punturekin. Hiru partidu besterik ez dute irabazi errioxarrek.

Hala ere, goi mailako jokalariak ikusteko aukera izango da, Iñaki Malumbres, Dalibor Cutura, Gurutz Aginagalde, Tomas Laclavic eta beste hainbat jokalari ospetsu Zubikoan egongo baitira. Arrate taldeko Ivo Diaz Aldazabal kubatarrak, berriz, ez du jokatuko; izan ere, mundiala jokatzen dabil Hungariarekin.

**ZOZKETAK ATSEDENALDIAN**
Bestalde, partidu horren atsedenaldia aprobetxatuko du Txanda elkarteak astean zehar saltzen ibili diren txartelen zozketa egiteko. Bi sari zozketatuko dira: Txanda elkarteko dendetan gastatzeko 1.000 euroko erosketa bonua eta urdaiazpiko bat. Txartelik erosi ez duenak oraindik badu aukera partiduaren aurretik.



**PODIUMA** 2006ko Zegama-Aizkorri maratoiko podiuma. Erdian, Ricardo Mejia irabazlea. GOIENKARIA

**MENDI MARATOIA** > ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIAN ALDAKETAK

# Zegamako maratoia irailean izango da aurten

Munduko Kopako zortzi probetatik azkena izango da, irailaren 23an; hori dela eta, oso garrantzitsua da, bikoitza puntuatzen duelako

**JOKIN ETXEBARRIA**> BERGARA

Mendi maratoiak indar handia hartu du azken urteotan gurean. Izan ere, euskal selekzio batek kirol horretan parte hartzeaz gain, Zegama-Aizkorri maratoiak zerikusi handia izan du horretan.

Azken egunotan, albiste da Zegaman egiten den maratoi hori, aldaketa batzuk izan dira-eta. Hain zuzen ere, bigarren aldiz aldatuko du data maratoiak. Hasi uztailean egiten hasi ziren, baina proba Munduko Koparen barruan sartzearekin batera maiatzera pasa behar izan zuten lasterketa proba. Orain, berriz, irailean egitera pasako da, baina, edozelan ere, ez da Munduko Kopatik kanpo geldituko.

**PROBA GARRANTZITSUENA**

Gainera, Munduko Kopan jarraitzeaz batera, proba garrantzitsuena izatera pasako da; izan ere, zortzi probetatik azkena izango da Zegama-Aizkorrikoa eta bikoitza puntuatzera pasako da. Eta horrek korrikalari garrantzitsuenak edo lehen postuengatik lehian dabiltzanak bertan egotera behartzen ditu. Beraz, orain artekoa ikuskizun handia bazen, hemendik aurrerakoa sekulakoa izango da.

Juan Ignazio Galdos, Zegamako alkatea, pozez zoratzen aurkitu dugu. Haren ustez, Zegamako herriak urtero egiten duen lanari merezitako saria ematea da Munduko Kopako antolakuntzak hartutako erabakia. Eta arrazoia argi dauka: zaleek eta korrikalariek ikusten duten paisaiak ez du parekorik. Ezinbesteko hitzordua bihurtu da Zegamakoa.



GOIENKARIA

## Euskarazko kirol materiala sortzeko beka

Debarroko Kirol eta Euskara zerbitzuak berriro elkartu dira euskarazko kirol materiala sortzeko beka aurrera ateratzeko. 17. aldia da, eta helburua bi arlotako fitxa didaktikoak sortzea da: jaioberrien ur jarduerei buruzkoa eta areto futbolari buruzkoa. Parte hartu nahi duenak otsailaren 16 arte du eskabidea aurkezteko aukera Kirol eta Euskara zerbitzuetan.

> ESKIA

### Mendi elkarteek eski irteerak antolatzen jarraitzen dute

Azken egunetan egin duen elurra medio eski estazioak gainezka daude. Gure bailaratik ere asko dira eskiatzen dutenak eta irteera antolatuekin joan nahi duenak badu aukera mendi elkarteen bitartez. Arrasateko Besaidek adibidez, urtarriletik martxora, astebukaera guztietarako antolatu ditu eski irteerak. Datorren astean, otsailak 9an, joatea nahi duenak Besaideko lokalean eman dezake izena. Asteburu horretarako, Bergarako Pol-Polek eta Aretxabaletako Murrukixo elkarteek ere antolatu dituzte irteerak, eta izena eman nahi duenak elkarte hauetara jo beharko du.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Preferente maila**
Idiazabal-Mondra
Zapatua. 16:30. Arizkorreta.

Touring-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Fanderia.

Hernani-Aretxabaleta.
Zapatua. 16:30. Zubipe.

**Lehen erregionala**
Orioko-Bergara
Domeka. 17:30. Mendibeltz.

**Bigarren erregionala**
Antzuola-Elgeta.
Zapatua. 16:30. Estala.

Urki-Aretxabaleta.
Gaur. 19:30. Unbe.

**Ohorezko mailako gazteak (Igoera fasea)**
Mondra-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.

Aretxabaleta-Martutene.
Zapatua. 17:30. Ibarra.

**Ohorezko mailako gazteak (Jeitsiera fasea)**
Bergara-Aurrera Ondarroa
Zapatua. 16:00. Ipintza.

**Lehen mailako gazteak (Igoera fasea)**
UDA Arizmendi-Hernani.
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Lehen mailako gazteak (Igoera fasea)**
Eibartarrak-Antzuola.
Domeka. 15:30. Unbe.

Bergara-Ikasberri.
Zapatua. 18:00. Ipintza.

Arrasate-Zarautz.
Zapatua. 16:00. Atxabalpe.

**Ohorezko mailako kadeteak (Igoera fasea)**
Touring-Bergara.
Zapatua. 12:30.Fanderia.

Lengokoak-UDA Arizmendi.
Zapatua. 10:30. Cesar Benito.

**Ohorezko mailako kadeteak (Kopa)**
Aloña Mendi-Arrasate.
Zapatua. 11:00.Ibarra.

**Lehen mailako kadeteak (Kopa)**
Soraluze-Bergara.
Zapatua. 11:00. Ezozia.

Ikasberri-UDA Arizmendi.
Zapatua. 15:00. Garmendipe.

**Ohorezko mailako infantilak (Txapeldunen fasea)**
UDAArizmendi-Tolosa.
Zapatua. 11:00. Ibarra.

**Ohorezko mailako infantilak (Txapeldunen fasea)**
Arrasate-Aloña Mendi.
Zapatua. 10:00. Atxabalpe

**Lehen mailako infantilak (Igoera fasea)**
Bergara-Billabona.
Domeka. 11:30. Ipintza.

**Infantil txikiak**
Real Union UDA Arizmendi
Domeka. 12:00. Gal

**Emakumezkoen Liga (Igoera fasea)**
BTLS-Mondra
Zapatua. 19:45. Ipintza.

**Emakumezkoen Liga (Kopa)**
Arizmendi UDA-Salvatierra
Zapatua. 15:30. Almen.

Aloña Mendi-Urki.
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Emakumezkoen F-8**
Arizmendi UDA-Mutriku.
Zapatua. 10:15. Almen.

**Alebinen maila**
Lagun Onak-Aloña Mendi.
Domeka 11:15. Ibarra.

Eibar-Bergara
Domeka. 10:00. Ibarra.

Arrasate-Elgoibar
Domeka. 10:00. Ibarra.

Aretxabaleta-urko
Domeka. 11:15. Ibarra.

### ARETO FUTBOLA

**Euskal Liga**
Eskoriatza-Lagun Onak.
Zapatua. 18:00.
Intxaurtxueta

**Lehen maila**
Aloña Mendi-Zarautz.
Gaur. 22:30. Zubikoa.

**Hirugarren maila**
UDA- Tejidos Jimenez
Zapatua. 17:00.
Aretxabaleta.

**Gazte maila**
Aloña Mendi- Elgoibar
Zapatua. 16:00. Zubikoa

### SASKIBALOIA

**ACB**
Bruesa GBC-Unicaja.
Domeka. 12:15. Illumbe.

**Lehen maila**
Mugarri Alkesa-Baskonia
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Gazte maila (Euskal Liga)**
Mugarri Alkesa-Baskonia.
Domeka. 18:00. Iturripe.

**Gipuzkoako ligako senior maila**
Bar Iraeta-Candy B.K.E.
Zapatua. 18:00. Donostia.

Ointxe Arrasate-Oiarso
Zapatua. 16:00. Iturripe.

**Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)**
Lasarte Oria-Eskoriatza
Domeka 11:00. Lasarte.

Aloña Mendi-Andraitz.
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gazte maila**
Aloña Mendi-Cafes Aitona.
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gazte maila (emakumezkoak)**
Aloña Mendi-Tolosa Argysan.
Zapatua. 12:00. Usabal.

**Kadete maila**
Ford Mugarri-Goierri.
Zapatua. 16:00. Musakola.

Bergara-Ordizia.
Zapatua. 12:00. Majori.

Irungo La Salle-Alkesa.
Zapatua. 12:00. Irun

**Kadete maila (emakumezkoak)**
Atco SN. SN.-Eskoriatza.
Zapatua. 12:00. Aiete.

**Infantil maila**
Aloña Mendi-Goierri.
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Bergara94-Bergara93.
Zapatua. 11:00. Mariaren Lagundia.

Leintz Eskola B-Ikasi ISB.
Zapatua. 12:00. Musakola.

Leintz Eskola A-Tolosa A.
Zapatua. 10:30. Musakola.

Arizmendi A-Tolosa B.
Zapatua. 10:30. Musakola.

### ESKUBALOIA

**Asobal Liga (Adiskidantzazkoa)**
J.D.Arrate-Darien Logroño.
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

**Euskadiko Senior maila**
Romo-Ford Mugarri
Zapatua. 18:00. Areeta.

**Euskadiko Txapelketa Senior neskak**
Basauri-Verkol Aloña.
Domeka. 11:00. Basauri.

**Euskadiko Txapelketa Kadete neskak**
San Adrian-Verkol Aloña.
Zapatua 18:15. Bilbo.

**Lehen territorial maila**
Arrasate-Donibane.
Domeka 12:00. Iturripe.

Bergara- Urola.
Domeka. 12:15.
Labegaraieta.

**Gazte maila**
Aloña Mendi-Goierri.
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Bergara- Donibane.
Domeka. 10:45.
Labegaraieta.

**Kadete maila**
Aloña Mendi-Goierri.
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Gatz Museoa Jak.- Leizaran
Domeka. 10:00. Iturripe.

**Gazte maila neskak (Udaberri Txapelketa)**
Elgoibar-Verkol Aloña.
Zapatua. 16:00. Ollaizaga.

**Kadete maila neskak (Udaberri Txapelketa)**
Pulpo-Arasate.
Zapatua. 12:15. Zumaia.

### ERRUGBIA

**Senior maila**
Arrateko Txekorrak-Arrasate.
Zapatua-16:00. Igorre.

**Gazte maila**
Arrateko Txekorrak-Arrasate.
Zapatua-13:00. Santander.

### PILOTA

**Binakako Txapelketa profesionalak (Final laurdenak)**
Galartza V-Barriola / Chafee-Laskurain

Mtz Irujo-Goñi III / Bengoetxea VI - Patxi Ruiz.

Larralde-Arruti / Apezetxea-Zubieta
Domeka. 17:00. Bergarako Udal Pilotalekua



**2. erregional mailako derbia jokatuko da Antzuolan**
Joan den astean atzeratuta geratu zen partidua jokatuko dute Antzuolak eta Elgetak zapatuan, 16:30ean, Estala futbol zelaian.



**> ANTZERKIA**
*Una visita inesperada* domekan Amaian **> 45**




**> KOMUNIKAZIOA**
*Appleberri*, Apple produktuen gaineko euskarazko bloga **> 51**

**> AINHOA SANCHEZ**
Futbola gustuko duela ageriko da: Ametzueta eta Xabi Alonso-Liverpool lagunarteko kide da. Santa Ageda dantza egin zion iaz Aretxabaletako Plazan **> 50**



# Pirritx eta Porrotx: Arrakasta itzeleko pailazoak



**20 URTE** Pirritx eta Porrotx pailazoek 20. urteurrena ospatuko dute aurten. *Mari Motots* da haien azken ikuskizuna. KATXIPORRETA

Pirritx eta Porrotx pailazoek 20. urteurrena ospatuko dute aurten

Aretxabaletako arrakastaren ondoren, Bergaran izango dira Aratusteetan

Izandako arrakastak ustekabean harrapatu dituela aitortzen du Porrotxek

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Nork ez ditu Pirritx eta Porrotx ezagutzen? Zeinek ez du haien kanturen bat entzun? Pailazo haien ateraldiekin barre egin ez duenik badago gurean? Zalantzarik gabe, sekulako arrakasta duen bikotea dugu Pirritx eta Porrotx. Debagoienean ere jarraitzaile piloa dauzkate: joan den zapatuan Aretxabaletako kiroldegia jendez lepo egon zen *Mari Motots* ikuskizuna ikusteko. Beste horrenbeste gertatuko da Bergaran Aratuste-zapatuan, otsailaren 17an: bi emanaldi egingo dituzte Udal Pilotalekuan egun horretan.

**20 URTE BETETZEAR**
Ibilbide luzea daramate Pirritx eta Porrotxek: hain zuzen ere, aurtengo abenduan 20 urte beteko dituzte Lasarte-Orian txikiak alaitzen hasi zirenetik. Hango euskara elkartearen barruan hasi ziren 1987ko Gabonetan, *Euskara eta alaitasuna* ikuskizunarekin, eta erdi jolasean sortutako ideia hura hazi egin da ordutik hona. Neska-mutikoen artean harrera bikaina duten jolasak, DVDak, diskoak eta beste hainbat produktu kaleratzen dituzte gaur egun. Garai batean hirukotea zena bikotea da gaur: Takolok taldea utzi zuen orain dela hiru urte eta gaztetxoen euskara irakasle ari da gaur egun Segurako barnetegian.

Eguaztenean izan ginen Jose Mari Agirretxe *Porrotx*-ekin berbetan, familia eredu ezberdinen gaineko bildumako ipuin berriak eta CD-ROMa gertatzen ari zirela. Uda parterako bildumako beste bi ipuin eta Gabonetarako CD-ROMa kaleratuko

(44. orrialdean jarraitzen du)

## Arrakasta itzeleko bikotea

(43. orrialdetik dator)

dituzte. Agipase, Ume Alaia, Beroa eta Gehitu taldeekin elkarlanean aritu dira proiektu horretan. Era berean, Korrika Txikiari begira, kantu bat prestatzen dihardute egunotan, *Txis-pun Korrika*. "Laster kantuaren bideoklipa ikusi ahal izango duzue", diosku Porrotxek.

Azaroa ezkero buru-belarri dabiltza *Mari Motots* ikuskizunarekin: "Azaroan estreinatzen ditugu gure ikuskizunak eta hurrengoa sasoi honetan hasten gara gertatzen, urtarrilean. Ideiak landu, gidoia egin, hortik abiatuta kantuak konposatu... Hori izaten da prozesua. Xabier Zabala musikari zarauztarra gurekin dabil azken zazpi urteotan eta bhua da *Maite zaitut* abesti arrakastatsuaren musikaren erantzulea, ijito bati abesten genion runba horrena".

### GIZARTEKO GAIAK

Gaur egungo gizarteko gaiei heltzen diete Pirritx eta Porrotxek eta hala erakusten dute *Mari Motots* ikuskizunean: Mari Motots eta haren ama parketik bota nahi dituen Txanpon SAko Eurolio jauna ekologista bihurtzea lortzen dute Pirritx eta Porrotxek. "Koloretako begien bidez gure begiradak koloretsuak dira eta sor daitezkeen arazoei soluzioa topatzen ahalegintzen gara. Gai sozialak inor mintzeko asmorik gabe eta gaia ozpindu barik



*Mari Motots* ikuskizuna joan den azaroan estreinatu zuten. JOSETXO ARANTZABAL

plazaratzen saiatzen gara. Agerian dauden gaiak denon arteko elkarlanarekin konpon daitezkeela erakutsi nahi dugu. Ikuskizun alaiak, irudimentsuak eta koloretsuak egitea da gure asmoa. Eta askok eta askok pailazoena haurrei zuzendutako gauza dela uste duten arren, etiketa horrekin ez gaude guztiz ados. Azken baten, muga hori ez da guztiz argia eta *Maite zaitut* kantuarekin gertatutakoa horren adibide dugu: guraso askok bere egin dute kantu hori".

### IKUSLEEKIKO HURBILTASUNA

Euskal Herriko txoko guztietara heltzen saiatzen diren arren, batzuetan ezinezkoa zaie. Orain dela zazpi urte, urtean 208 emanaldi egitera iritsi ziren. Dena dela, gaur egun erritmo txikiagoan dabiltza, eta, hain zuzen ere, 140 emanaldi inguru egingo dituzte aurten.

Esan bezala, izan duten arrakasta ezustekoa izan dela aitortzen du Porrotxek: "Euskara, alaitasuna eta haurrak ikuskizuneko partaide bihurtzea izan daiteke gakoa, ez dakit". Haien ikuskizunen azken zatian musuak eta piropoak banatzen dizkiete ikusleei: "Txikiei belarrira gauza politak xuxurlatzeko tartea hartzen dugu eta ez zaizkie ahazten! Pailazo garenetik gure eguneroko bizitzan ere askoz errazago ematen ditugu musuak eta piropoak. Zein merkea eta ona den!".

## Bergaran bi emanaldi egingo dituzte, sarrerak berehala agortu eta gero

Pirritx eta Porrotx pailazoek otsailaren 17an Bergarako Udal Pilotalekuan egin beharreko *Mari Motots* ikuskizunerako sarrerak astelehenean agortu ziren, hiru orduan. Jendea zain zegoen 08:30erako kultura etxeko atean; Elkar liburu dendan jendeak erreserbak eginda zeuzkan joan den astea ezkero, eta astelehenean, esan bezala, salgai jarritako 835 sarrerak agortu ziren. Gurasoen artean zeresan ugari eman du astean zehar pailazoen ikuskizunerako sarreren kontuak.

Hori dela eta, Pirritx eta Porrotx pailazoek beste emanaldi bat egingo dute Bergaran egun berean: 16:30ean izango da lehena eta 18:30ean bigarrena. Azken emanaldi horretarako sarrerak hurrengo astelehenean, otsailaren 5ean, jarriko dituzte salgai 4 euroren truke, kultura etxean eta Ibargarai kaleko Elkar liburu dendan.

Pirritx eta Porrotx azaltzen diren herri guztietan sarrerak agortzen dira. Bergarakoaren ondoren, beste bi hitzordu izango dituzte aurten Debagoienean: maiatzaren 5ean Oñatin eta ekainean Eskoriatzan izango dira berriz, San Pedro jaietarako.



Pirritx eta Porrotx Aretxabaletan izan ziren aurreko zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

### ZEIN USTE DUZU DELA PIRRITX ETA PORROTXEN ARRAKASTAREN GAKOA?



**Mirari Altube**
Kazetaria

#### "Euren hurbiltasuna eta freskotasuna eskertzen dute umeek"

2 urteko umea zein 8 urtekoa aho zabalik izatea ordubete pasatxoan ez da samurra, eta horixe lortzen dute Pirritx eta Porrotxek. Marrazki eta kolore biziekin osatutako eszenatokia, abesti dantzagarriak eta istorio erraz eta ulergarriak dituzte ardatz; baina, zalantza barik, pailazoen hurbiltasun eta freskotasuna eskertzen dute umeek: Porrotxen txotxolokeriak eta Pirritxen goxotasuna, beti beste pertsonaia batzuk inguruan dituztela. Ikuskizuna bukatutakoan argiak itzali eta saioa ez da bukatzen: agurrak, argazkiak eta muxuak datoz orduan. Musuak banatzen dizkigute guzti-guztioi, nekerik agertu barik...



**Idurre Amosarrain**
Txatxilipurdi elkartekoa

#### "Berehala lortzen dute txikien konplizitatea"

Umeei zuzendutako ikuskizunak oso ondo landutakoak dira, irudi aldetik eta kolore aldetik benetan ikusgarriak. Gainera txikien partaidetza bilatzen dute hasieratik eta berehala lortzen dute neska-mutikoen konplizitatea. Ikuskizun *xalauak* eta gaiztoak dira Pirritx eta Porrotxenak, umeentzako egokiak. Edukiak oso ondo lantzen dituzte; oso argi daukate zein gai jorratu eta ikuskizunaren ildoa zein izan behar den. Nagusiendako egokiak izan daitezke ikuskizunetako batzuk, gizarteko gaiak modu erakargarrian aurkezten asmatu dutelako. Kantuak eta ikuskizunak gomendagarriak dira oso.



**Arantxa Untzueta**
Eskoriatzako Kultura teknikaria

#### "Txikiengana hurbiltzeko gertu daude beti"

Zaila da izan duten arrakastaren gakoa zein den asmatzea. Dena dela, aurrena pailazo onak direla esan beharra dago. Muntaia politak eta koloretsuak egiten dituzte eta abestiak umeendako egokiak izaten dira, gogoraerrazak. Bestalde, era guztietako produktuak plazaratzen erabat asmatu dute; leku guztietara heltzea lortu dute eta umeak diren etxe guztietan ohikoa da euren jolas edo DVD bat izatea. Eta, azkenik, oso pailazo begi-tsuak direla esango nuke. Ikuskizuna amaitutakoan beti daude gertu txikiengana hurbildu eta musuak banatzeko, argazkiak ateratzeko...



**Virginia Imaz**
Oihulari Klown taldekoa

#### "Ofizio eta esperientzia handiko pailazoak dira"

Egia esateko, aspaldian ez ditut Pirritx eta Porrotx zuzenean ikusi baina ofizio eta esperientzia zabala daukate. Beraien ibilbide luzeari erreparatzerik besterik ez dago. Euren ikuskizunetan umeekin harreman goxoa izatea lortu dute eta ez da gutxi hori. Umeek biziki maite dituzte, gertuko lagunak bailiran ikusten dituztelako. Bestalde, kantu ezagun piloa atera dituzte eta horiek saltzen maisuak direla erakutsi dute: Euskal Herriko bazter guztietara iritsi dira, eta umeak Pirritx eta Porrotx ikusteko irrikaz egoten dira han eta hemen. Beraien arrakasta neurtzeko ez da datu makala hori.



**Mireia Gabilondo**
Aktorea eta zuzendaria

#### "Kantuen bitartez umeekin konektatzen asmatu dute"

Zortzi urteko alaba daukagu eta guri ere Pirritx eta Porrotxen fenomenoa *sufritzea* tokatu zaigu. Azken aldiz zuzenean orain dela pare bat urte ikusiko nituen eta etxean badauzkagu euren bideoak eta horrelakoak. Egia da neska-mutikoengana heltzen asmatu egin dutela, beraiei zuzendutako kantuen bitartez batez ere. Era berean, umeengana giza kontzientzia pizten saiatzen dira, eta positiboa da hori, nahiz eta ez dakit zenbateko neurriraino umeak kontziente diren. Niri Porrotx gustatzen zait gehien, sanoena bera delako; eta euren abenturen artean baserrian girotutakoa nabarmenduko nuke.

**MUSIKA** > ROSS THE BOSS-EN THE THUNDERBOLTS TALDEA 3.60 ARETOAN

# The Dictators taldearen bi fundatzaile izango ditugu taula gainean

The Dictators taldeko Ross the Boss eta J.P., Sex Museum-eko Miguel eta Fernando Pardo eta Bummer taldeko Juantxok osatzen dute taldea

IKER BARANDIARAN> ARRASATE
Gaur, egubakoitza, kontzertu oso berezia egingo dute Arrasateko 3.60 aretoan. Emanaldia 23:00etan izango da, ohikoa duten moduan.

Kontzertua hasteko ardura Berako Sexty Sexers taldeak izango du. Gaztea eta indartsua da boskotea, eta punk-rocka eta rock izerditsua egiten du. Iaz *Iluntze berri baten bila* diskoa kaleratu zuten Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin, eta dagoeneko badabiltza beste lan bat prestatzen. Gazte horiek ahalegintzen dira taula gainean guztia ematen, baita lortu ere.

**NEW YORKEKO BETERANOAK**
Horren ostean, ezohiko taldekideek osatutako The Thunderbolts igoko da taula gainera. Ezohiko diot, New Yorkeko eta Madrilgo musikari ezagunek osatutako taldea delako. Gaueko izarra Bronxen (NY) jaiotako Ross The Boss izango da. 70eko hamarkada hasieran punk-rockaren aitzindari izan zen The Dictators taldearen fundatzaile izan zen, Andy Shernoff eta Handsome Dick Manitobarekin batera. Handik urte batzuetara, Dictators isildu zenean, 80ko hamarkadan, Manowar heavy taldearekin hainbat disko kaleratu zituen. Horren ostean, Dictatorsek kontzertuak egin dituen bakoitzean esku hartu du, eta beste ehun proiektutan buru-belarri dabil. Azkenekoa, esan bezala, The Thunderbolts.

**SEX MUSEUM-EKO LAGUNAK**
Hain zuzen ere, azken proiektu horren izena Dictatorseko bateria-jotzaileari dagokio, J.P. Thunderbolt Pattersoni, hain zuzen ere. Eta bi musikari beterano horiekin batera, Madrilgo beste hiru musikari arituko dira, eskarmentua ere badutenak: Sex Museum taldeko Miguel eta Fernando Pardo, abeslaria eta gitarra-jotzailea, hurrenez hurren; eta Bummer taldeko Juantxo, hain zuzen ere. Fernando Pardoren kasua oso bitxia da, aipatutako taldeetako kide izan arren, Los Coronas, Nowonder eta beste hainbat proiektutan murgildua ibili delako.

**ERESIAK ETA GITARRA INDARTSUAK**
Orain dela pare bat urte, boskote horrek Espainiako Estatuan bira egin zuen Thin Lizzyri omenaldia egiteko. Oso harrera ona izan zuten, eta areto gehienak bete egin zituzten. Oraingoan ere ez dute gutxiago espero.

Taldeko baxu-jotzaile eta era berean *road-manager* Juantxok azaldu digunaren arabera, kontzertuan Ross The Bossen ibilbidea gainbegiratuko dute.

Batez ere The Dictators taldearen kantuak joko dituzte, baina boskoteak konposatutako kantu propioek eta Thin Lizzyren hainbat piezak ere izango dute lekua emanaldian. Horrez gain, Manowar ere gogoratuko dutela jakinarazi digute.

Kantu propioak aipatzerakoan, gogoratu beharra dago iaz Bartzelonako Rock On diskoetxeak boskote horrek grabatutako diskoa kaleratu zuela. Gitarra indartsuak eta lagun artean abesteko piezak idatzi dituzte.



LUXUZKO MUSIKARIAK Ezkerretik eskumara: Ross the Boss, J.P., Juantxo, Miguel eta Fernando Pardo. THE THUNDERBOLTS



GITARRAREN AZTIA Rudi Pell gitarra-jotzailea erdian jarrita dago. JAM

**MUSIKA** > ALEMANIAKO HARD-ROCKA

# Hard-rockaren heroi Axel Rudi Pell Jam aretoan

Heavy musikari ezagun askorekin ibilia da Alemaniako Axel Rudi Pell, eta etengabe dabil nazioartean jotzen

I.B.> BERGARA
Bihar, zapatua, Alemaniako hard-rock eszenako izen ezagun bat joango da Bergarako Jam aretora: Axel Rudi Pell. Emanaldia 22:00etan hasiko da, eta aurretik talde gonbidatu bat arituko da taula gainean.

Ez da lehenengo aldia Rudi Pell Bergarara hurbiltzen dena, eta, horrenbestez, hard-rock eta heavyzaleek badakite zer aurkituko duten.

**23 URTE GITARRAREKIN**
Rudi Pell Alemaniako Steeler metal taldeko gitarra-jotzaile izan zen 80ko hamarkadan. Horren ostean, bakarkako ibilbideari ekin zion eta arrakasta handia lortu du. Hard-rock eta heavy epikoa egiten du, eta Rainbow taldeko Ronnie James Dio da haren eragin nagusia.

Gaur egun honako musikariak ditu alboan: Harline Formerlyko Johnny Gioeli, Yngwie Malmsteenen taldeko Mike Terrana, Rough Silkeko Ferdy Doernberg eta Volker Krawczak, hain zuzen ere.

**ANTZERKIA** > 'UNA VISITA INESPERADA' ARRASATEN

# Agatha Christieren misteriozko komedia bat

Agatha Christieren liburu bat antzerkirako egokitu du Txalo taldeak

I.B.> ARRASATE
Etzi, domeka, Txalo antzerki taldeak *Una visita inesperada* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

Aspaldian, Arrasateko Kultura Saila izen handiko antzezlan eta aktoreak eramaten dabil Arrasatera; eta ikuskizunek harrera ona jaso dute orain arte.

**AGATHA CHRISTIEREN LANA**
Txalo antzerki taldeak Agatha Christie idazle ezagunaren *Una visita inesperada* liburua antzerkirako egokitu du. Hain zuzen, Gerardo Mallak egokitu du lan hori, eta zuzendari lanak ere egin ditu; horretarako, Cesar Dieguez zuzendari laguntzailea izan du alboan.

**JAIME BLANCH AKTOREA**
Ikuskizuna gazteleraz egingo dute, eta aktore ezagunek esku hartuko dute Arrasaten: Jaime Blanch, Charo Soriano, Tomas Saez, Cesar Dieguez, Cristina de Inza, Miguel Angel Fernandez, Fermin Sanles, Karmele Aranburu eta Carlos Viagak, hain zuzen ere.

Ikuskizunaren argumentua honako hau da: ekaitz bortitz batek Michael protagonista errepidean harrapatu du, eta etxe batera joan da laguntza eske. Etxe horretan, hain justu ere, hilketa bat gertatu berri da eta ustezko egileak krimena aitortzen du. Edozelan ere, Michaelek ez du aitorpen hori sinesten...

## hildakoak

- **Juan Luis Agirreurreta.** Arrasaten, Urtarrilaren 23an. 54 urte.
- **Pedro Segovia Quiroz.** Arrasaten, Urtarrilaren 24an. 89 urte.
- **Cecilia Mascariano Gaztañaga.** Arrasaten, Urtarrilaren 27an. 90 urte.
- **Antonio Letona Badiola.** Arrasaten, Urtarrilaren 28an. 74 urte.
- **Esteban Melero Valencia.** Arrasaten, Urtarrilaren 30ean. 89 urte.
- **Salvadora Larrañaga Telleria.** Bergaran, Urtarrilaren 26an. 89 urte.
- **Candelaria Zangitu Aperribai.** Bergaran, Urtarrilaren 28an. 68 urte.
- **Josefa Larrañaga Vergara.** Bergaran, Urtarrilaren 29an. 82 urte.
- **Maria Teresa Kortazar Kortazar.** Bergaran, Urtarrilaren 29an. 78 urte.
- **Bernardino Madaleno Marcos.** Bergaran, Urtarrilaren 31n. 77 urte.
- **Maria Asuncion Anduaga Letamendi.** Oñatin, Urtarrilaren 26an. 84 urte.
- **Teresa Igartua Irizar.** Oñatin, Urtarrilaren 25ean. 88 urte.
- **Manuel Etxebarria Areso.** Elgeta, Urtarrilaren 31n. 94 urte.

MEZA

## Antonio Letona Badiola

Arrasaten hil zen 2007ko urtarrilaren 28an, 73 urte zituela.



Haren arimaren aldeko meza domekan,
otsailaren 4an, 11:00etan,
Arrasateko San Joan elizan.
Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik
eskerrik asko sendikoen izenean.
—
Hileta-elizkizunetara joandakoei eta
samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, mila esker.

Arrasaten, 2007ko otsailaren 2an.

ESKER ONA

## Antonio Letona Badiola

Arrasaten hil zen 2007ko urtarrilaren 28an, 73 urte zituela.



*Ez agurrik, ez adiorik
gero arte bakarrik*

"Kasatxo" taldeko zure lagunek gogoan izango zaitugu beti.
Arrasaten, 2007ko otsailaren 2an.

ESKELA

## Jose Ramon Lamarain Gonzalez

Cabra del Camp-en hil zen, istripuan,
2007ko urtarrilaren 30ean, 49 urte zituela.

*Beti gogoan izango zaitugu.*

Eskoriatzako garraiolariak.
Eskoriatzan, 2007ko otsailaren 2an.

ESKER ONA

## Jose Berezibar Otxoa de Angiozar

Apaiza

Gasteizen hil zen 2007ko urtarrilaren 19an, 85 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2007ko otsailaren 2an.

ESKER ONA

## Maria Teresa Kortazar Kortazar

Justo Egañaren alarguna

Bergaran hil zen 2007ko urtarrilaren 29an, 78 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko otsailaren 2an.

ESKER ONA

## Maria Zangitu Larreategi

Antzuolan hil zen 2007ko urtarrilaren 18an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Antzuolan, 2007ko otsailaren 2an.

ESKER ONA

## Josefa Larrañaga Vergara

Bergaran hil zen 2007ko urtarrilaren 28an, 82 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko otsailaren 2an.

URTEURRENA

## Luisa Leturia Belar



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, otsailaren 3an,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Deunaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkaritza batera,
eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia:
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**



URTEURRENA

## Paco Alvarez Serrano

## Conchi Garcia Del Ama



Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 4an,
12:00etan,
Arrasateko Uribarriko parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Marcelino Arkauz Mugarriaga



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, otsailaren 3an,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Deunaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Valentin Letona Arejolaleiba



Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 4an,
12:30ean,
Eskoriatzako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

## Teresa Igartua Irizar

Guillermo Olalderen alarguna

Oñatin hil zen 2007ko urtarrilaren 25ean, 88 urte zituela.



*Zure irrifarra eta maitasuna,
betirako gurekin geldituko dira.
Sekula ez zaitugu ahaztuko.*

Zure ilobak.
Oñatin, 2007ko otsailaren 2an.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (irudia) | (irudia) | (irudia) | Berritsu / * Irudiko animalia | ▼ | Barre / Gaude | ▼ | Altxa / Baliatua | ▼ |
| (irudia) | (irudia) | (irudia) | ▶ | | ▼ | | ▼ | |
| (irudia) | (irudia) | (irudia) | Mea / Leku hartara | ▶ | | | | |
| Salaketa egin / Altzoa | ▼ | Herri handiak / Aldi | ▶ ▼ | | | | | |
| ▶ | | ▼ | | | | Baldintzetan / Sufrea | ▶ | |
| Hori argi / Emakume izena | ▶ | | | | Musika nota / Biziaren erdian | ▶ ▼ | | Zelai |
| ▶ | | | | | ▼ | Kontso. bikoitza / Kontso. bustia | ▶ | ▼ |
| Tantalioa / Merezi duena | ▶ | | Gozoa / Kontsonantea | ▶ | | ▼ | | |
| ▶ | | | ▼ | | Hizki grekoa | ▶ | | |

GOIENKARIA

## umore giroan



Kike Amonarriz

**Eskupekorik ez**

Parisen Modestori Maxim's jatetxe famatuan afaldu behar duela sartu zaio kaskezurrean. Ingurukoak ea erotu ote den, hura garestiegia dela eta. Azkenean Modestok Maxim's-en afaldu du.

Irteterakoan, atezaina ikusi eta inguratu egin da:

- Badakit harrigarria gertatuko zaizula, baina dirurik gabe geratu naiz eta utziko al zenizkidake hamar libera?

Atezainak eskaera xelebrea entzun eta kamera ezkutuko muntaiaren bat izan daitekeelakoan, txanpona emateko eskua luzatu dio. Orduan Modestok:

Gorde ezazu, eman behar nizun eskupekoa da!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 6 | | 4 | 9 | | | |
| 9 | | 8 | 2 | | 1 | | 4 | |
| | 4 | | 8 | | | | | |
| | | 4 | | | | 6 | | 2 |
| | | | | | | | | |
| 6 | | 7 | | | | 1 | | |
| | | | | | 7 | | 1 | |
| | 2 | | 6 | | 3 | 5 | | 7 |
| | | | 1 | 9 | | 4 | 3 | |

## hieroglifikoa

Gipuzkoako herria.



## hizki salda

5 mutilaren izenak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | E | R | T | A | S | I | E | N |
| A | D | E | K | E | P | A | I | K |
| I | J | A | T | U | R | R | I | A |
| B | U | U | K | X | F | B | J | T |
| S | N | D | J | R | O | S | D | I |
| I | A | N | D | E | R | M | I | O |
| F | I | R | T | B | O | N | I | A |
| E | T | J | S | U | A | J | O | N |
| E | B | I | D | A | B | E | S | O |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (irudia) | (irudia) | (irudia) | | M | | I | | H |
| (irudia) | (irudia) | (irudia) | T | I | G | R | E | A |
| (irudia) | (irudia) | (irudia) | | H | A | R | R | I |
| | S | | H | I | R | I | A | K |
| M | A | G | A | L | A | | B | A |
| | L | A | R | U | | S | I | |
| G | A | R | A | Z | I | | L | L |
| | T | A | | E | Z | T | I | A |
| D | U | I | N | A | | T | A | U |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 1 | 6 | 3 | 4 | 9 | 8 | 2 | 5 |
| 9 | 5 | 8 | 2 | 6 | 1 | 7 | 4 | 3 |
| 2 | 4 | 3 | 8 | 7 | 5 | 9 | 6 | 1 |
| 1 | 9 | 4 | 7 | 3 | 8 | 6 | 5 | 2 |
| 5 | 8 | 2 | 9 | 1 | 6 | 3 | 7 | 4 |
| 6 | 3 | 7 | 5 | 2 | 4 | 1 | 8 | 9 |
| 3 | 6 | 9 | 4 | 5 | 7 | 2 | 1 | 8 |
| 4 | 2 | 1 | 6 | 8 | 3 | 5 | 9 | 7 |
| 8 | 7 | 5 | 1 | 9 | 2 | 4 | 3 | 6 |

Hieroglifikoa: Pasaia.


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | E | R | T | A | S | I | E | N |
| A | D | E | K | E | P | A | I | K |
| I | J | A | T | U | R | R | I | A |
| B | U | U | K | X | F | B | J | T |
| S | N | D | J | R | O | S | D | I |
| I | A | N | D | E | R | M | I | O |
| F | I | R | T | B | O | N | I | A |
| E | T | J | S | U | A | J | O | N |
| E | B | I | D | A | B | E | S | O |


## bono fotoa



**Zein urtetan bukatu zuten Urkuluko urtegia?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..........

IZEN-DEITURAK ..........
TELEFONOA..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Koipesol ekilore-olioa**
Litroko botila

**1,19 €** 198 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**IÑAKI LEGUINA**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Sagarpe.**



# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Saizar

Kale-Zahar auzoa 39 / USURBIL
943 36 22 28

- Urte guztian irekita
- Txotx garaian sagardotegiko menua sagardotegian
- Jatetxean urte guztian kartara
- Igande gauean eta astelehen eguerdian itxita
- Bertako janaria
- 500 lagunendako lekua eserita
- **“Tolare” sagardotegia**



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
  Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
  Domeketan, eguerdira arte zabalik
  Astelehenetan, itxita
- **“Tolare” sagardotegia**



## Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28 / 639 05 33 10
www.iparragirre.com

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gauez bakarrik
- Zapatu eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- “Zabadiz” banatzaile ofiziala
- **“Tolare” sagardotegia**




## Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL
943 36 66 63
www.agroturismoarratzain.com • info@agroturismoarratzain.com

- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urtarriletik maiatzera arte sagardotegia irekita
- Urte osoan erretegia
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik



## Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- 55 lagunendako lekua



## Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- **“Tolare” sagardotegia**




## Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 27 20 / 608 14 33 32

- Txotx garaian zabalik.
- Enkarguz: Arkumea eta txarrikumea burduntzira eta arraina parrillan
- **“Tolare” sagardotegia**



## Uxarte

Montorra 6 / ZORNOTZA
94 630 88 15

- Bizkaiko sagardoa
- Asteburuetan urte osoan zabalik
- Astegunetan enkarguz
- Sagardotegiko menua
- 80 lagunendako lekua
- **“Sagardaogintza”**



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz
- Bertako janaria
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an eta 2006an irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan
- **“Tolare” sagardotegia**

**Ainhoa Sanchez**> Ikaslea eta futbolzalea

# "Benetan gustura Zidaneri egingo nioke dantza; atsegin dut jokalari hura"

Ainhoa Sanchez aretxabaletarraren aurpegia ezaguna da askorentzat. Izan ere, Aretxabaletako Orly tabernan egiten du lan eta, gainera, Ametzueta eta Xabi Alonso-Liverpool lagunarteko kide da. Futbola gustuko duela ageriko da. Hala, ahal duen guztietan Anoetara joaten da. Bestalde, iaz, historian lehen aldiz, Santa Ageda dantza egin zion mutil bati Herriko Plazan.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA

**Donostiatik bueltan, Orly tabernara lanera joateko prest harrapatu dugu Ainhoa Sanchez. Aretxabaletarra Psikologia ikasketak egiten ari da eta egunotan nahiko lanpetuta dabil; izan ere, azterketak gainean ditu Ainhoa Sanchezek.**



**Psikologia ikasketak egiten ari zara Donostian.**

Bai; orain dela bi urte hasi nituen Psikologia ikasketak Donostian. Ez neukan ziur zer ikasi gura nuen eta azken momentuan aukeratutako karrera izan zen. Egia esan, ez da nik espero nuena; matematika eta biologia gaiak ere lantzen ditugu, eta alde horretatik ez nago oso pozik. Baina, bestalde, oso lagun talde polita egin dut Donostian, eta horrek arindu egiten du.

**Beraz, eguaztenetan, unibertsitateko lagunekin parrandan aterako zara.**

Ez, normalean eguaztenetan Aretxabaletara joaten naiz eta ez dut parrandan ateratzeko ohiturarik izaten. Aste bukaeran Aretxabaletako Orly tabernan egiten dut lan, eta nahiago izaten dut etxera etorri eta lasai egon.

**Eta txikitan zer moduzko ikaslea zinen?**

Nik uste dut ikasle ona nintzela; irakasgai guztiak gainditzen nituen, baina inolako notarik atera gabe.

**Futbolzalea ere bazara. Txikitan mutilekin jokatzen aritzen zinenetakoa zara?**

Bai; txikitan, koadrilan, asko aritzen ginen futbolean jokatzen. Gainera, orain dela bi urte arte Arizmendiko futbol taldean jokatu dut. Beraz, futbolzalea naizela esan daiteke. Etxean betidanik ikusi izan dut futbola, aita ere zalea da eta etxean beti ikusi izan dugu futbola.

**Hamabostean behin Anoetara joaten zara. Aurtengoa ez da urte gozoa izango.**

Ez, ez nago batere pozik. Aurtengo denboraldia galdutzat ematen dut; ez dut esperantza handirik Realarekin. Azkeneko partidura joan beharko dugu, Valentziara, lehen mailari agur esatera. Esperantza izateko zerbait ikusi behar da eta nik ez dut jokorik ikusten. Beste urte batzuetan, txarto ibili diren arren, jokoan zerbait egiten zutela ikusten genuen, baina aurten hori ere ez.







JOSETXO ARANTZABAL

### PERTSONALA

**Herria:** Aretxabaleta. **Adina:** 19 urte. **Ikasketak:** Psikologia ikasketak egiten ari naiz Donostian. **Zaletasunak:** Futbola. **Gomendatzeko moduko film bat:** Bi gomendatuko nituzke: *Gladiator* eta *Diario de Noa*. **Amets bat:** Futboleko txapeldunen ligako final bat ikustea. **Inoiz egon zaren toki politena:** New York, oso polita da. **Norekin joango zinateke bidaia bat egitera:** Lagunekin. **Telebistako programa gustukoena:** Telebistan MTV ikusten dut; beraz, MTV eta futbola dira gustukoen ditudan programak.

**Zer iruditu zitzaizun Zubiaurre Anoetara itzultzea? Txistu egin zenion?**

Nik uste dut hark ez duela errurik izan; aita Athleticzalea du, eta aitak erabili egin du. Baina gauzak ondo egin ez zituenez, txistu egin nion domekan Anoetara itzuli zenean.

**Gustuko zenuen Liverpool taldea Xabi Alonso hara joan aurretik?**

Bai, Xabi Alonso joan aurretik jarraitu egiten nuen Liverpool taldea; izan ere, Valentzia taldetik joandako hainbat jokalari ezagun zeuden. Gure anaia Valentziako jarraitzailea da eta horregatik jarraitzen nituen jokalari horiek. Beraz, Xabi Alonso hara joatea izugarria izan zen. Abenduko zubian, lagun talde bat Liverpoolera joan ginen eta harekin egon ginen. Oso jatorra da; Anfield-era sartzeko sarrerak eman zizkigun eta gero gurekin geratu zen, zerbait hartzen.

**Realeko ze jokalariri egingo zenioke dantza?**

Zaila da bat aukeratzea; Realeko bati egitekotan, agian, Saviori egingo nioke. Baina benetan gustura Zidaneri egingo nioke; gustuko dut jokalari hura. Beharbada, burukadaren bat jasoko nuke, baina berdin dit! Logela guztia Zidaneren argazkiz josia daukat; nire idoloa da.

**Iaz, lehen aldiz historian, mutil bati egin zenion Santa Ageda dantza. Beti amestu izan duzu?**

Ez. Egia esan, mutilak izan ziren gu animatu gintuztenak. Tradizioa aldatu beharra ikusten zuten; neskak ere dantzan ateratzeko garaia zela uste zuten. Hasiera batean, oso neska gutxik esan genuen baietz. Beraz, nik nire burua aurkeztu nuen; nire lagun on bati egin nion dantza. Beldur pixka bat enuen, ez nekien herriko jendeak nola hartuko zuen-eta, baina erantzun polita izan zuen.

**Inauteriak ere gainean dira. Prest al duzu aurtengo jantzia?**

Zerbaitetan aritu dira lagunak, baina niri tabernan lan egitea egokituko zaidanez, tabernako lagunekin mozorrotuko naiz. Gainera, egun horietan, ahal izanez gero, Bartzelonara joateko asmoa dugu, Bartzelona-Liverpool partidua ikustera. Horretan lanean ari gara, eta sarrerak lortuz gero hara joango naiz.



**KUDEATZAILEAK** Imanol Sorianok (Arrasate) eta Antton Peñak (Aramaio) kudeatzen dute *Appleberri* webgunea. GOIENKARIA

**INTERNET** > BLOGAK

# Apple produktuei buruz jakin beharreko guztia, 'Appleberri' blogean

Imanol Soriano arrasatearrak eta Antton Peña aramaioarrak sortu dute Apple etxeko produktuak euskaraz aztertzen dituen lehenengo bloga

**XABIER URTZELAI** > ARAMAIO

Apple informatika etxearen inguruan gertatzen diren berri eta zurrumurruei buruz diharduen bloga da *www.appleberri.com*. Bertan, sagarraren marka ezagunak aurkezten dituen produktuak aztertzen dituzte, eta baita sareko zurrumurruak jaso ere.

Orain gutxi San Frantziskon (AEB) egin duten MacWorld 2007 biltzarrari jarraipen zehatza egin zioten, baina ez handik, Arrasate eta Aramaiotik baizik. Hala, besteak beste, Mac World biltzarrean aurkeztutako bi produkturen –AppleTV multimedia estazioa eta iPhone poltsikoko telefonoa– informazioa zabala batu dute blogean.

**MACZALEAK ETA EUSKALDUNAK**

Antton Peñak jarri zuen abian *Appleberri.com* webgunea, 2006ko martxoaren 4an. Eta, handik gutxira batu zitzaion Imanol Soriano. Bi debagoiendar horiek 2003an ezagutu zuten elkar, informatikako ikastaro baten. Urte hartan Soriano irakasle lanetan zebilen, eta Peña zuen ikasle.

Peñak web diseinua ikasi gura zuen eta Macintosh etxeko ordenagailuen gaineko zaletasuna piztu zitzaion. Imanol Soriano –sarean *Imamon* ezizenarekin aurkituko duzue– diseinugile grafikoa da eta urteak daramatza Mac ordenagailuekin lanean, nahiz eta, hark dioen moduan, "ofizioz Maczalea, baina afizioz software librezalea" den.

**LAGUNTZA BILA**

Bloga euren ekimenez sortu zuten, inongo laguntza barik. Orain, baina, unibertso txiki hori blog komunitario bilakatu gura dute; hau da, pertsonen parte-hartzea bultzatu gura dute. "Horretarako ez dago zertan blogaria izan, nahikoa da euskaraz idazten jakitea. Horrekin batera, ez dago zertan *Maceroa* izan, nahikoa da etxe horretako produktuak interesatzea. Behar den gauza bakarra da Internetera konexioa duen ordenagailu bat edukitzea". Laguntzeko prest bazaude *Appleberri*-n duzu informazio guztia.

**INFORMATIKA** > SOFTWARE BERRIA

# Hitlerrek intimitatean esandakoak argitu dituzte

Ezpainak irakurtzen dituen software berri bati esker egin dute lan hori

**X.U.** > ARETXABALETA

Orduko bideokamerek ahotsa grabatzeko gaitasunik ez zutela jakinda, Adolf Hitlerrek lasai asko egiten zuen berba, bideoz grabatzen zuten bitartean. Orain, ezpainak irakurtzeko gauza den software bati esker, diktadoreak Eva Braun maitaleari esaten zizkionak itzuli ahal izan dituzte, eta baita judutarren kontra botatakoak ere: "Orduan jakin nuen batzuek diotena egia dela, txerriak euren okela jateko gauza direla". Maitaleari berba egiten zionean, berriz, softwareak erakutsi du gozoagoa zela: "Zertarako ari zara gizon zahar bat filmatzen? Neuk filmatu beharko zintuzkedan zu". Eta baita honako hau ere: "Soinekoa ez daukazula ondo? Pentsa nik zelako arazoak dauzkadan".



**PARISEN** Hitler, hainbat jeneral lagun dituela (1940). GOIENKARIA

**INTERNET** > WEBGUNEAK

# Euskaraz ikasi, bizi eta lan egiteko,'Prestakuntza.net'

Artez Euskara Zerbitzuak jarri du zerbitzu hori abian, eta doakoa da

**X.U.** > ARETXABALETA

Lan esparrua euskalduntzea etorkizuneko erronka da. Euskara arlo sozio-ekonomikoan normalizatzeko bidean, euskaraz ematen den prestakuntza ezinbesteko tresna bihurtu da. Zoritxarrez, oraindik ikastaro eta prestakuntza gaiak jorratzerakoan euskara normalizatu gabe dago; ez da oso ohikoa euskaraz ikastaroak izatea kalitate, segurtasun, ofimatika edo antzeko arloetakoak.

Hori horrela, Artez Euskara Zerbitzuaren asmoa hutsune horiei erantzuteko baliabide bat eskaintzea izan da, hau da, euskaraz ematen den prestakuntza bilduko duen webgunea egokitu eta jendearen zerbitzura jartzea. Eta horretarako sortu dute, hain zuzen ere, *www.prestakuntza.net* webgunea. Doanekoa, erabilerraza, eta euskaraz egindakoa.

**Zure negozioaren erakusleihoa Interneten**

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

**www.goiena.net/blogak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| /aebpn | /dragon-oriental | /gertu | /maulanda | /tabernaberri |
| /aiastui | /dukiena | /gorkataxi | /mayte | /udalaitz |
| /aretxargi | /ego | /gurea | /merkeopari | /urdeki |
| /argi-plastik | /ekilore | /guztizeder | /multiopticas | /urbieta |
| /arregi | /ekin | /hamaikataberna | /ohiak | /vitoria |
| /atai | /elejalde | /itxaseder | /ogizun | /zainduz |
| /azkarate | /ezkutuorly | /irudisport | /okipark | /ziripot |
| /bastida | /galgorri | /jracing | /otzeta | |
| /briz-aseguruak | /gallastegi | /joseba | /pando | |
| /BZ-sistemas | /ganesha | /korozabaleta | /4quattro4 | |
| | /garaia | /markiegi | /richimaier | |

**Eta baita ere:**
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.uxarte.net




Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

**berriak**

> GOITB

### Euskal bideo klipen gaineko saio sorta, laster GOITBn

Euskal bideo klipen gaineko saio sorta bat gertatzen ari da Goiena Telebista. Azken asteotan Danbaka musika lehiaketako kontzertuak ikusteko aukera izan duzue GOITBn. Elgetako kontzertuen lekukoa hartuko du datozen egunotan euskal bideo klipei buruzko saioak. Talde beteranoen ibilbidea eta azken nobedadeak ezagutzeko aukera izango duzue aipatutako saio berrian.

> GOITB

### Bailarako informazioa, GOITBko albistegietan

Bailaran gertatutako albisteak jarraitzeko aukera duzue egunero GOITBn. Goiatz Arana Ormaiztegiko kazetariak aurkezten du arratsaldeko saioa: 14:45ean izaten da albistegia. Iluntzean, berriz, Larraitz Zeberio irundarrak aurkezten dizkigu bailarako albiste nagusiak: lehen emisioa, egunero, 19:45ean Julen Iriondo kazetari oñatiarra da GOITBko albistegietako edizio arduraduna.

>ARRASATE IRRATIA

### Irratian kultura ekitaldietarako sarrerak eskuragai

Asko izaten dira *Igo autobusera!* saioan proposatzen ditugun kultura ekitaldiak. Horietako askorentzako, gainera, sarrerak izaten ditugu. Datorren astean Amaia antzokian izango den *Ni ez naiz txotxolo* haurrentzako antzezlanerako sarrerak dagoeneko baditugu. Horiekin batera, 3.60 aretoan izango den kontzerturakoak ere bai.

Eskuratu gura badituzu, deitu 943 71 17 31 telefonora.

> ARRASATE IRRATIA

### Drakes eta Kerobia taldeak, azken ‘Danbaka' saioan

Urriaren 28an ekin genion Arrasate Irratian Danbaka musika saioak eskaintzeari. Harrezkero, astero izan dituzue ibarreko bi talde edo bakarlari ezagutzeko aukera. Dagoeneko, baina, azken kontzertuen txanda heldu da.

Horrela, bada, zapatuan, entzulearen saria eskuratu zuen Drakes taldea izango dugu; domekan, berriz, Danbaka finalean , talde gonbidatua izan zen Kerobia taldearen doinuak entzungai.

**‘ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Abel Barriola 'Ilunpean' saioko gonbidatua gaur

Banakako azpitxapelduna Oihana Elortzarekin arituko da solasean gaur, egubakoitza



**BARRIOLA** Pilotari leitzarra GOITBn izango da gaur. GOIENKARIA

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Abel Barriola pilotari nafarra izango da gaurko gonbidatua *Ilunpean* saioan. Pilotari leitzarra Oihana Elortza kazetari oñatiarrarekin arituko da solasean GOITBko platoan, 22:15ean hasita. Barriolak banakako txapelketa irabazi zuen 2002an baina harrezkero lesioekin arazo dezente izan zituen. Aurtengo denboraldian berriro izan dugu onenekin eta bigarren aldiz banakako txapela janzteko zorian egon zen abenduan: 22-21 galdu zuen Irujoren aurka, Gasteizen. Barriola gertutik ezagutzeko aukera izango dugu gaur.

**ESKUBALOIA** > ZAPATUAN ETA DOMEKAN GOITB-N

# Arrate eta Darien Logroño eskubaloi taldeen arteko partidua Oñatin, zapatuan

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Asobal Ligan ari diren Arrate eta Sarien Logroño taldeek adiskidantzako partidua jokatuko dute zapatuan Oñatiko Zubikoa kiroldegian, 18:30ean. Txanda dendarien elkarteak antolatu du partidua, Aloña Mendi klubeko eskubaloi sailaren laguntzarekin. Sarrera doanekoa izango da.

Zalantzarik gabe, goi mailako eskubaloia ikusteko aukera izango dugu zapatuan Oñatin. Alemanian jokatzen ari den munduko txapelketa dela eta, Logroñokoei eta eibartarrei ondo etorriko zaie zapatuko partidua, sasoiari eusteko eta ligako hurrengo partiduak gertatzeko. Mailari eustea da bi taldeen asmoa. Hala ere, eibartarrak hobeto dabiltza: sailkapenaren erdian daude, 13 punturekin. Darien Logroño, berriz, 14. postuan da, 8 punturekin. Hiru partidu besterik ez dute irabazi errioxarrek

Zapatuan bertan eskainiko dizuegu Oñatin jokatutako partidua, 21:00etan. Domekan berriro ikusteko aukera izango duzue, 15:30ean.

**telebegi**

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

## Segi ondo

Hemendik urte batzuetara, Aznar, Bush, Garzon eta tankerako batzuk (gaurkoagoen edo gertuagokoen izenik ez dut aipatuko) zuri-beltzean bezalaxe agertuko zaizkigu memorian. Antzinako pertsonaje, giro eta bizipenen irudi hutsak izango dira. ure aurrekoek gerra denborako pasadizuen parekoak izango ditugu, etorkizunean, oraingo kontuak presente

Eta akaso, hemendik urte mordoxka batera, 2007ko hasieran gazte batzuen atxiloketen irudiak berrikusi ahal izango ditugu, minik sentitu barik. Legez kanpoko gazte taldeetako kideak izatera kondenatu eta nola eraman zituzten. Haietarikoak ziren Amaia eta Igor izeneko bi, eskuak lotuta, laubiderlau berdetan sartu zituztenean. Gogoan izango dugu, ETBko aurkezleari entzun barik ere, bikote hark aste gutxiko titi-umea zain zuela etxean.

Hemendik urte batzuetara, Ilargi izeneko neskatila jaio berri hari, albistegiaren irudiak erakutsi, eta behin eta berriro esan ahal izango diogu bere gurasoen adorea eta xamurtasunak hunkitu egin gintuela.

**arrasate irratia**

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Moises Altuna, Udaleko zerbitzuburuarekin, Arrasateko aisialdirako gune zabalen gainean; lore moztuak sikatzeko aholkuak, Irene Zenitagoiaren eskutik...
**16:00** Danbaka: Drakes.
**23:00** Danbaka: Drakes.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
**16:00** Danbaka: Kerobia.
**23:00** Danbaka: Kerobia.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

**GOITBko programazioa**

**Egubakoitza, 2**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Danbaka-Kerobian. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu:Oxel Erostarbe. **16:15**Iragana Gogoratuz **16:45** Albisteak. **17:15** Sherlock Holmes. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Elurteei buruzko saioa. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Hitz bitan **22:15**Ilunpean-Abel Barriola. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Jazmina. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 3**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Nonochan, Sherlock Holmesk eta Triki Trake Tron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Jazmina. **12:00** Astekoak. **12:15**Bizitegia. **12:30** Erreportajea **13:00** Eltze beroa **13:30** Elurteei buruzko saioa. **14:30** Danbaka. **15:00** Teknopolis. **15:30** Iragana gogoratuz. .**16:00**Berbaire. **16:30** Ilunpean-Abel Barriola. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Klip@. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Erreportajea. **21:00**Eskubaloia:Arrate-Logroño. **22:30**Ilunpean-Abel Barriola. **23:00**Didjeridu. **23:30**Danbaka. **00:00**Berbaire. **00:30**Danbaka. **01:30** Emisio amaiera.

**Domeka, 4**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes, Nonochan eta Triki Trake Tron. **11:00** Hitz bitan. **11:30**Danbakako kontzertuak.**13:00**ur eta lur. **13:30**Berbaire. **14:00**Didjeridu. **14:30**Ilunpean. **15:00** Ikusmira.**15:30** Eskubaloia: Arrate-Logroño. **17:00**Marrazki bizidunak. **19:30**Eltze beroa. **20:00** Astekoak. **20:15**Gatza ta berakatza. **20:30**Erreportajea. **21:00** Elurteei buruzko saio berezia. **22:00**Berbaire. **22:30**Iragana gogoratuz. .**23:30** Ilunpean.**00:00**Danbakako kontzertuak.**01:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 5**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Teknopolis. **14:15** Hitz bitan. **14:45** Albisteak. **15:15** Ilunpean. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Gatza ta berakatza. **16:00**MKT. **16:15**Jazzmina. **16:45** Albisteak. **17:15**Marrazki bizidunak. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ur eta lur. **18:15** Eltze beroa. **18:45** Albisteak. **19:15** Danbaka. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **20:45** Berriak. **21:15** Harmailatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Erreportajea. **22:15** Hasiberriak. **22:45** Berriak. **23:15**Didjeridu. **23:45** Gaurkoak. **23:47** Ikusmira. **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena,6**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Harmailatik. **14:15** Erreportajea. **14:45** Albisteak. **15:00** Didjeridu. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak. **16:15** Ikusmira. **16:45** Albisteak. **17:15** Marrazki bizidunak. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean.**18:15** Gatza ta berakatza. **18:30** MKT. **18:45** Albisteak. **19:15** Harmailatik. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan. **20:45** Berriak. **21:15** Berbaire. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Danbaka: Kerobia. **22:15** Harmaillatik. **22:45** Berriak. **23:15**Hitz bitan. **23:45** Gaurkoak. **23:47** Harmailatik. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 7**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Danbaka-Kerobia. **14:45** Albisteak. **15:15** Ur eta lur. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak. **16:15**Eltze beroa-Txangurroa. **16:45**Albisteak. **17:15**Marrazki bizidunak. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Harmailatik. **18:15** Erreportajea. **18:45** Albisteak. **19:15** Danbaka. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. **20:45** Berriak. **21:15** Debarri-Bergara. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Debarri-Bergara. **22:15** Hasiberriak. **22:45** Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45** Gaurkoak. **23:47**Erreportajea. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 8**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Debarri:Bergara. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Teknopolis. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Erreportajea. **16:15** Ikusmira.**16:45** Albisteak. **17:15** Marrazki bizidunak.**17:45** Gaurkoak. **17:47** Eltze beroa.**18:15** Hasiberriak. **18:45** Albisteak. **19:15**Gatza ta berakatza. **19:30**MKT.**19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan. **20:45** Berriak. **21:15** Berbaire. **21:45** Gaurkoak. **21:47**Danbakaa. **22:15** Didjeridu. **22:45** Berriak. **23:15**Erreportajea. **23:45** Gaurkoak. **23:47** Ilunpean. **00:15** Emisio amaiera.

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

**BIDABURU AROZTEGIA**
Oñati
• Era guztietako berrikuntza lanak, leihoak, neurri guztietako atariak, zoruak, eta abar.
Zubillaga 20
T: 943 78 35 00 / 627 48 58 13
bidaburu.h@euskalnet.net

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Otsailak 2

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



BERGARA
**> Axel Rudy Pell-ek emanaldia egingo du zapatuan Jam aretoan**
Axel Rudy Pell musikari alemaniarrak eta haren taldeak emanaldia egingo dute zapatuan, Jam aretoan. 20:00etan irekiko dute aretorako sarrera. Axel Rudy Pell-ekin batera talde gonbidatua izango da.

## Antzerkia



ARRASATE
**> 'Una visita inesperada' antzezlana egingo du Txalo taldeak Amaia antzokian**
Txalo antzerki taldeak Agatha Christie idazle ezagunaren *Una visita inesperada* misteriozko antzezlana egingo du Amaia antzokian. Etzi, domeka, izango da hori, 19:30ean, Amaia antzokian.

## Ipuin emanaldia



BERGARA
**> Patxi Hernandok ipuin emanaldia egingo du Agorrosin Ekintza Gunean**
Patxi Hernando Otxe ipuin kontalariak *Tik Plun planetako altxorra* izeneko emanaldia egingo du domekan. Agorrosin Ekintza Guneko bigarren solairuan izango da hori, 17:00etan. Sarrerak euro bat balio du.

# Antzerkia

OÑATI
**> Marsel Magoak emanaldia egingo du**
Gaztetxoendako emanaldia egingo du mago ezagunak. Elkar Hezi ikastetxeak antolatu du ekitaldia.
Bihar, zapatua, 17:00etan, ikastetxean.

ANTZUOLA
**> Pello Añorga ipuin kontalariaren emanaldia liburutegian**
Gaztetxoendako ipuinak, istorio harrigarriak eta kontakizun liluragarriak kontatuko ditu Pello Añorga ipuin kontalariak.
Bihar, zapatua, 18:00etan, liburutegian.

# Musika

ESKORIATZA
**> Musika irlandarra zuzenean Inkernu tabernan**
Bick Macfarland eta Terry O'Neill musikari irlandarrek zuzeneko kontzertua egingo dute.
Bihar, zapatua, 22:30ean, Inkernu tabernan.

ARRASATE
**> Elektro DJ sesioa bihar 3.60 aretoan**
LalasVs.Asier meataka! disko jartzaileek emanaldia egingo dute.
Bihar, zapatua, 03:00etan, 3.60 aretoan.

ARRASATE
**> The Thunderbolts taldearen kontzertua**
Dictators, Manowar eta Sex Museum taldeetako kide izandakoek osatzen dute taldea. Sexty Sexers taldeak ere egingo du emanaldia.
Gaur, egubakoitza, 23:00etan, 3.60 aretoan.

# Hitzaldiak

ARRASATE
**> Elkartegintzaren aje eta desafioen gaineko hitzaldia**
Lankiko Joseba Azkarragak *Elkartegintzaren ajeak eta desafioak: gizartea nora doa?* delako berbaldia egingo du.
Hilaren 9an, 18:00etan, kultura etxean.

ARETXABALETA
**> AHTren gaineko bi hitzaldi antolatu dituzte**
*Herriak bizirik, Amalurraren txikizioari stop!* lelopean antolatu dituzte. Hilaren 6an izango da lehenengoa eta AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kide batek egingo du berba. Bigarrena hilaren 8an izango da: Iñaki Varonak Vasco-Navarro trenaren gainean jardungo du. Biak ala biak, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Horrekin batera, hilaren 7an, bideo emanaldia ere egingo dute 21:30ean, Orli, Urbaltz, Arlutz eta Txiki tabernetan eta udaletxe zaharrean.
AHTren kontrako taldeak eta Loramendik antolatu dituzte ekitaldiok.

OÑATI
**> Javi Subversion X-ek hitzaldia egingo du**
*Las drogas, la calle, el grupo y la marginacion* delako berbaldia egingo du.
Hilaren 10ean, 18:00etan, Portu tabernan gazte asanbladak antolatuta.

# Erakusketak

OÑATI
**> Jose Angel Aretaren argazki erakusketa, Aroztegi aretoan**
Jose Angel Areta Goñi *Juxe*-k *Amazoniako oihanetik Pazifikora* izeneko argazki erakusketa irekiko du gaur, egubakoitza, Aroztegi erakusketa aretoan.
Otsailaren 25era arte egongo da ikusgai.

BERGARA
**> Josune Eguren margolariaren erakusketa**
Arrasateko margolariak Nahikari tabernan jarri du margo erakusketa. Paperean egindako hamaika marrazkik osatzen dute erakusketa.
Nahikari tabernan hil bukaera arte.

# Ospakizunak

ESKORIATZA
**> Herriko kintoek dantza saioa egingo dute**
Santa Ageda eguna ospatzeko herriko kintoek dantza saioa egingo dute.
Hilaren 5ean, 19:00etan, plazan..

PROPOSAMENA

BERGARA ETA ANTZUOLA
## > San Blas jaiak aste bukaeran

Gaur, egubakoitza, hasiko dira jaiak Bergarako Murinondo auzoan. 20:30ean, auzo afaria egingo dute eta gero, erromeria Lutxurdio soinu-jotzailearekin. Bihar, San Blas eguna, meza nagusia egongo da 11:00etan, eta gero, salda eta txorizoa banatuko dute. Domekan, berriz, Aimar Irigoien Euskadiko txapeldunak harri-jasotze saioa egingo du. Antzuolan, Basalde auzoan meza egingo dute zapatuan, 12:00etan. Gero, salda eta txorizoa egongo da.
Gaur, egubakoitza hasi eta domekara arte.



OÑATI
**> Kantuan aterako dira Errekalde Herri Eskolakoak**
Gaur, egubakoitza, Santa Agedaren harira, koplak abesten aterako dira kalez kale eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak. Eskolatik plazaraino joango dira.
Gaur, egubakoitza, 18:00etan.

ARETXABALETA
**> Santa Ageda eskean jardungo dute egun osoan**
Santa Ageda eskean aterako dira kintoak baserriz baserri. Goiz eta arratsalde jardungo dute kantuan eta eskean trikitilarien laguntzarekin. Herriko elizate guztietatik pasatuko dira. Abesbatzako kideak ere kantuan arituko dira herriko kaleetan
Etzi, domeka, jardungo dute.

ARETXABALETA
**> Hiru meza San Blas eguna ospatzeko**
Zapatuan izango da hori: 08:00etan, Agustindar mojen komentuan; 10:30ean, Apotzagaetxebarri auzoko Salluente ermitan eta 19:30ean, parrokian.
Jakiak bedeinkatuko dituzte meza guztietan.

ARRASATE
**> Auzoko jaiak ospatuko dituzte Gesalibarren**
Gaur hasiko dituzte jaiak eta bertso-afaria egingo dute Lizaso eta Sustrai Kolinarekin. Bihar, zapatua, Santa Ageda kantuan ibiliko dira eguerdian etxez etxe. Domekan, berriz, Gesalibarko eta Garagartzako abesbatzek abestutako meza izango da, 12:00etan.
Gaur hasi eta domekara arte.

# Bestelakoak

OÑATI
**> Mitologiaren gaineko diapositiba emanaldia**
Herriko mitologiaren gaineko diapositiba emanaldia antolatu du gazte asanbladak. Imanolek egingo du emanaldia.
Bihar, zapatua, 17:30ean, Portu tabernan.

# Lehiaketak

GIPUZKOA
**> Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako izenematea**
Irailean izango den arren, dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Txapelketan izena eman nahi duenak hiru modutan egin dezake: *www.bertsozale.com* helbidean, Gipuzkoako Bertsozale elkartera deituta (943 67 05 75) edo elkarteak Tolosan duen egoitzara jota.
Izenematea otsailaren 28ra arte luzatuko da.

## nire aukera



**Judith Arriolabengoa**
Aramaioko Udaleko langilea

## Araba aldera paseatzera

Zapatuan "beti egoten dira etxeko lanak egiteko"; hortaz, domekan disfrutatzen du batik bat aste bukaeraz Arriolabengoak. Familiarekin batera disfrutatzen du domekaz. Ez zaie oso goiz ibiltzerik gustatzen: "Presa barik ibiltzen gara. Lo pixka bat egitea ere gustatzen zaigu", dio. Gero, tortilla batzuk prestatu eta egun pasa joaten dira, mendi buelta edo paseo polit bat egitera.

Azken boladan Araba aldera joaten dira askotan. Paraje oso ederrak daudela dio eta umeekin ibiltzeko oso ibilbide egokiak. Horixe, Arriolabengoaren gomendioa.

**Hortaz, aste bukaera familiarekin pasatzea gustatzen zaizu.**
Bai, eta seme-alabak dituzten lagunekin pasatzea ere gustatzen zait. Umeek umeekin pasatzen dute-eta ondo.

**Mendi bat aukeratu beharko bazenu?**
Aramaion, Orixol edo Jarindo. Debagoienetik kanpora, berriz, Gorbeia inguruak oso politak dira, eta baita Izkiko parke naturala ere.

**Afaltzera edo bazkaltzera joateko leku bat?**
Barajuengo merenderoa.

**Nora joateko hartuko zenuke Abiadura Handiko Trena? Edo ez zenuke sekula hartuko?**
Orain arte ez dut beharrik izan. Gainera, iruditzen zait ez dagoela lekurik AHT eraikitzeak ekarriko duen galera merezi duenik. Abiadura Handiko Trenarekin gehiago dugu galtzeko irabazteko baino.

# Zinema

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**

**Supertramps**
Domeka: 17:00.

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**El ilusionista**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Happy feet**
Zapatua: 17:00.

**Nueve vidas**
Eguena: 20:30.

### ELGETA
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**El planeta del tesoro**
Domeka: 17:30.

**Nadie es perfecto**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**The Holiday**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Julieta fokatxo xelebrea**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**Himalaya**
Eguena: 20:00.

**SANTA ANA**

**Harri magikoaren bila**
Eguaztena: 17:30.

### ESKORIATZA
**IBARRRAUNDI MUSEOA**

**Pipi Galtzaluze**
Domeka: 17:30.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Apocalypto**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Noche en el museo**
17:30, 20:00, 22:30.

**Pequeña Miss Sunshine**
17:30, 22:30.

**The Queen**
17:00, 22:30.

**La caja Kovak**
20:00.

**Bobby**
17:30, 22:30.

**Rocky Balboa**
17:30.

**Mas extraño que la ficcion**
20:00.

**El truco final. El prestigio**
17:45.

**Atrapa el fuego**
20:30, 22:30.

**Apocalypto**
17:00, 19:45, 22:30.

**Miguel y Willyam**
17:30, 20:00, 22:30.

**En busca de la felicidad**
17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Babel**
17:00, 19:45, 22:30.

**El cubo magico**
17:00.

**Darshan**
17:30, 20:00, 22:30.

**El libro negro**
Egubakoitza: 17;00, 19:045 22:30.

**Luces al atardecer**
17:30, 20:00, 22:30

**Maria Antonieta**
17:30, 20:00, 22:30

**La masai blanca**
17:15, 19:50, 22:30.

**Fuerte Apache**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:45, 20:30, 22:30.

**ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

**Pulse**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Noche en el museo**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00

**Fuerte Apache**
20:30, 23:00.

**Infiltrados**
16:00, 19:00, 23:00.

**El laberinto del fauno**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00

**Más extraño que la ficción**
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**La caja Kovak**
20:30, 23:00.

**Eragon**
20:30, 23:00.

**Arthur y los Minimoys**
16:00, 18:15, 20:30.

**Happy feet**
16:00, 18:15.

**Deja Vú**
23:00.

**Ratonpolis**
16:00, 18:15.

**Colegas en el bosque**
16:00, 18:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**En busca de la felicidad**
12:15, 15:45, 18:00, 20:20, 22:35, 00:50.

**Ases calientes**
12:15, 15:45, 18:00, 20:20, 22:35, 00:45.

**El libro negro**
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

**Pulse**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Sin Chan**
12:15, 16:20, 18:20.

**El ilusionista**
12:15, 16:45, 17:50.

**Noche en el museo**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Dreamgirls**
20:00, 22:30.

**Cry wolf**
12:15, 15:10, 18:10.

**Apocalypto**
18:45, 21:30, 00:15.

**Bobby**
12:15, 16:05, 18:10.

**Rocky Balboa**
20:20, 22:20, 00:20.

**Eragon**
12:15.

**El truco final: El prestigio**
19:30, 22:05, 00:40.

**Arthur y los Minimoys**
12:15, 16:40.

**Deja Vu**
20:00, 22:25, 00:50.

**El Ratoncito Perez**
12:15, 15:50, 17:40.

**Happy feet**
12:15, 16:00.

**El laberinto del fauno**
20:25, 22:40, 00:55.

**El perfume**
12:15, 16:10, 18:45.

**The Queen**
21:30, 23:30.

**Infiltrados**
18:15, 21:15, 00:15.

**Volver**
20:00, 22:25, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**En busca de la felicidad**
12:00, 17:00, 19:40, 22:15, 01:00.

**Ases calientes**
12:15, 16:00, 19:10, 22:30, 00:45.

**Miguel y Willyam**
12:05, 17:00, 19:40, 22:15, 01:00.

**Noche en el museo**
12:10, 15:45, 18:00. 20:15, 22:30, 01:00, .

**Dreamgirls**
17:00, 18:30, 22:00, 00:30.

**Cry wolf**
18:20, 20:20, 22:25, 00:30.

**Apocalypto**
12:00, 16:25, 19:15, 22:10. 01:00.

**Ekipo Ja**
12:15, 16:00, 18:05, 20:10.

**El truco final**
12:10, 16:30, 19:20, 22:05, 00:45.

**Rocky Balboa**
19:30, 22:00, 00:30.

**Banderas de nuestros padres**
22:15, 01:00.

**Babel**
12:00, 16:10, 19:10, 22:05, 01:00.

**Eragon**
12:00, 16:00.

**Arthur y los Minimoys**
12:10, 17:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Eragon** **
AEB, 2006. Zuzendaria: Stefen Fangmeier. Aktoreak: Ed Speleers, Jeremy Irons, Sienna Guillory.
70 min. Akziozkoa, fantasiazkoa.
Eragon-ek harri urdin distiratsua aurkitzen du basoan, eta horrekin negurako jatekoak erostea pentsatzen du. Baina laster konturatuko da harria dragoi baten arrautza dela, eta magia eta boterez betetako mundu baten sartzen da horrela.

**Apocalipto** ***
AEB, 2006. Zuzendaria: Mel Gibson. Aktoreak: Gerardo Taracena, Raoul Trujillo, dalia Hernandez, Rudy Youngblood.
136 min. 18 urtetik gorakoendako.
Maien inperioan girotutako filma. Herri baten lasaitasuna apurtuko da inbasio baten ondoren. Beldurra eta zapalkuntza nagusi diren mundu batera eramango dute gizon bat. familiaren ondora itzultzeko ahalegina egingo du, etxera, baina zaila izango da.

**Ekipo Ja**
Espainia, 2006. Zuzendaria: Juan Muñoz. Aktoreak: J. Muñoz, Jose Carabias, Juan Salazar.
90. min. Komedia.
Juan de Diosek eta Ekipo Ja-ko haren lagunek zigilu berezi bat daukate; haiek ez dakite, baina zigilua duenaren desioak errealitate bihurtzen dira. Markesa bat altxor hori lortzen saiatuko da.

**Babel** *****
AEB, 2006. Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Iñarritu. Aktoreak: Brad Pitt, Cate Blanchett, Gael Garcia Bernal, Elle Fanning, Koji Yakusho, Adriana Barraza, Rinko Kikuchi.
142 min. Drama. 13 urtetik gorakoendako.
Estatu Batuetako bikote bat Marokon dagoela gertakari larri batek gertakizun katea ekarriko du. Gertakizun kate horrek lau kontinentetako familia banarengan eragingo du. Jatorri eta kultura oso ezberdinetakoak badira ere, laurek ondorio bera aterako dute: familia da benetako kontsolamendua.

**El ilusionista** ***
AEB, 2006. Zuzendaria: Neil Burger. Aktoreak: Edward Norton, Jessica Biei, Paul Giamatti, Rufus Sewell, Eddie Marsan, Vincent Franklin.
110 min. Drama. 13 urtetik gorakoendako.
Begi bistakoak ez du zertan egia izan. Egoera horretan errealitatea non bukatu eta fikzioa non hasten den bereizten saiatuko dira eskujokari bat eta polizia bat.

**Banderas de nuestros...** ****
AEB, 2006. Zuzendaria: Clint Eastwood. Aktoreak: Ryan Phillipe, Jesse Bradford, Adam Beach.
132 min. 18 urtetik gorakoendako.
1945 urteko otsaila. II. Mundu Gerra. Iwo Jimako bataila odoltsuan, sinbolo bihurtuko den argazki bat aterako dute: sei soldadu estatubatuar agertzen dira, Suribachi mendian, AEBetako banderari eusten. Clint Eastwoodek guduari buruzko beste film bat egin du, baina japoniarren ikuspegitik.

**Aquellos dias felices**
Frantzia, 2006. Zuzendaria: Eric Toledano, Olivier Nakache. Aktoreak: Jean-Paul Rouve, Jean Benguigui, Omar Sy.
103 min. Adin guztietarako.
Vincent Rousseauk udaleku batzuk zuzendu behar ditu aurrenekoz. Hiru astez, neska-mutikoen kolore guztietako istorioak gertutik biziko ditu. Gaztetxoendako komedia da.

**Inflitrados** ***
Alemania-Frantzia-Espainia, 2006. Zuzendaria: Tom Tykwer. Aktoreak: Dustin Hoffman, Ben Whishaw, Alan Rickman.
147 min. 18 urtetik gorakoendako.
Paris, XVIII. mendea. Jean-Baptiste Grenouillek mundua usaimenaren bitartez ikusten du. Amestutako lurrina lortzeko ezagutzak izango ditu, gainera. Hainbat emakumezkok dute lurrin preziatu hori.

**Happy feet** **
AEB-Australia, 2006. Zuzendaria: George Miller. Marrazki bizidunak.
98 min. Adin guztietarako.
Pinguinoen herrialdean, Antartikan, kantu baten bitartez aurkitzen dute bikotekidea pinguino espezie bakoitzeko kideek. Baina Mumblek oso zaila du bikotea aurkitzea, ez baitaki kantatzen. Dantzan, ordea, primeran daki.



## Banderas de nuestros padres ***

**Zuzendaria:** Clint Eastwood.
**Aktoreak:** Ryan Phillipe, Jesse Bradford, Adam Beach.
AEB. 2006.

Askotan argazkiek eta irudiek oso balore sinbolikoa izatea lortzen dute. Bost gudari AEBetako bandera altxatzen Iwo Jima irlako mendate batean, II. Mundu Gerran AEBek izandako eginkizunaren indar mitikoa zabaltzeko balio izan zuen. Clint Eastwoodek argazki hori erabiltzen du guda bateko bi alderdi desberdinak aztertzeko. Alde batetik, zuzendariak erakusten digu, oso errealismo handiz, batailetan izaten diren heriotzak, indarkeria eta sufrimendua fisiko eta psikikoa. Eta beste aldetik, filmak politikariek eta mandatariek komunikabideen laguntzarekin duten ahalmen manipulatzailea erretratatzen du, historiaren itzalak azaltzen eta honi begirada desmitifikatzaile bat emanez. Kontatzen zaigun istorioa duela 50 urte baino gehiago gertatutakoa izan arren, argi ikusten da filmaren mezua gaur egungo egoeraren salaketa egiteko egokia dela. Manipulazioa garai guztietan gertatzen da.

*Banderas de nuestros padres* oso ondo filmatuta dago, Eastwoodek narratzaile moduan zuzendari klasikoen dotorezia, erritmo eta garbitasuna du, baina ez du *Sin Perdón*, *Los puentes de Madison* edo *Mistic Ryver*-en intentsitaterik. Agian, gidoitik dator errua, falta egiten zaigu pertsonaiei buruz gehiago jakitea, hildako pertsonaiak ia ez dakigu nolakoak ziren, eta ikusten dugun gauza asko nahiko ezagunak egiten zaizkigu. Gidoilariak egoera batzuk gehiegi azpimarratzen ditu, eta bukaerako zatiak Spielbergek –filmaren ekoizlea– halako istorioei ematen dien kutsu bigun samarra du.

**Antonio Zabala**



Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-02-02

# Bizkaiko Misterra, Bergarakoa

**MISTER BERGARARRA** Javier Gartzia 23 urteko bergararrak eguaztenean irabazi zuen txapelketa, Barakaldon

**MODELOA** Aurtengo ikasturtean Modelo ikasketak egiten hasi da Bilbon, eta han animatu zuten txapelketara aurkeztera

**ETORKIZUNA** Publizitatean edo ibiltokian lan egin nahiko luke etorkizunean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Javier Gartzia 23 urteko bergararra dugu aurtengo Bizkaiko Misterra. Eguaztenean Barakaldoko Novotel hotelean jokatutako finalean, bergararra beste zortzi finalistei nagusitu zitzaien. Gartzia Bilboko Biem modeloen agentzian ari da eta han animatu zuten lehiaketara aurkeztera: "*Casting* bat gaindituta finalerako txartela lortu nuen. Egia esan, oraindik ez dut sinisten lehiaketa irabazi dudanik. Aurten hasi naiz modelo ikasketak egiten, eta finalean desfilatu nuen lehen aldiz". Arropa informalarekin, bainujantziarekin eta etiketa-jantziarekin desfilatu behar izan zuen finalean. Lehiaketa irabaztearren, Marina D'Oren aste bukaera bateko egonaldia eta produktu kosmetikoak eskuratu ditu. Hainbat lagunen eta familiakoen laguntza izan zuen Barakaldon. Bizkaiko Mister berriak Bergarako GKN enpresan dihardu lanean.

Euskadiko Mister eta Espainiako Mister lehiaketetan parte hartuko du Gartziak. Aurrerantzean, modelo lanetan hasi nahiko luke, ibiltokian edo publizitatean: "Betidanik gustatu zait moda, eta jarraitzen dut, bai. Ondo janztea gustatzen zait, eta normalean Bilbon erosten dut arropa. Calvin Klein eta Roberto Cavalli dira nire marka faboritoetako bi, baina markari baino gehiago, arropari berari ematen diot lehentasuna. Kremak ere erabiltzen ditut gorputza zaintzeko. Gustuko modeloak? Andres Belencoso eta Eva Gonzalez, adibidez". Gorputzeko atalen bat goraipatzeko orduan irribarrea aipatzen du.

**NESKALAGUNIK EZ, ORAINGOZ**

Kirolzalea da Javier Gartzia: "Sasoian egotea ezinbestekoa da, eta astean hiru aldiz gimnasiora joaten naiz; korrika egitea eta eskiatzea ere atsegin dut". 1,83 metro garai da, begiak marroi kolorekoak ditu eta... neskalagunik ez duela diosku: "Ez, lagun onak bai, baina neskalagunik ez oraingoz... Neska beltzaranak eta altuak gustuko ditut eta ahoan arreta berezia jartzen dut".



**JAVIER GARTZIA** Bizkaiko Misterrak 23 urte ditu. Argazkian, eguazteneko finala irabazi ondoren, ibiltokian. ANER EZENARRO

**ahobero**

## "Irabaz diezaiekegu Sevillari eta Madrili, eta perspektiba izango litzateke ezberdina erabat"

**Luis Ansoalde** > Realeko Administrazio Kontseiluko bozeramailea

Eta Bartzelonari, eta Zaragozari, eta amesten hasita, baita ere Liverpooli, Milani... Itxaropena da galtzen den azkena, baina orain arte 20 partidutan bi talderen aurka bakarrik nagusitu bada Reala, zaila da baikor izatea.

**iturri onetik**

## Mikel Gonzalez Realeko jokalariaren peña martxoaren 24an aurkeztuko dute

Mikel Gonzalez Realeko jokalari arrasatearrak lagunartea izango du laster. Besteak beste, haren lagun koadrila dabil peña osatzen. Eta dagoeneko zehaztu dute peña aurkezteko eguna: martxoaren 24an egingo dute ekitaldia Arrasaten eta ondoren afaria izango da. Besteak beste, Mikel Labaka, Mikel Aranburu eta Aitor Lopez Rekarte Realeko kapitain arrasatearra gonbidatu dituzte.

**piperrautsa**

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

## Garzon bueltan

Aspalditxo etorri zen EEBBetatik bueltan gure andaluza (*epaile ona zela-ta, zakurraren putza*, diosta belarrira bertso-memoriak). Harrezkero, Garzonek beste buelta bat ere hasi du, emeki bada ere: muturretik normaltasunera doana, hain zuzen.

Oso adierazgarri egin zait joan den astean superepaileak argitaratu duen ebazpena, ezker abertzalearen eskubide zibil eta politikoak aitortuz. Muturrera zihoala, Garzon bera izan baitzen 'dena da ETA' dotrina juridikoaren aita; berak jarri zuen oinarria gero etorri diren hainbat gehiegikeria posible egiteko. Izutu egin ote da, bere sorkuntzarekin zer egin daitekeen ikusita?

Garzonen bueltak izaten badu joanak izan zuen arrakastaren erdia, agian, negua ez da hain gorria izango.

**ai, ene!**



## Jolaserako eta jateko ere balio duten piezak

Lego piezekin jolastea atsegin duzula? Bada, orain, jan daitezkeen piezak egin dituzte, zale sutsuenei zuzenduta agian...

http://tinyurl.com/27zwlx

